



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Prozesu zibil bereziak

Katixa Etxebarria Estankona
Josune Perez Estrada
Alberto Saiz Garitaonandia
Ixusko Ordeñana Gezuraga

**EUSKARA ERREKTOREORDETZAREN SARE
ARGITALPENA**

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

LABURDURAK

Art.	Artikulua
AX	Azken Xedapena
BJLO	Botere Judizialaren Lege Organikoa
EK	Espainiako Konstituzioa
JHL	Jabetza Horizontalaren Legea
KZ	Kode Zibila
NE	Notario Erregelamendua
PZL	Prozedura Zibilaren Legea
XI	Xedapen Indargabetzailea

AURKIBIDEA:

1. KAPITULUA: PROZESU ZIBIL XEDAGARRIAK

- 1.1. Epai-babes pribilegiatua
- 1.2. Materiaren arabera zehaztutako prozesua
 - 1.2.1. Sarrera
 - 1.2.2. Epaiketa arrunt bidez ebatzi beharreko gaiak
 - 1.2.3. Hitzeko epaiketa bidez ebatzi beharreko liskarrak
 - 1.2.3.1. Aurkezpena
 - 1.2.3.2. Hitzeko epaiketa plenarioa
 - 1.2.3.3. Hitzeko epaiketa sumarioa

2. KAPITULUA: XEDAPENEZKOAK EZ DIREN PROZESUAK

- 2.1. Xedapenezkoak ez diren prozesuak. Ezaugarriak
- 2.2. Pertsonen gaitasunari buruzko prozesuak
 - 2.2.1. Ezgaitasuna
 - 2.2.2. Zarrasteltasuna
 - 2.2.3. Gaitasuna berreskuratzea
 - 2.2.4. Buru-nahasteak dituzten pertsonen barneratzea
- 2.3. Seme-alabatasunari, aitatasunari eta amatasunari buruzko prozesuak
- 2.4. Ezkontzari buruzko prozesuak
 - 2.4.1. Ezkontza-deuseztasuna, eta auzi bidezko banaketa eta dibortzioa
 - 2.4.2. Adostasunezko banantzea eta dibortzioa
 - 2.4.3. Behin-behineko neurriak
 - 2.4.4. Behin betiko neurriak
- 2.5. Familiarteko harremanak
- 2.6. Eliza-ebazpenen eragingarritasuna
- 2.7. Adingabeen mantenuari, zaintzari eta jagoteari buruzko prozesuak
- 2.8. Adingabeen babespenaren eta adopzioen alderdi zehatz batzuei buruzko prozesuak
- 2.9. Oinarrizko eskubideen babesari dagozkion berezitasunak prozesu zibilaren esparruan

3. KAPITULUA: ONDAREEN BANAKETA JUDIZIALA

- 3.1. Ondarearen banaketa judizialerako prozedurak. Gai orokorrak
- 3.2. Jaraunspen-ondarearen banaketa judizialaren prozedura
 - 3.2.1. Sarrera
 - 3.2.2. Alderdien legitimazioa: abintestato jaraunseleen deklarazioa
 - 3.2.2.1. Nabaritasun aktaren bidezko jaraunseleen deklarazioa
 - 3.2.2.2. Jaraunseleen deklarazio-espeditente judiziala
 - 3.2.3. Jaraunspen-ondarearen balioespena eta banaketa
 - 3.2.3.1. Sarrera
 - 3.2.3.2. Prozeduraren hasiera: eskaera egiteko legitimazioa eta betekizunak
 - 3.2.3.3. Prozeduraren garapena: ondasunen balioespena eta banaketa
 - 3.2.3.4. Prozeduraren amaiera: ondasunen jabetza-tituluak jaraunseleei ematea
 - 3.2.4. Jaraunspen-ondarearen interbentzioa eta administrazioa
 - 3.2.4.1. Jaraunspenaren ondasunen eta dokumentuen segurtasun-neurriak
 - 3.2.4.2. Jaraunspen-ondarearen administrazioa
- 3.3. Ezkontzaren ondasun-erregimena likidatzea
 - 3.3.1. Oinarriak
 - 3.3.2. Eskumena
 - 3.3.3. Objektua
 - 3.3.3.1. Inbentarioa eratzeko prozedura
 - 3.3.3.2. Ezkontza-erkidegoaren ondasunak likidatzeko eta banatzeko prozedura

4. KAPITULUA: PROZESU MONITORIOA

- 4.1. Kredituaren babes prozesala
- 4.2. Aurrekari historikoak
- 4.3. Kontzeptua eta ezaugarri nagusiak
- 4.4. Izaera juridikoa
- 4.5. Prozesu monitorioaren egokitasuna
- 4.6. Eskumena
- 4.7. Hasierako eskaria
- 4.8. Eskariaren onarpena eta ordaintzeko errekerimendua
- 4.9. Zordunaren jarrerak ordaintzeko errekerimenduaren aurrean

- 4.9.1. Zordunak ez ordaintzea
- 4.9.2. Zorduna ez agertzea
- 4.9.3. Zordunak aurka egitea
- 4.10. Berezitasunak jabetza horizontalaren gaitan

5. KAPITULUA: KANBIO-EPAIKETA EDO JUDIZIOA

- 5.1. Sarrera
- 5.2. Truke-letra: kanbio-epaiketaren derrigorrezko betekizuna
- 5.3. Kanbio-epaiketaz arduratzeko eskumena
- 5.4. Aurka-egiterik gabeko kanbio-epaiketa
 - 5.4.1. Lerro nagusiak
 - 5.4.2. Demanda eta bere onarpena
 - 5.4.3. Ordaintzeko agindeia eta bahitura
 - 5.4.4. Betearazpena agintzen duen autoa
- 5.5. Kanbio-epaiketari aurka egiteko demanda jartzea eta bere ondorioak
 - 5.5.1. Sarrera
 - 5.5.2. Aurka-egite kanbiarioa izapidetzea
 - 5.5.3. Aurka egiteko arrazoiak.
 - 5.5.3.1. Aurka egiteko arrazoi prozesalak
 - 5.5.3.2. Aurka egiteko arrazoi materialak
- 5.6. Demandatuaren jarrerak ordainketa-agindeia jasotzean
 - 5.6.1. Zordunak zorra berdintzen duenean
 - 5.6.2. Zordunak zorra berdintzen ez duenean
 - 5.6.3. Zordunak kopurua zaintzapean utzi eta aurka egiten duenean
 - 5.6.4. Zordunak ordaindu eta aurka egiten duenean
- 5.7. Kanbio-legeak ezarritako solidaritate-erregimenaren garrantzia prozesuan
- 5.8. Aurka-egitea ebazten duen sententzia

6. KAPITULUA: HIPOTEKA-BETEARAZPENAREN PROZEDURA

- 6.1. Hipoteka-betearazpenaren prozedura. Sarrera
- 6.2. Hipoteka-hartzekodunak erabil ditzakeen prozedurak
- 6.3. Betearazpen-prozesu arrunta

- 6.3.1. Alderdiak eta metaketa
- 6.3.2. Prozesuaren berezitasunak
- 6.4. Hipoteka betearazteko prozesu berezia
 - 6.4.1. Prozesu balizkoak
 - 6.4.1.1. Finkaren tasazio-prezioa
 - 6.4.1.2. Agindei eta jakinarazpenetarako egoitza
 - 6.4.1.3. Eskumena
 - 6.4.1.4. Legitimazioa
 - 6.4.2. Betearazpenaren garapena
 - 6.4.2.1. Demanda
 - 6.4.2.2. Ordainketa-agindeia
 - 6.4.2.3. Erregistro-ziurtagiria eta orri-bazterreko oharra
 - 6.4.2.4. Jakinarazpenak
 - 6.4.2.5. Gordailua edo ondasuna administratzea
 - 6.4.2.6. Enkantea
 - 6.4.2.7. Hipoteka-kreditua ordaintzea eta soberakinaren erabilera
 - 6.4.3. Betearazpena etetea eta aurka egitea
 - 6.4.3.1. Betearazpena eteteko arrazoiak
 - 6.4.3.2. Betearazpenpekoaren aurka-egitea
 - 6.4.4. Epaketa arruntera igortzea.
- 6.5. Edukitzaren lekualdaketarik gabeko bahiaren betearazpenerako prozesu berezia

1. KAPITULUA: PROZESU ZIBIL XEDAGARRIAK

1.1. Epai-babes pribilegiatua. 1.2. Materiaren arabera zehaztutako prozesua. 1.2.1. Sarrera. 1.2.2. Epaiketa arrunt bidez ebatzi beharreko gaiak. 1.2.3. Hitzeko epaiketa bidez ebatzi beharreko liskarrak. 1.2.3.1. Aurkezpena. 1.2.3.2. Hitzeko epaiketa plenarioa. 1.2.3.3. Hitzeko epaiketa sumarioa.

1.1. Epai-babes pribilegiatua

Aurreko PZL indarrean zegoen garaian, joan den mendean alegia, prozesu zibil berezi ugari zeuden. Hortaz, gai edo gatazka asko garaiko epaiketa arruntetik (munta handiko epaiketa) at geratzeaz gain, PZLtik kanpo ere geratzen ziren. Epai-babes pribilegiatua gailentzen zen, beraz, PZLk arautzen duen prozesu arruntetik ihes egiten zuena alegia.

Egun indarrean dagoen PZLk, epai-sistema bakunago bat aurkitu nahian, epai-babes pribilegiatuak eta prozedura-berezitasunak murrizteko ahalegin handia egin du, eta gai gehienak aurreikusten dituen adierazpenezko bi prozesu arruntan (arrunta eta hitzekoa) eremuan kokatu ditu. Legelariak, beraz, berezitasunak gutxitzearen aldeko apustua egin du. Testuinguru horretan bada, berezitasunak gutxi, baina badira.

Zalantzarik gabe, xedagarriak ez diren prozesu zibilek berezitasunak izan behar dituzte. Alderdiek xedatu ezin duten objektu prozesala duten prozesuek, hau da, interes orokorreko gai publikoak argitzen dituztenak, horretatik eratortzen diren apartekotasunak izaten dituzte. PZLren IV. Liburuaren I. Tituluan arautzen diren prozesuak dira. Hala nola, gaitasuna, filiazioa, ezkontza eta adingabeei buruzkoak (PZLren 748. artikulutik 781.era bitarteko artikulua). Egia esan, kasu horietan, berezitasuna prozesua bera informatzen duten printzipioetatik (aukera-printzipioak baino gehiago beharizan-printzipioak eraentzen du, eta zioz alderdiei ahalmen gutxiago eta epaileari gehiago aintzatesten zaie) eratortzen bada ere, jarraitu beharreko prozedura hitzeko epaiketa izanik, berezitasunak eskasak dira.

Gainerako prozesu zibiletan, xedagarrietan alegia, berezitasun prozesalek bi iturri izan ditzakete: aplikatu beharreko zuzenbide materiala edo kasuan kasurako aurreikusten diren prozedura-berezitasunak. Ondoren aztertuko dira biak.

Kasu zehatza ebazteko aplikatu beharreko zuzenbide materialak berezitasun prozesalak ekar ditzake. Ideia zentzuzkoa da oso, zuzenbide jurisdikzionala zuzenbide materiala egikaritzeko bidea baita. Berezitasun prozesal horiek prozesuaren hainbat elementutan izan dezakete eragina (objektu prozesala, eskumena, alderdiak, ondorioak, betearazpena); inoiz ez, ordea, prozeduran. Berezitasun horiek PZLn baino gehiago, lege (material) berezietan aurki daitezke. Adibidez, zeinahi Sozietate Anonimoren batzorde nagusiaren akordioaren aurka errekurtsua aurkeztu nahi izanez gero, epaiketa arruntari jarraitu beharko zaio. Ez dago prozedurari dagokionez berezitasunik. Agertzen diren berezitasunak prozesalak dira, aplikatu beharreko zuzenbide materialetik eratorriak, eta objektu prozesalari (Sozietate Anonimoen legearen 115. art.), akzioari (Sozietate Anonimoen Legearen 116. art.), edo legitimazioari (Sozietate Anonimoen Legearen 117. art.) eragiten die.

PZLk aurreikusten dituen prozedura-berezitasunak oso gutxi dira. Legegileak epaiketa arrunta eta hitzezkoa izapidetzearen oinarri bihurtu nahi ditu, eta apartekotasunak asko mugatu. Berezitasunak ikus daitezke, adibidez, demandaren onarpenean, hitzezko epaiketan (PZLren 439. art.) edo haren ikustaldian (PZLren 444. art.).

1.2. Materiaren arabera zehaztutako prozesua

1.2.1. Sarrera

Esan den bezala, PZLn, legelariak berezitasun prozesalak gutxitzearen eta adierazpenezko epaiketa arruntak indartzearen aldeko aukera egin du. Bi dira adierazpenezko epaiketak, eta horien artean hautatzeko orduan, zenbatekoaren irizpidea da nagusi. 3.000 eurotik gorako balioa duten demandak epaiketa arrunt bidez izapidetuko dira (PZLren 249.2. art.). 3.000 eurotik beherakoak, aldiz, hitzezko epaiketa bidez (PZLren 250.2. art.). Kasu edo gatazka baten balio ekonomikoa kalkulazina bada, epaiketa arrunt bidez izapidetuko da (PZLren 249.2. art.). Irizpide hori guztiz objektiboa da eta ez du pribilegiorik ekartzen. Badakar berarekin, ordea, nolabaiteko pribilegioa, prozesu egokia zein den aukeratzeko zenbatekoaren aurretik aplikatzen den

irizpideak, materiarenak hain zuzen ere. Lehentasunezko irizpidea izanik, materia batzuk epaiketa arruntarekin (PZLren 249.1. art.) eta beste batzuk ahozkoarekin (PZLren 250.1. art.) uztartzen ditu zuzenean. Ondoren, bi kasuak aztertuko dira.

1.2.2. Epaiketa arrunt bidez ebatzi beharreko gaiak

PZLren 249.1. artikulua zortzi materia biltzen dituen zerrenda bat egiten du. Segida horretan biltzen diren gaiak, zenbatekoa edozein izanda ere, epaiketa arrunt bidez bideratu behar dira. Ikusten denez, zenbatekoaren irizpidea bigarren mailan utzi ondoren, materiaren irizpidea gailentzen da. Materia horietako askorentzat, aipatutakoa (epaiketa arrunt bidez izapidetu behar direla) da arau prozesal bakarra. Beste batzuentzat, bai PZLn, bai beste lege batzuetan, arau prozesal bereziak ematen dira. Ezin da, oro har, prozedura berezitasunez hitz egin bi kasuetan.

Azter bidez gai zerrenda honen elementuak eta bakoitzean agertzen diren berezitasunak (prozesalak edo/eta prozedurari dagozkionak):

1. Pertsonaren ohorezko eskubideak:

Gai honi dagokionez, ezin daiteke berba egin prozesu berezi batez, ezta prozedura berezitasunez ere. Pertsonaren ohorezko eskubideei buruz bi arau jasotzen dira PZLn. Batetik, epaiketa arrunt bidez bideratu behar direla beti (PZLren 249.1.1. art.). Eta bestetik, materia honi buruz irmoak ez diren sententziak ezin direla behin-behinean betearazi (PZLren 525.1.1. art.)

2. Ohorerako, bizitza pribaturako eta norberaren irudirako eskubideak:

Gai honetan agertzen diren berezitasunek bi iturri dituzte: maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa, bizitza pribatu pertsonalerako eta familiarerako, eta norberaren irudirako eskubideen babes zibilari buruzkoa, eta PZL bera.

1/1982 legeak dioenez, eskubide horiek pairatutako urratzeak bide prozesal arruntaren bitartez (egun bakarra, epaiketa arrunta) edo EK-k 53.2. artikuluan aurreikusitako prozeduraren bitartez bideratuko dira (9.1. art.). Pertsonaren oinarriko eskubideen

babes jurisdikzionalaren abenduaren 26ko 62/1978 legeak eskubide horiek urratzen zirenerako aurreikusten zuen bideari ezin zaio gaur egun jarraitu, lege horrek jasotzen zituen arau prozesal zibilak indargabetuta baitaude (PZLren 2.3. XI.). Era berean, 1/1982 legeak arau asko ematen ditu legitimazioaren gainean (4., 5. eta 6. artikulua).

PZLk, aldiz, xedatzen du, eskubide horiei buruzko prozesuetan, Ministerio Fiskala parte izango dela beti eta bere izapidetzak lehentasuna izango duela (PZLren 249.1.2. art.).

3. Sozietatearen erabakien inpugnazioa:

PZLren 249.1.3. artikuluaekin bat, sozietateen erabakiei aurka egiteko xede duten demandak epaiketa arrunt bidez bideratuko dira, erabakiok nor hartu dituen (Batzar edo Biltzar Nagusiek, bazkideen nahiz obligatiodunen Batzar bereziek, edo/eta merkataritzako erakundeen kide anitzeko administrazio-organismoek) kontuan hartu gabe.

Sozietate mota anitz daudela kontuan hartuta, kasuan kasuko agertzen diren berezitasunak zein diren jakiteko beren legedi berezia izango da kontuan.

Horrela, Sozietate Anonimoen kasuan, abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintza Dekretuak zenbait berezitasun prozesal jasotzen bazituen ere, PZLk gehienak indargabetu ditu (2.2. XI eta 3. AX). Horrenbestez, egun 1464/1989 legeak xedatzen duenez, akordio sozialen inpugnazioa epaiketa arrunt bidez eta PZLk dionaren arabera bideratuko da (118. art.).

PZLk, gaia dela eta, epaiketa arrunt bidez bideratu behar izateaz (PZLren 249.1.3. art.) gain, honako hauek arautzen ditu: akordio sozialen inpugnazioaz arduratuko den epaitegi eskuduna (PZLren 52.1.10. eta 54 artikulua), beren derrigorrezko metaketa eta banaketa (PZLren 73.2. art.), gauza epaituaren ondorioa (PZLren 222.3. III. art.), eta inpugnatutako akordioaren esekipen-neurri kautelarra (PZren 727.10. art.).

Sozietate Anonimoen Legeak akordio sozialak inpugnatzeko kariak (115. art.), akzioaren iraungipena (116. art.), legitimazioa (117. art.) eta sententzia merkataritza-erregistroan inskribatzeko beharra (122. art.) arautzen ditu, besteak beste.

PZL ez da berariaz Erantzukizun Mugatuko sozietateak arautzen dituen legerari (2/1995, martxoak 23koa) buruz mintzo. Horrela, lege horren 56. artikularekin bat, sozietateen Batzar Nagusiaren akordioen inpugnazioa Sozietate Anonimoen Legearekin bat egingo da.

PZLk ez du ere Kooperatiben Legea (27/1999, uztailak 16koa) aipatzen. Zioz, haren 31. eta 37. artikuluek indarrean dira. Biek, hurrenez hurren, Batzar Nagusiaren eta Kontseilu Errektorearen akordioen inpugnazioa arautzen dituzte eta biek Sozietate Anonimoen legerako igorpena dute.

4. Lehia desleiala:

Lehia desleialaren gaineko arazoak, arau orokor legez, epaiketa arrunt bidez tramitatuko dira. Hala ere, eta salbuespen gisa, muntari buruzko erreklamazio hutsa aurkezten bada, zenbateko horri dagokion prozeduraren bitartez izapidetuko dira (PZLren 249.1.4. art.). Irizpide bera ezartzen du lehia desleiala arautzen duen urtarrilaren 10eko 3/1991 legeak (22. art.). Lege horrek beste arau prozesal batzuk ere biltzen ditu. Hala nola, lehia desleialetik eratorritako akzioak (18. art.), legitimazio gaiak (19. eta 20. artikulua), preskripzioa (21. art.) eta aurretiazko diligentziak (24. art.).

PZLk berak ere gai honi buruzko zenbait arau berezi biltzen ditu. Horrela, derrigorrezko lurralde-eskumena aurreikusten du (52.1.12. eta 54.1 artikulua) eta frogaren zama xedatzen du (217.4 art.). Lehia desleialarekin bikain bat egiten duen neurri kautelarra ere aurreikusten du (727.7. art.).

5. Industria-jabetza:

Lehia desleialaren kasuan esan den bezala, industria-jabetzari buruzko arazoak, arau orokor legez, epaiketa arrunt bidez tramitatuko dira. Hala ere, eta salbuespen gisa, muntari buruzko erreklamazio hutsa aurkezten bada, zenbateko horri dagokion prozeduraren bitartez izapidetuko dira (PZLren 249.1.4. art.).

Gai horren gainean, hiru dira lege bereziak: martxoaren 20ko 11/1986 legea, asmakizun-patenteei eta baliagarritasun-ereduei buruzkoa (2245/1986 legea, urriaren 10eko Errege Dekretuz garatua), markei buruzko abenduaren 7ko 17/2001 legea (687/2002 legea, uztailaren 12ko Errege Dekretuz garatua), eta diseinu industrialari buruzko uztailaren 7ko 20/2003 legea (1937/2004 legea, irailaren 27ko Errege Dekretuz garatua).

Asmakizun-patenteei eta baliagarritasun-ereduei buruzko legeak hainbat arau prozesal barneratzen ditu. Uzi motak (62. eta 127. artikulua), eskumena (125. art.), legitimazioa (194. art.), aurretiazko diligentziak (129. artikulutik 132.era bitarteko artikulua, biak barne), adiskidetzea (140. artikulutik 142.era bitarteko artikulua) eta neurri kautelarrak (133. artikulutik 139.era bitarteko artikulua) xedatzen ditu.

Marken legeak bestalde, uzi motak (40. artikulutik 42.era bitarteko artikulua), kalte-ordaina (43. eta 44. artikulua), preskripzioa (45. art.) eta markaren baliogabetasuna (51., 53. eta 61. artikulua) arautzen ditu.

Azkenik, Diseinu Industrialari buruzko legeak berak ere biltzen ditu zenbait arau prozesal. Horrela, titulartasunaren aldarrikapena (16. art.), demandaren aurkezpenaren ondorioak (17. art.), eta sententziaren efektuak (18. art.) xedatzen ditu, besteak beste.

PZLk industria-jabetzari buruz biltzen dituen arauak urriak dira. Aipatutako izapidetza-arau nagusiaz gain (PZLren 249.1.4. art.), eskumenaren gaineko xedapenak (52.1.13. eta 54.1. artikulua) eta jabetza industrialeko tituluen baliogabetasuna edo iraungitasuna aitortzen duten sententzien behin-behineko betearazpena ukatzen duen xedapena (525.1.3. art.) besterik ezin dira aipatu.

6. Jabetza intelektualak:

Gai honi buruzko demandak, aurrekoen arau nagusi eta salbuespen bera aplikatuz, epaiketa arrunt bidez tramitatuko dira. Hala ere, eta salbuespen gisa, muntari buruzko erreklamazio hutsa aurkezten bada, zenbateko horri dagokion prozeduraren bitartez izapidetuko dira (PZLren 249.1.4. art.).

Esandakoaz gain, PZLk jabetza industrialari buruzko beste bi arau prozesal jasotzen ditu, lurralde eskumenaren (PZLren 52.1.14. eta 54.1 artikulua) eta neurri kautelarren (PZLren 727-9. art.) gainekoak.

Gai hau arautzen duen legeak, 1/1996, apirilak 12ko Errege-lege Dekretuak, nahiz eta PZLra igorpen orokor bat jaso (103. art.), akzioei eta neurri kautelarrei buruzko xedapenak (138. artikulutik 141.era bitarteko artikulua, biak barne) eta legitimazio arau batzuk ere jasotzen ditu (150. art.).

7. Publizitatea:

Objektu honi buruzko demandak ere, arau orokor gisa, epaiketa arrunt bidez tramitatuko badira ere, muntari buruzko erreklamazio hutsa aurkezten bada, zenbateko horri dagokion prozeduraren bitartez izapidetuko dira (PZLren 249.1.4. art.).

PZLk materia honetan frogaren zamari buruzko arau berezia jasotzen du (PZLren 217.4. art.).

Publizitatearen lege orokorrean (azaroaren 11ko 34/1988 legea) aurki daitezke publizitateari buruzko berezitasun prozesal gehiago. Legitimazioa eta prozesu aurreko jarduera (25. artikulutik 27.era bitarteko artikulua), eta sententziaren edukia (31. art.) xedatzen ditu, besteak beste.

8. Kontratazioaren baldintza orokorrak:

Kontratazioaren baldintza orokorrei buruzko akzioak egikaritzen dituzten demandak, arlo honetako legediarekin bat, epaiketa arrunt bidez izapidetuko dira (PZLren 249.1.5. art.). Era berean, PZLk derrigorrezko lurralde-eskumenari buruzko arau berezi bat xedatzen du (PZLren 52.1.14. art. eta 54.1. art.).

Bere aldetik, Kontratazioaren baldintza orokorrei buruzko legeak (apirilaren 13ko 7/1998 legea) akzio motak (12. art.) eta beren preskripzioa (19. art.) arautzeaz gain, aurreko adiskidetzea (13. art.), legitimazioa (16. eta 17. artikulua) eta sententzien publizitatea eta inskripzioa (21. eta 22. artikulua) xedatzen ditu.

9. Hiri- eta landa-errentamenduak:

Objektu honi buruzko demandak epaiketa arruntaren edo hitzezko epaiketa bidez izapidetu behar diren jakiteko, berriro ere, PZLk arau orokor bat eta bere salbuespena ezartzen ditu. Demanda horiek, hiri- nahiz landa-errentamenduak izan, oro har, epaiketa arrunt bidez izapidetuko dira. Ez ordaintzeagatiko edo errentamendu-harremanen epea azkentzeagatiko utzarazte-kasuetan, hitzezko epaiketa egin beharko da (PZLren 249.1.6. art.).

10. Atzera eskuratzea:

Edozein motatako atzera eskuratze akzioa egikaritzeko, demandak epaiketa arrunt bidez izapidetuko dira (PZLren 249.1.7. art.). Beraz, atzera eskuratzea hitzartutakoa nahiz legeak aurreikusia izan, epaiketa arrunt bidez tramitatuko da beti.

PZLk gai horri buruzko berezitasun prozesal bat biltzen du (266.3. art.): demanda horiei berauek oinarritzeko tituluaren froga-hastapenak diren agiriak batu beharko zaizkio. Legeak edo kontratuak prezioa zainpean uztea galdatzen badu, atzera eskuratzearen menpeko gauzaren prezio hori zainpean jarri dela egiaztatzeko agiria batuko zaio demandari, baldin eta prezio hori ezaguna bada, edo prezioa jakin arte zainpean uztea bermatuko duen kausioa egiaztatzeko agiria.

11. Jabetza horizontala:

Jabetza Horizontalaren Legeak (1960ko uztailaren 21ekoa, hainbat alditan aldatua, aldaketarik garrantzitsuena apirilaren 6ko 8/1999 legeak eragin badio ere) jabeen batzei eta jabeei beraiei aitortutako akzioak egikaritzeko demandak epaiketa arrunt bidez izapidetuko dira, muntari buruzko erreklamazio hutsak ez badira. Bigarren kasuan, erreklamaturako muntari dagokion prozedura egin beharko da (PZLren 249.1.8. art.).

1.2.3. Hitzezko epaiketa bidez ebatzi beharreko liskarrak

1.2.3.1. Aurkezpena

PZLren 250.1. artikulua hitzezko epaiketa bidez izapidetu behar diren 11 gaik edo materialak osatzen duten zerrenda bat biltzen du. Zerrenda horretan agertzen diren objektuetan, zenbatekoa edozein izanda ere, hitzezko epaiketa egin beharko da beti. Arau prozesal berezi horretaz gain, zerrendako gai batzuetan beste batzuk izan behar dira kontuan. Oso gutxitan aipa daitezke prozedura-berezitasunak.

Edozein kasutan, gaiaren irizpidea aplikatuz epaiketa bat hitzezkoa denean, judizioa berezia da. Judizio berezi hori, aldiz, plenarioa edo sumarioa izan daiteke, eta bere bitartez lortzen den babesa, plenarioa edo sumarioa. Ondoren aztertuko dira bi kasuak.

1.2.3.2. Hitzezko epaiketa plenarioa

PZLren 250.1 artikulua biltzen dituen gai batzuetan, nahiz eta hitzezko judizio bidez izapidetu, epaileek babes plenarioa eskaintzen dute. Hortaz, alderdiek nahi dituzten alegazioak egin ditzakete, gatazka epaileei bere osotasunean aurkeztu, eta gustuko dituzten froga guztiak eska ditzakete. Era berean, epaileek ez dute inolako mugarik liskarraz arduratzeko, berau ebatzen duen sententziak gauza epaitu materialaren ondorio guztiak izanik. Honako gai hauek dira:

1. Prekarioa:

PZLren 250.1.2. artikulua dioenez, hitzezko epaiketaren bidez izapidetuko dira jabea, gozameduna edo finka edukitzeko eskubidea duten pertsonetatik beste edozeinek landa-lurreko edo hiri-lurreko finkaren edukitza osoa berreskuratzeko demanda, finka hori prekarioan utzi denean.

PZLren zioen azalpenak prekarioaren babes plenario horren zergatia azaltzen du. Haren esanetan, eragingarritasunik ezaren, segurtasun juridikorik ezaren eta prozesuan gorabehera gehiegi izatearen esperientziak prozedura hori sumario gisa ez itxuratzea gomendatzen du.

2. Mantenua:

Lege-xedapen bat edo bestelako titulu bat dela-eta zor den mantenua eskatzen duen demanda hitzezko judizio bidez izapidetuko da (PZLren 250.1.8. art.).

3. Egitateen zuzenketa:

Hitzezko epaiketaren bidez ere tramitatuko dira egitate zehaztugabe edo kaltegarrien zuzenketa-akzioa egikaritzeko demandak (PZLren 250.1.9. art.).

Gai honetan, nahiz eta PZLk zuzeneko erreferentziarik ez egin, 2/1984, martxoak 26ko Zuzenketa eskubideari buruzko Lege Organikoa izan behar da kontuan. Lege horrek, besteak beste, adiskidetze-ahalegin bat (1. artikulutik 3.era bitarteko artikulua), lurralde-eskumena (4 art.) eta errekursoak (8. art.) xedatzen ditu. Lege horrekin bat, zuzenketa-prozesu horietan ez da behar ez abokaturik ez prokuradorerik (5. art.).

4. Erregistroko kalifikazioak:

Erregistratzaileen kalifikazio dokumentalaren kontra Hipoteka Legeak aurreikusten duen errekursoari buruzko Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak emandako erabakietan, errekursoa aurkez daitezke lehenengo auzialdiko epaitegian (Hipoteka Legearen 328 art.). Ez da benetako errekurso bat, prozesu zibil berri bat baizik. Aipatutako artikulua (Hipoteka Legearen 328. art.) errekurso horretarako legitimazioa, demandatzeko epea eta eska daitezkeen neurri kautelarrak xedatzen ditu. Gainerakoan, hitzezko epaiketaren bidetik izapidetuko da.

5. Trafikoa:

PZLk aztergai den 250. artikulua honetan ez du esaten ibilgailu motordunen zirkulazioak sortutako kalte-galeren ordainketa eskatzea xede duten demandak hitzezko epaiketa bidez izapidetu behar direla. Hori dela eta, puntu honetan, eztabaida egon badago ere, auzitegi-tako jurisprudentziak kasu hauek, zenbatekoaren arabera, hitzezko epaiketaren edo epaiketa arruntaren bidez izapidetu behar direla adierazten du.

Edozein kasutan, PZLren araudiarekin bat, kasu hauetaz arduratuko den lurraldeari dagokionez, epaitegi eskuduna kalteak sortutako tokikoa izanen da (52.1.9. art.), eta

bere eskumena ofizioz kontrolatu beharko du (54.1 art.). Era berean, kalte-ordaina ordaintzera kondenatua izan denari ez zaio onartuko gora jotzeko errekurtsua, prozesuko arau-haustearen ondoriozko errekurtsua edo kasazio-errekurtsua, baldin eta berauek prestatzean gordailua eratu duela egiaztatzen ez badu. Gordailu horrek bere barne hartuko ditu kondenaren zenbatekoa, honen interesak eta galda daitezkeen errekarguak, eta ez du emandako erabakiaren behin-behineko betearazpena saihestuko (449.4. art.).

6. Bukarazte-akzioa kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes kolektiboak eta zehaztugabeak babesteko

Akzio hori hitzezko epaiketaren bidez izapidetuko da. Horrela da kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesaren babeserako hainbat europar direktiba edo zuzentarau espainiar ordenamendu juridikora egindako transposizioa xedetzat izan zuen urriaren 28ko 39/2002 legeak PZLn eragindako aldaketen ondoren.

Bukarazte-akzioaren helburua demandatua legearen kontrakoa den jarduerari bukaera eman diezaion lortzea da. Sententziak, era berean, jarduera hori arautu eta etorkizunean errepikatzea galaraziko du.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen interes kolektibo eta zehaztugabeak babestea helburu duen bukarazte-akzio horretaz demandatuaren establezimenduko auzitegia arduratuko da. Horren ezean, haren helbidekoa arduratuko da gatazkaz. Azkenik, demandatuak espainiar lurraldean helbiderik ez balu, demandantearen helbideko auzitegia arduratuko litzateke liskarraz.

Bukarazte-akzioa, oro har, Kontsumo Institutu Nazionalak eta Erkidego Autonomoetako eta tokian tokiko kontsumitzaileak babestea xede duten organoek egikari dezakete. Gainera, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteek eta Ministerio Fiskalak ere egikari dezakete.

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes kolektibo eta zehaztugabeak babesteko bukarazte-akzioa onesten duen sententzian, auzitegiak, egoki baderitzo, demandatuaren kontuko sententziaren publikazioa (osoarena edo zati batena) agindu dezake. Era

berean, urraketaren ondorioak denboran luza daitezkeenean, zuzenketa-adierazpen bat agin dezake (PZLren 221.2. art.).

1.2.3.3. Hitzeko epaiketa sumarioa

Epai-babes sumarioa aipatzen da, alderdien alegazioei, frogaren gaiari eta frogabideei beraiei, eta ondorioz, epaileek arduratzeko duten gaitasunari mugak jartzen zaizkionean. Gauzak horrela, babes horren fruitu diren sententziak ez dute gauza epaitu materialaren ondorioz (PZLren 447.2. art.).

Uzi sumarioak hitzeko epaiketa bidez izapidetu behar dira beti (PZLren 250.1.1., 3., 4., 5., 6., 7., 10. eta 11. artikulak).

Honako hauek dira hitzeko epaiketa sumario bidez izapidetu beharreko materiak:

1. Utzarazte edo maizter-kaleratzea:

Utzarazte-epaiketaren helburua errentamenduan eman den finka berreskuratzea da, alokairua ez ordaintzeagatik edo errentamendu-kontratuan hitzartu zen epea agortzeagatik. Epaiketa bat eta bera da, nahiz eta alokatutako finka landa-lurrean edo hiri-lurrean egon (PZLren 250.1.1. art.).

Epaiketa honetaz finka kokatzen den lurraldeko lehen auzialdiko epaitegia arduratuko da (PZLren 45., 47. eta 52.1.7. artikulak). Epai organo horrek ofizioz kontrolatuko du bere eskumena (PZLren 54.1. art.).

Epaietaren sumariotasunaren adierazgarri, demanda alokairuaren edo antzeko zenbatekoaren ordainketarik ezan oinarritzen bada, demandatuak eskariari aurka egiteko ordainketa egin duela alegatu eta frogatu beharko du besterik gabe. Era berean, demandatuak ezin izango du gora-jotzea, arau-hauste prozesalengatiko errekurtoa edo kasazio-errekurtoa jarri, haiek prestatzean aurreko alokairuak ordainduta dituela frogatzen ez badu (PZLren 449.1. art.).

PZLk, berariaz, berezitasun batzuk biltzen ditu hiri-lurrean kokatzen den finka utzarazteko, oinarria ordainketa falta denean:

a) Ez da onartuko errentariak zor dituen errentak ez ordaintzeagatik hiri-finka utzaraztea helburutzat duen demanda, errentatzaileak ez baditu adierazten kasu horretan utzaraztea ezerezean gelditzea ahalbidera dezaketen inguruabarrak (PZLren 439.3. art.).

b) Alokairua ez ordaintzeagatiko utzarazteari aurretik ordaindu gabeko errenten edo antzeko kantitateen ordainketa erreklamatzeko xede duten akzioak metatu ahalko zaizkio. Eskatzen den diru-munta edozein izanda ere, hitzezko epaiketaren bidez izapidetuko dira beti metatutako uziak (PZLren 438.3.3. art.).

c) Utzarazte-demandan demandatzaileak, errentatzaileak, alegia, errentariari zor guztia edo zati bat eta kostuak barkatzeko konpromisoa ager dezake; horretarako, zorraren zenbatekoa argi adieraziko du eta barkamen hori zehazten den epean (inoiz ez hilabete baino gutxiago) maizterrak finka borondatez uzteko baldintza ezarriko du (PZLren 437.3. art.).

d) Maizterra ikustaldirako deitzean, auzitegiak, dagokionean, utzaraztea ezerezean uzteko aukera (PZLren 22.4. art.) adieraziko du. Errentatzaileak aurreko puntuan aipatutako konpromisoa adierazi badu, maizterrari jakinaraziko zaio konpromiso hori onartzea amore-ematetzat joko litzatekeela, eta agindeia onartzeko 5 eguneko epea emango zaio. Azkenik, demandatuari esango zaio, gainera, ikustaldira agertzen ez bada, utzaraztea adieraziko dela, besterik gabe. Era berean, auzitegiak onartze-autoan utzaraztea gauzatzeko eguna eta ordua zehaztuko ditu, eta ikustaldia egiten denetik hilabete baino lehenago egin daiteke (PZLren 440.3. art.).

e) PZLk berariaz utzaraztea ezerezean uzteko aukera aintzatesten du (PZLren 22.4. art.). Horrela, errentariak ikustaldia baino lehen demandanteari ordaintzen badio edo auzitegian bertan edo notarioarenean uzten badu galdatzen zaion zenbatekoa, utzaraztea gelditu egingen da. Legeak, berariaz, bi salbuespen jasotzen ditu. Utzaraztea ez da ezerezean geratuko: batetik, aldeztu aurretik besteren batean errentariak utzaraztea ezereztu badu, eta bestetik, errentatzaileak errentariari modu sinesgarrian zorra

ordaintzeko agintzen badio, demanda aurkeztu baino gutxienez bi hilabete lehenago eta demanda aurkeztean oraindik ordainketa egin ez bada.

Utzaraztea ezerezean utzita, auzitegiak prozesua bukatzen duen autoa emanen du. Auto horrek absoluzio sententzia baten ondorio berak ditu.

f) Sententzia ikustaldia bukatu eta hurrengo bost egunetan emanen da. Ikustaldian alderdiak sententzia jakinarazteko deituko dira, eta jakinerazpen hori aipatutako bost egun horietatik ahalik eta hurbilen dagoen egunean egingo da (PZLren 447.1. art.).

2. Edukitzaren babesak:

Espainiar ordenamendu juridikoan, ohikoa izan da edukitza interdikto bidez babestea. Nahiz eta indarrean dagoen PZLk hitz hori ez erabili, edukitza babesteko bideak aurreikusten ditu. Zehazki, lau kasu aipatu behar dira:

a) Oinordekoak jaraunspen bitartez eskuratu dituen ondasunen edukitza lortzeko babes-sumarioa aurreikusten du, ondasun haien edukitza inork ugazaba edo gozamendun gisa ez baditu (PZLren 250.1.3. art.). Logikoki, demandanteak demandari bere aldeko jaraunspena frogatzen duen dokumentua batu beharko dio. Gainera, ondasun horien edukitza ugazaba edo gozamendun gisa inork ez duela adieraziko duten lekukoek zerrenda ere jaso beharko du.

b) Ondasun edo eskubide baten edukitza babesteko, horietan urratua edo kaltetua izan denari babes-sumarioa aintzatesten zaio (PZLren 250.1.4. art.). Edozein kasutan, demanda urraketa edo kaltea sortu denetik urte betetik beherako epean jarri behar da (PZLren 439.1. art.).

d) Obra berri baten esekitzea lortzeko babes-sumarioa aurreikusten da (PZLren 250.1.5. art.). Kasu horretan, berehala, auzitegiak ikustaldirako deitu baino lehen, obraren arduradun edo jabeari esekitze-agindua helaraziko dio. Auzitegiak obrarekin jarraitzeko edo/eta jada eraikia kontserbatzeko beharrezkoak diren obrak egiteko kausioa eskain dezake. Era berean, auzitegiak, ikustaldia baino lehen, epaile- edo aditu-azterketa, edo biena agin dezake (PZLren 441.2. art.).

e) Azkenik, obra, eraikin, zuhaitz, zutabe edo antzekoak aurrian badaude eta ondorioz, norbaiti kalteak sor badakizkio, auzitegiek, era sumarioan, haien eraispena edo eraistea agin dezatela eska dezake kaltetuak (PZLren 250.1.6. art.).

3. Inskribatutako eskubide errealak:

Jabetza-erregistroan inskribatutako eskubide errealen titularrek, titulu zilegi eta inskribatua izan gabe, horien aurka egon edo beren egikaritza nahasten dutenen kontra, eskubideon eraginkortasuna eskatzeko jartzen duten demanda hitzezko epaiketa sumarioaren bidetik izapidetuko da (PZLren 250.1.7. art.).

Demandan demandatzaileak emango den sententziaren eraginkortasuna ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak adierazi behar ditu (PZLren 439.2.1. art.). Neurriok epaileak demanda onartzen duen momentuan hartuko ditu (PZLren 441.3 art.). Gainera, demanda horretan, auzi-jartzaileak demandatuak behar ez bezala jasotako fruituez, sortu dituen kalte-galerez eta epaiketaren kostuez erantzuteko eman behar duen kausioa adierazi behar du. Litekeena da demandanteak kausio hori ez eskatzea (PZLren 439.2.2. art.). Azkenik, demanda horri erregistro-idazpenaren ziurtagiria batu behar zaio (PZLren 439.2.3. art.).

Epaiketa horren izaera sumarioaren eraginez, demandatuak demandaren eskaerari arrazoi jakin batzuekin bakarrik aurre egin ahalko dio, kausioa aurkeztu badu betiere (PZLren 444.2. art.).

4. Ondasun higigarrien epekako salmenta eta finantza-errentamendua:

Izenburuko bi objektu hauek sortzen dituzten gatazka batzuk ebazteko, PZLk babes-sumarioa aintzatesten du. Ez dira gatazka guztiak, legeak berariaz aipatzen dituen bi baizik:

(1) Zehaztagarriak eta kontsumigarriak ez diren ondasun higigarrien epekako salmenta kontratutik eratorritako betebeharren ez betetzetik sortuak, kontratu hori betiere Ondasun Higigarrien Eperako Salmenta Erregistroan inskribatuta baldin badago eta

inprimaki ofizialean gauzatu bada, demandantearen xedea betearazpena epeka erositako ondasunen gainean soilik eroriko den kondenazko sententzia bat lortzea denean (PZLren 250.1.10. art.).

(2) Finantza-errentamendu kontratuaren edo jabari-erreserbapeko eperako salmenta-kontratuaren ez betetzetik sortuak, kontratuok, betiere, inprimaki ofizialean gauzatuta, Ondasun Higigarrien Eperako Salmenta Erregistroan inskribatuta baldin badaude, eta demandantearen xedea finantza-errentatzaileak edo saltzaileak, edo finantza-emaileak ondasuna kontratuan zehaztutako tokian berehala jasotzea bada, eta aurretik, dagokionean, kontratuaren suntsitze-adierazpena lortu bada (PZLren 250.1.11. art.).

Aipatutako bi kasuetatik kanpoko ondasun higigarrien epekako salmenta eta finantza-errentamenduari buruzko gatazkak epaiketa arrunt edo monitorioaren bidez ebatziko dira.

2. KAPITULUA: XEDAPENEZKOAK EZ DIREN PROZESUAK

2.1. Xedapenezkoak ez diren prozesuak. Ezaugarriak. 2.2. Pertsonen gaitasunari buruzko prozesuak. 2.2.1. Ezgaitasuna. 2.2.2. Zarrasteltasuna. 2.2.3. Gaitasuna berreskuratzea. 2.2.4. Buru-nahasteak dituzten pertsonak barneratzea. 2.3. Seme-alabatasunari, aitatasunari eta amatasunari buruzko prozesuak. 2.4. Ezkontzari buruzko prozesuak. 2.4.1. Ezkontza-deuseztasuna, eta auzi bidezko banaketa eta dibortzioa. 2.4.2. Adostasunezko banantze eta dibortzioa. 2.4.3. Behin-behineko neurriak. 2.4.4. Behin betiko neurriak. 2.5. Familiarteko harremanak. 2.6. Eliza-ebazpenen eragingarritasuna. 2.7. Adingabeen mantenuari, zaintzari eta jagoteari buruzko prozesuak. 2.8. Adingabeen babespenaren eta adopzioen alderdi zehatz batzuei buruzko prozesuak. 2.9. Oinarrizko eskubideen babesari dagozkion berezitasunak prozesu zibilaren esparruan.

2.1. Xedapenezkoak ez diren prozesuak. Ezaugarriak

Prozesu zibilaren oinarria abagune-printzipioa da, baita horretatik ondorioztatzen den xedapenezko printzipioa ere. Biak borondate-autonomiaren adierazpenak dira; era berean, borondate-autonomia zuzenbide pribatuaren oinarria da. Printzipio horiek aintzat hartuta, pertsonak beren eskubide subjektiboen egikaritza noiz eta nola burutu nahi duten erabakitzen dute –edo, are gehiago, eskubideak ez burutzea erabaki dezakete-; hortaz, prozesua subjektuen esku geratuko da, eta haiek prozesua hastea edo, behin hasita, bukatzea erabaki dezakete.

Hala ere, zuzenbide pribatuko aginduzko arauetan ezin da xedapenezko printzipioa aplikatu. Horrela, xedapenezkoak ez diren prozesu batzuk aztertu behar dira, PZLren 748. artikuluan eta hurrengoetan jasota daudenak. Aipaturiko prozesuak banan-banan aztertuko badira ere, komunean dituzten hainbat ezaugarri aipa daitezke orain:

1) Objektuaren xedaezintasuna: alderdiek ezin dute epailearen erabakia baldintzatu; ondorioz, xedapenezko egintza prozesalak baztertuko dira, besteak beste:

- PZLren 751.1. artikulua araberan, prozesu horietan uko-egiteek, amore-emateek eta transakzioek ez dute ondoriorik izango; edonola ere, prozesuko

uziek alderdiek askatasunez xeda ditzaketen gaiak ukitzen dituztenean, uko-egitea, amore-ematea eta transakzioa onartzen dira (PZLren 751.3. art.).

- Oro har, atzera-egiteak Ministerio Fiskalaren baimena eskatuko du, PKLren 751.2. artikulua aurreikusitako egoeretan izan ezik.
- Alderdiek eta Ministerio Fiskalak eskatutakoaz gain, auzitegiak ofizioz egokitzen hartzen dituen froga guztiak agin ditzake (PZLren 752.1. art.); hortaz, alderdiek ekarria egin beharrene printzipioa ez dago indarrean prozesu mota hauetan.

2) *Alderdiak*: prozesua alderdiek eskaturik hasten da, inoiz ez ofizioz. Dena dela, ñabardura batzuk aipatu behar dira:

- Legeak Ministerio Fiskalari legitimazioa eman ohi dio, batzuetan alderdi aktiboan eta beste batzuetan, pasiboan (adibidez, ezgaitasunari, seme-alabatasuna zehazteari eta ezkontza-deuseztasunari buruzko prozesuetan, PZLren 749.1. artikulua araberan).
- Legeak zehazten du legitimodunak nor diren, alderdi aktiboan zein pasiboan.
- Postulazioa beharrezkoa da, hau da, abokatuaren eta prokuradoreen parte-hartzea nahitaezkoa da prozesu mota hauetan (PZLren 750.1. art.); salbuespenez, biak batera etorri eskaturiko banantze- edo dibortzio-prozesuetan, ezkontideek defentsa eta ordezkartza bakarria izan dezakete (PZLren 750.2. art.).

3) *Froga*: prozesuaren atzean interes publikoa dagoenez, egitateak onartzeko eta frogak balioesteko arau bereziak daude (PZLren 752. art.):

- Egitateen gaineko alderdien adostasunak ez du auzitegiaren erabakia lotuko.
- Auzitegiak ezin ditu egitateak frogatutzat hartu, isiltasunean edo erantzun iheskorretan bakarrik oinarrituz.
- Lehenago aipatu den moduan, auzitegiak ofizioz egokitzen jotzen dituen frogabideak egin daitezela agin dezake.

4) *Prozedura*: Prozedura Zibilaren Legeak hainbat arau ezartzen ditu prozeduraren esparruan:

- Prozesuak ahozko epaiketa bidez egingo dira, baina demandaren erantzuna idatziz egingo da (PZLren 753. art.).
- Auzitegiak, ofizioz edo alderdiek eskaturik, egintza prozesalen publikotasuna baztertea erabaki dezake, inguruabarrak kontuan hartuz, komenigarritzat jotzen badu (PZLren 754. art.).
- Emandako ebazpenak ofizioz inskribatuko dira erregistro publikoetan (PZLren 755. art.)
- Oro har, epaiak ez dira behin-behinen betearaziko, ondarezko pronuntziamenduak alde batera utzita (PZLren 525.1.1. art.).

2.2. Pertsonen gaitasunari buruzko prozesuak

PZLren 756. artikulutik 763.era bitarteko artikuluetan araututa dauden prozesu berezi hauek arrazoi fisiko zein psikikoengatik hasten dira, pertsona batek jarduteko gaitasuna erabat mugatuta duenean, edo bere ondasunak administratzeko gai ez denean (KZren 199. eta 200. art.). Prozesu horiek ebazteko eskumenari dagokionez, pertsona bizi den lekuko lehen auzialdiko epailea eskuduna izango da ezgaitasunaren prozesuaz arduratzeko (PZLren 756. art.).

Prozesu horren bitartez lau egoera azter daitezke: ezgaitasuna bera, zarrasteltasuna, balizko gaitasuna berreskuratzea eta buru-nahasteak dituzten pertsonak barneratzea.

2.2.1. Ezgaitasuna

Kode Zibilaren 200. artikuluko ezgaitasun-zioeren bat izaten denean, uzia aurkez daiteke:

- Legitimazio aktiboari dagokionez, ustezko ezgaituak, ustezko ezgaiaren ezkontideak, egitatezko bikoteak, ondorengoek eta aurrekoek edo anai-arrebek auzia jarri ahal izango dute (PZLren 757.1. art.); hala ere, adingabe baten ezgaitasuna eskatzen denean, guraso-boterea edo tutoretza egikaritzen dutenek bakarrik aurkez dezakete (PZLren 757.4. art.). Aipatutako pertsoez gain, edonork eman diezaioke Ministerio Fiskalari (PZLren 757.3. art.), eta aurretik

aipaturiko pertsonak eskatu ezean, fiskalak ezgaitasuna eragin beharko du (PZLren 757.2. art.).

- Legitimazio pasiboa ustezko ezgaiari dagokio. Hark bere defentsa eta ordezkartzarekin ager daiteke prozesuan, eta hori egin ezean (PZLren 758 art.):
 - Ministerio Fiskalak defendatuko du, berak prozesua eragin ez duenean.
 - Fiskalak auzia aurkeztu bazuen, defendatzaile judiziala izendatuko zaio.
- Ezgaitasunaren prozesuak hainbat berezitasun ditu:
 - Auzitegiak ustezko ezgaiaren ahaiderik hurbilenak entzun eta ezgaia aztertuko du. Gainera, beharrezkoak eta egokiak diren peritu-frogak ofizioz agin ditzake, eta ez da inoiz ezgaitasunaren gainean erabakiko auzitegiak agindutako mediku-irizpenik gabe (PZLren 759.1. art.).
 - Ezgaitasuna ezartzen duen epaiak ezgaitasunaren hedapena eta mugak zehaztu behar ditu, eta baita tutoretza- edo zaintza-erregimena finkatu eta ezgaiaren balizko barneratzea ere; era berean, epaiak ezgaia ordezkatu eta zaindu behar duen pertsona edo pertsonak izendatuko ditu (PZLren 760.1. eta 2. art.).
 - Ezgaiaren babeserako babes-neurriak ofizioz zein alderdiek edo Fiskalak eskaturik har daitezke; oro har, hauek ezarri aurretik, eragindako pertsonari entzungo zaie (PZLren 762. art.).

2.2.2. Zarrasteltasuna

Pertsona batek bere ondasunak kudeatzeko gaitasuna galtzen badu, zarrasteltasunaren gaineko prozesua jar daiteke abian.

Zarrasteltasuna eskatzeko legitimazio aktiboari dagokionez, honako pertsona hauek eska dezakete: mantenua jasotzen duten edo mantenua eska dezaketen ezkontideak, ondorengoek eta aurrekoek, edo horien legezko ordezkariak; eta ordezkariak eskatu ezean, Ministerio Fiskalak eskatu behar du (PZLren 757.5. art.).

Beste alde batetik, zarrasteltasuna ezartzen duen epaiak zarrastelak laguntzailearen adostasunik gabe gauzatu ezin dituen egintzak zehaztuko ditu (PZLren 760.3. art.). Halaber, zarrastelaren kasuan, ezgaiaren babeserako aipaturiko babes-neurriak ere ezar daitezke, PZLren 762. artikulua xedatutakoari jarraiki.

2.2.3. Gaitasuna berreskuratzea

Ezgaitasunaren adierazpen judiziala oinarritu zuen zioa desagertu edo alda daitekeenez, ezgaitasun-erregimena deuseztatzeko edo aldatzeko beste prozesu bat aurreikusi behar da; eta hori da Prozedura Zibilaren Legeak egiten duena 761. artikuluan.

Gaitasuna berreskuratzekeo prozesuak honako berezitasun hauek ditu:

- PZLren 757. artikuluaen arabera, ezgaitasuna eska dezaketen pertsonak izango dute legitimazio aktiboa, eta baita Ministerio Fiskalak zein babes-kargua edo ezgaitua zainpean dutenek ere. Horrez gain, ezgaituak berak ere prozesu hau eragin dezake, baina aurreko epaiak epaiketan agertzeko gaitasuna mugatu bazuen, prozesuan bere kabuz jardun ahal izateko, aurretik epailearen berariazko baimena erdietsi beharko du (PZLren 761.2. art.).
- Lehenago aipatutako PZLren 759. artikuluko frogak ofizioz burutuko dira (PZLren 761.3, I. art.).
- Epaiak ezgaitasuna bertan behera uztea, edo ezgaitasunaren hedadura eta mugak aldatzea erabaki behar du (PZLren 761.3,II. art.).

2.2.4. Buru-nahasteak dituzten pertsonak barneratzea

Buru-nahaste larriak dituzten pertsonak, sendabide medikua jasotzeko, zaintzeko edo beren segurtasuna bermatzeko, zentro berezietan barneratu behar dira. Neurri hori PZLren 763. artikulua aurreikusten duen prozeduraren bidez hartzen da eta, bere larritasuna dela-eta erabat ulergarria denez, epailearen baimena eskatzen du.

Oro har, buru-nahastea duen pertsonaren bizilekuko auzitegiak izango du lurralde- eskumena, baina premiazko arrazoiengatik barneratuz gero, barneratze-zentroaren tokiko auzitegia izango da neurria berresteko eskuduna; kasu horretan, pertsona ezgaia ez bazen –hots, bere ezgaitasuna ezartzen zuen epairik egon ezean-, auzitegiak fiskalari ezgaitasuna eskatzea eragin behar dio (PZLren 763.1. art.).

Barneratzea baimentzeko prozedurak honako berezitasun hauek ditu:

- Ustezko ezgaia bere ordezkari eta defentsarekin ager daiteke prozesuan; horiek izendatu ezean, Ministerio Fiskala arduratuko da horretaz, eta hark barneratzea eragin bazuen, defendatzaile judiziala (PZLren 763.3,I. art.).
- Barneratzeko erabakia hartu baino lehen, auzitegiak honako hau egin behar du (PZLren 763. art.):
 - Ustezko ezgaiari entzun behar dio, eta baita Ministerio Fiskalari eta egokitzat jotzen duen edonori zein ustezko ezgaiak eskatutako pertsoneri ere.
 - Barnealdia jasango duen pertsona aztertu beharko du, eta berak izendaturiko medikuaren irizpena entzungo du.
- Medikuek auzitegiari aldizka eman beharreko informazioa ezarriko du barneratze- ebazpenak (PZLren 763.4. art.); erabaki hau apelagarria da (PZLren 763.3,II. art.).

2.3. Seme-alabatasunari, aitatasunari eta amatasunari buruzko prozesuak

PZLren 764. artikulutik 768.era bitarteko artikuluetan arautzen dira. Prozesu horiek ez dira adopzioaren bidezko seme-alabatasunaz arduratzen, naturazkoaz baizik, eta helburu dute epaileak seme-alabatasuna, aitatasuna edo amatasuna zehaztea. Horrela bada, bi motatako uzi jar daitezke prozesu hauetan:

- Seme-alabatasuna lege zehaztea (PZLren 764.1. art.): ezkontzazkoa edo ezkontzazkoa ez den seme-alabatasuna zehaztea eskatzen da uzi honen bidez.
- Legez zehaztutako seme-alabatasuna aurkatzea (PZLren 764.1. eta 2. art.), ezkontzazko edo ezkontzazkoa ez den seme-alabaten izaera ezeztatzea, aitatasunik edo amatasunik ezagatik. Kasu horretan, auzitegiek ez dute demanda onartuko aurkaturiko seme-alabatasuna epai irmo baten bidez adierazi bazen.

Legitimazioari dagokionez:

- Legitimazio aktiboa ama edo aitari dagokie, baita adingabe edo ezgaia den seme-alaben legezko ordezkariari edo Ministerio Fiskalari, eta batzuetan interes legitimoa duen edozein pertsonari, edo, demandatzailearen heriotza dela-eta, haren oinordekoei ere (PZLren 765. art.).
- Legitimazio pasiboa PZLren 766. artikulua zehazturiko pertsonari dagokie.

Demandarekin batera, haren oinarri diren egitateen froga-hastapena aurkeztu beharra dago (PZLren 767.1. art.); horrez gain, epaiketean froga mota guztiak aurkez daitezke, biologikoak barne (PZLren 767.2. art.). Halaber, zuzeneko frogarik izan ez arren, PZLren 767.3. artikulua aipaturiko aztarnak kontuan harturik adieraz daiteke seme-alabatasuna, eta PZLren 767.4. artikulua arabera, *ficta confessio* onargarria da prozesu mota hauetan.

Beste aldetik, PZLren 768. artikulua ezartzen duenez, seme-alabatasunaren prozesuak iraun bitartean, auzitegiak kautela-neurriak har ditzake, neurriok uki ditzaketen pertsonak entzun ondoren; hala ere, premiazko arrazoiak izanez gero, entzunaldia neurriak hartu ostean egiten da.

2.4. Ezkontzari buruzko prozesuak

Ezkontzari buruzko prozesuak PZLren 769. artikulutik 778.era bitarteko artikuluetan araututa daude. Haietan, honako uzi hauek aurreikusten dira: ezkontza-deusezetasuna, banantzea eta dibortzioa –auzizkoa zein adostua-, eta ebazpen kanonikoak *exequatur* bidez aintzatestea.

Eskumenaren gainean, PZLren 769. artikulua ezartzen du prozesu horiek lehen auzialdiko epaitegiei dagozkiela beti, eta lurraldeari dagokionez, honako hauek izango dira ezkontzari buruzko demandak ebatziko dituzten foroak:

- Lehenengo eta behin, eta legeak berariazko zer bait xedatu ezean, ezkontideen egoitzako tokiko epaitegia.
- Ezkontideak epai-barruti desberdinetan bizi badira, demandatzaileak –edo ezkontideek, biek batera eskatuz gero- honako foro hauen artean aukera dezakete:
 - Ezkontzako azken egoitzako epaitegian, edo
 - Demandatuaren bizilekuko epaitegian.
- Egoitza edo bizileku finkorik izan ezean, demanda aurkeztu ahal izango dute:
 - Ezkontideak dauden lekuko epaitegian, edo
 - Ezkontideen azken bizilekuko epaitegian.
- Bukatzeko, ezin bada aurreko arauekin eskumenik zehaztu, auzi-jartzailearen egoitzako epaitegian (edo adostasunezko banaketa eta dibortzioa izanez gero, ezkontideen azken egoitzako edo edozein eskatzaileraren egoitzako tokiko epaitegia).

2.4.1. Ezkontza-deuseztasuna, eta auzi-bidezko banaketa eta dibortzioa

Uzi horiek ahozko epaiketaren bidez ebatziko dira, baina PZLren 770. artikuluko berezitasunekin; gainera, hori esparru honetako gainontzeko suposatuetan subsidiarioki erabiliko da ere bai, Kode Zibilak eta Prozedura Zibilaren Legeak Prozedura zehatzik aurreikusi ez dutenean.

Legitimazio aktiboa prozesu motaren arabera aldatuko da:

- Ezkontzaren deuseztasun-prozesuan, ezkontideei, Ministerio Fiskalari eta interes zuzena eta legitimoa duen edozein pertsonari dagokio (KZren 74. art.; ikusi KZren 75. eta 76. artikuluetako salbuespenak).
- Auzi bidezko banaketa eta dibortzioaren prozesuetan, demanda ezkontideek bakarrik aurkez dezakete (KZren 81. eta 86. art.).

Beste aldetik, prozesu hauetarako aplikatu beharreko berezitasun prozesalak PZLren 770. artikuluan zerrendatuta daude:

- Orokorrez gain, demandarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira: ezkontzaren eta seme-alaben jaiotzaren inskripzioari buruzko ziurtagiriak; ezkontideak bere eskubidea oinarritzeko dituen agiriak; ondareneurriak eskatuz gero, ezkontideen eta seme-alaben egoera ekonomikoa balioesteko balio duten agiriak.
- Errekonbentzioa, demandari erantzutean egin beharrekoa, honako kasu hauetan onartuko da: ezkontza-deuseztasuna, banantzea eta dibortzioa eragin dezaketen arrazoiren batean oinarritzen denean; edo mandatutako ezkontideak demandan eskatu ez diren eta auzitegiak ofizioz erabaki behar ez dituen behin betiko neurriak eskatzen dituenen.
- Alderdiek agertu beharko dute ikustaldian, beren abokatu eta prokuradorearekin; ez agertzeak agertu den alderdiak alegaturiko egitateak onartzea ekar dezake (*ficta confessio* izenekoa), baina behin betiko ondareneurriari dagokienez, besterik ez.
- Ikustaldian burutu ezin diren frogak auzitegiak zehaztutako epean gauzatu ahal izango dira; horrez gain, auzitegiak ofizioz froga agin dezake, eta seme-alaba adingabeak eta ezgaituak entzun behar ditu.
- Alderdiek adostuz gero, prozesuaren edozein unetan adostasunezko banantzearen edo dibortzioaren prozesura aldatzea eska dezakete.

2.4.2. Adostasunezko banantzea eta dibortzioa

Ezkontideak bat etorriz gero, hau da, elkarren adostasunarekin jarritako banantze- edo dibortzio-eskaerak PZLren 777. artikulua aurreikusitako prozeduraren bitartez ebatziko dira. Azpimarratu behar da prozedura honetako uzia ez dela eztabaidagarria, baina baliteke prozesuan zehar eztabaidagarri bihurtzea; egoera horretan, gorago azaldutako prozedurara pasatu beharko litzateke, hots, auzizko banantze- eta dibortzio-prozedurara.

Ezkontideek -edo batak bestearen adostasunarekin- aurkeztu behar dute eskaera; horrekin batera, PZLren 777.2. artikulua zerrendatutako agiriak ere aurkeztu beharko dira, hau da:

- Ezkontza-inskripzioaren ziurtagiria.
- Seme-alaben jaiotzaren ondoren, Erregistro Zibilean egindako balizko inskripzioa.
- Legeria zibilaren arabeko hitzarmen arau-emailearen proposamena.
- Ezkontideek beren eskubideak oinarritzeko agiriak.

Aurrekoaren ostean, ezkontideei zitazioa egingo zaie, eskaera banan-banan berrets dezaten. Ezkontideren batek eskaera eta hitzarmen arau-emailearen edukia berrestu ezean, jardunak artxibatuko dira, eta ezkontideek auzizko banantzea edo dibortzioa eragin ahal izango dute (PZLren 777.3. art.).

Seme-alaba adingabe eta ezgaituei dagokienez, auzitegiak hitzarmenak haien gainean ezarritakoari buruzko txostena eskatuko dio Ministerio Fiskalari, eta haiek entzungo ditu, baldin eta behar besteko adimena badute, eta hamabi urtetik gorakoak izanez gero betiere. Jardun hori ezkontideek proposaturiko froga burutzeko epean egingo da (PZLren 777.5. art.).

Froga burutu ondoren, –edo ezkontideek berrespena egin ostean, aurrekoa beharrezkoa ez balitz-, auzitegiak epaia emango du; horretan (PZLren 777.6. art.):

- Banantze edo dibortzioa onartu edo ukatuko du, eta
- Hitzarmen arau-emaileari buruz erabakiko du.

Hitzarmena onartu ezean, alderdiek hamar eguneko epean hitzarmen berri bat proposatu beharko dute (hitzarmen berri horrek auzitegiak onartu ez dituen aldeak baino ez ditu jaso behar); epea iraun ostean, auzitegiak bidezkoa dena erabakiko du (PZLren 777.7. art.). Etorkizunari begira, hitzarmenaren edukiari dagokionez, auzitegiak agindutako neurriak prozedura honen bidez aldaraziko dira (PZLren 777.9. art.).

Banantze edo dibortzioa ukatzen duen epaiaren aurka, edo ezkontideek hitzarmenean proposatu ez zuten neurriren bat onartzen duen autoaren aurka apelazio-errekurtsoa jar dezakete ezkontideek. Beste aldetik, hitzarmenaren proposamena osorik onartzen duen

epai edo autoaren aurka Ministerio Fiskalak bakarrik aurkez dezake errekurtsua, seme-alaba adingabe eta ezgaituen interesak babesteko (PZLren 777.8. art.).

2.4.3. Behin-behineko neurriak

Ezkontzari buruzko prozesuetan kautelazko neurriak garrantzi handikoak dira, denbora-tarte horretan –azken epaia eman arte- ezkontideen eta seme-alaben egoera ekonomiko eta pertsonalak arautu behar baitira. Horiei behin-behineko neurriak deritze, eta KZren 103. artikuluetan jasotzen dira.

Neurri horiek eskatzeko, prokuradoreak eta abokatuak ez dute parterik hartu behar; bai, ordea, ondorengo idazki eta jardun guztietan (PZLren 771.1. art.).

Neurriak eskatzen diren unearen arabera, erabili beharreko prozedura aldatu egingo da:

- Aurreko neurriak badira (deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-demanda aurkeztu aurretik eskaturikoak), PZLren 771. artikuluko prozedura erabiliko da: alderdien agerraldia –eta fiskalarena, seme-alaba adingabeak edo ezgaituak izanez gero-, eta alderdien artean adostasunik egon ezean, froga burutzea eta auzitegiaren autoa, errekurtsua aurkeztu ezin zaiona; neurriok hurrengo 30 egunetan iraungo dute indarrean, epe jakin horretan ezkontideek ezkontzari buruzko prozesua eragin beharko baitute.
- Demanda onartzen denean, demandaren aurreko neurriak berretsi edo aldatzeko PZLren 772. artikuluko prozedura da egokia: agerraldia egongo da hartutako neurriak osatu edo aldatzea bidezkoa denean besterik ez.
- Neurriak demandan eskatzen direnean –edo demandaren erantzutean, demandatuaren kasuan-, PZLren 773. artikulukoa da erabili beharrekoa
Prozedura: agerraldiaren ostean auzitegiak autoaren bidez erabakiko du.

2.4.4. Behin betiko neurriak

Ezkontza-deuseztasuna, banaketa edo dibortzioaren epai irmoa eman ostean, KZren 90. artikuluan aurreikusitako ezkontideen arteko eta seme-alabenganako harreman pertsonal eta ondarezkoei buruzko behin betiko neurriak ezarriko dira.

Epaietaren ikustaldian, ezkontideen arteko neurriei buruzko hitzarmenik badago, epaileak horren gainean erabakiko du (PZLren 774.3. art.). Hitzarmenik izan ezean, ostera, epaileak behin-behineko neurriak berrestea ala beste neurri berri batzuk ezartzea erabaki dezake, haien gaineko froga burutu ostean (PZLren 774.4. art.); gainera, epaiaren aurka aurkeztutako errekursoek ez dute hark ezarritako neurrien eragingarritasuna etengo (PZLren 774.5. art.).

Epai irmoa eman ostean, behin betiko neurriari buruz erabakitzeko inguruabarrak aldatzen badira (KZren 100. art.), horiek aldatzea eska daiteke PZLren 775. artikulua ezarritako prozedurari jarraiki. Horren bitartez, aurreko auzi batean emandako behin betiko neurriak aldatzea eska daiteke ere bai.

Behin betiko neurrien nahitaezko betearaztea PZLren 776. artikuluan arautzen da; azpimarratu behar da diru-kopuruak ordaintzeko betebeharra behin eta berriro hausten duen ezkontideari edo gurasoari isun hertsagarriak ezar dakizkiokeela, hortik sor daitekeen zigor-erantzukizuna alde batera utzita.

2.5. Familiarteko harremanak

KZren 160. artikulua ezartzen du ziorik gabe ezin direla biloba eta aitona-amonen arteko harremanak eragotzi. Horrekin lotuta, PZLren 250.1.,12. artikulua xedatzen du KZren artikulua horretan aitortutako eskubideak bermatzeko jar daitezkeen demandak ahozko epaietaren bidez ebatziko direla; hala ere, kasu horietan ahozko epaiaketa PZLren IV. Liburuko I. Tituluaren I. Kapituluaren (749-755. art.) xedatutako berezitasunen arabera egingo da.

2.6. Eliza-ebazpenen eragingarritasuna

Espainiak eta Aulki Santuak sinatutako akordioak direla eta, batez ere, 1979ko Gai Juridikoei buruzko Hitzarmenari esker, ezkontzari buruz eliza-auzitegiek hartutako erabaki zehatz batzuek -ezkontza-deuseztasunari buruzko ebazpenek eta ezkontza rato eta burutugabeei buruzko erabaki pontifizioak, hain zuzen ere-, eraginkortasuna dute barne-zuzenbidean, hau da, gauza epaituaren ondorioak lortzen dituzte, epaile zibil batek emango balitu bezala.

Hala ere, ondorio zibilak sortzeko, KZren 80. artikulua jasotako homologazio prozedura -*exequatur* deiturikoa- eragin behar da auzitegi zibiletan. Artikulu horrek azpimarratzen du eliza-auzitegiek emandako ebazpenak eragingarriak izan daitezen 1881ko PZLren 954. artikuluko baldintzak bete behar dituztela.

Baldintza horiek betetzen badira, 2000ko PZLren 778. artikulua aurreikusitako prozedura jarri behar da abian; honako hau xedatzen du: ezkontza-deuseztasunari buruz eliza-auzitegiek emandako ebazpenen, edo ezkontza rato eta burutugabeari buruzko erabaki pontifizioen eragingarritasun zibila eskatzeko demanda bi bide erabiliz ebatz daitekeela, hartan eskatzen denaren arabera:

- Demandan neurriak hartzea edo aldatzea eskatu ezean, beste ezkontidea eta Ministerio Fiskala entzun ostean, epaitegiak bidezkoa dena erabakiko du auto bidez.
- Demandan neurriak hartzea edo aldatzea eskatuz gero, erabaki kanonikoak eragingarritasun zibila izateko, eskaera neurrien eskaerarekin batera ebatziko da, dagoeneko ikusi den PZLren 775. artikuluko prozedurari jarraiki.

2.7. Adingabeen mantenuari, zaintzari eta jagoteari buruzko prozesuak

Auzi hauei dagokienez, alde zuzenetik esan behar da askotan deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-uziekin lotuta aurkezten direla eta, hortaz, ebatzen diren prozesuetan arduratzen dira haietaz; hala ere, litekeena da horiek bakarrik aurkeztea. Honela, bada, ahozko epaiketa bidez izapidetuko dira (PZLren 753. art.).

Seme-alaba adingabeen zaintzari eta jagoteari buruzko prozesu hauetan, edo seme-alaba adingabeen izenean guraso batek besteari mantenua erreklamatzekoetan, gurasoen azken egoitza-erkideko lehen auzialdiko epaitegia izango da eskuduna. Gurasoak epai-barruti desberdinetan bizi badira, demandatzaileak demandatuaren egoitzako edo adingabearen bizilekuko auzitegien artean aukeratu ahal izango du demanda jartzeko (PZLren 769.3. art.). Auzitegiak eskumena ofizioz aztertuko du (PZLren 769.4. art.).

Horrez gain, prozesu hauetan kautelazko neurriak hartu ahal izateko, deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-prozesuetan neurri horiek ezartzeko egiten den izapidetzari jarraitu behar zaio (PZLren 770.6. art.).

2.8. Adingabeen babespenaren eta adopzioen alderdi zehatz batzuei buruzko prozesuak

Adopzioaren bidezko filiazioari dagokionez, xedapenezkoak ez diren bi prozesu mota daude:

- Adingabeen babespenaren gaineko administrazio-ebazpenen aurkako prozesua (PZLren 748.6. art.). PZLren 780. artikulua araberan, oinarrizko egintza prozesalak honako hauek dira: ez da aurretiazko administrazio-erreklamaziorik egin behar; legitimadunari aurka egiteko idazkia, bere uzia eta aurka egindako ebazpenak behar dira; epaileak espedientea erreklamatu behar du; auzi-jartzaileak demanda aurkeztu behar du. Horren ostean, ahozko epaiketaren izapidetzari jarraituko zaio.
- Adopzioari baiezkota eman beharri buruzko prozesua (PZLren 748.7. art.). PZLren 781. artikulua prozedura hau xedatzen du: gurasoen agerpena, adopzioarako beren baiezkota behar dela adierazteko; epaileak espedientea eten eta demanda jartzeko epea adieraziko du, eta hortik aurrera ahozko epaiketaren izapidetzari jarraituko zaio.

Bi prozesuetan babes-erakundearen egoitzako lehen auzialdiko epailea izango da eskuduna eta, haren ezean, edo KZren 179. eta 180. artikuluetako egoeretan, adopzio-hartzailearen egoitzakoa (PZLren 779. art.).

2.9. Oinarrizko eskubideen babesari dagozkien berezitasunak prozesu zibilaren esparruan

PZLren 249.1., 2. artikulua arabera, oinarrizko eskubideen babes judizial zibila eskatzen duten demandak epaiketa arrunt bidez erabakiko dira (artikuluak ohorerako, biritza pribaturako, norberaren irudirako eta zuzenketa-eskubideari buruzko demandak ere aipatzen ditu, baina haiek beren prozedura bereziak dituzte, eta banandurik azaltzen dira).

Espainiako Konstituzioaren 53.2. artikulua ondo etarako, prozedura hau babes-errekurtsoa jartzeko aurreko prozedura da; Konstituzioaren arabera, prozedura hau lehentasunezkoa izango da.

Epaille eskuduna demandatzailearen egoitzakoa izango da eta, horrek egoitza Estatuko lurraldean izan ezean, oinarrizko eskubidearen urratzea gertatu den tokiko auzitegiak izango du eskumena.

Beste alde batetik, PZLren 249.1., 2. artikulua Ministerio Fiskalaren parte-hartzea agintzen du; legaltasunaren babesle gisa agertuko da prozesuan.

Halaber, prozesuaren berezitasun prozesal bi aipa daitezke:

- Ezin izango da behin-behinean betearazi, prozesuaren objektu nagusiarekin lotutako ondarezko erabakiak salbu (PZLren 525.1.,1. art.).
- Prozesu horiei kasazio bidez errekurtsio aurkezteko aukera dago, oinarrizko eskubideen babes judizial zibilerako ematen baitira (PZLren 477.2.,1. art.).

3. KAPITULUA: ONDAREEN BANAKETA JUDIZIALA

3.1. Ondarearen banaketa judizialerako prozedurak. Gai orokorrak. 3.2. Jaraunspen-ondarearen banaketa judizialaren prozedura. 3.2.1. Sarrera. 3.2.2. Alderdien legitimazioa: abintestato jaraunspen deklarazioa. 3.2.2.1. Nabaritasun-aktaren bidezko jaraunspen deklarazioa. 3.2.2.2. Jaraunspen deklarazio-espeditente judiziala. 3.2.3. Jaraunspen-ondarearen balioespina eta banaketa. 3.2.3.1. Sarrera. 3.2.3.2. Prozeduraren hasiera: eskaera egiteko legitimazioa eta betekizunak. 3.2.3.3. Prozeduraren garapena: ondasunen balioespina eta banaketa. 3.2.3.4. Prozeduraren amaiera: ondasunen jabetza-tituluak jaraunspen ematea. 3.2.4. Jaraunspen-ondarearen interbentzioa eta administrazioa. 3.2.4.1. Jaraunspenaren ondasunen eta dokumentuen segurtasun-neurriak. 3.2.4.2. Jaraunspen-ondarearen administrazioa. 3.3. Ezkontzaren ondasun-erregimena likidatzea. 3.3.1. Oinarriak. 3.3.2. Eskumena. 3.3.3. Objektua. 3.3.3.1. Inbentarioa eratzeko prozedura. 3.3.3.2. Ezkontza-erkidegoaren ondasunak likidatzeko eta banatzeko prozedura.

3.1. Ondareen banaketa judizialerako prozedurak. Gai orokorrak

2000ko PZLren 4. Liburuko 2. Tituluak “Prozedura bereziak” aurreikusten ditu. Horren barruan, eta “Ondareen banaketa judiziala”ren izenpean, bi prozedura judizial biltzen ditu: batetik, jaraunspenaren banaketa eta bestetik, ezkontza-erregimen ekonomikoaren likidazioa. Bi prozedura horien xedea bera da: ondasunak bereganatzeko eskubidea dutenen baina banatzeko ados jartzen ez direnen artean ondarea likidatzea eta banatzea. Jaraunspenaren banaketaren kasuan, ondarea judizialki banatu behar da, jaraunspen edo zati alikuotaren legatu-hartzaile batzuk izanik, haien arteko adostasunik ez dagoelako; eta ezkontza-erregimen ekonomikoaren likidazioan, ordea, ezkontza deuseztatzen denean, ondare komuna judizialki banatu beharko da ezkontzideak ados ez egoteagatik.

Biak izaera unibertsala duten prozedurak dira, pertsona baten edo biren ondarea ukitzen dutelako.

3.2. Jaraunspen-ondarearen banaketa judizialaren prozedura

3.2.1. Sarrera

Jaraunspen baten ondasunetarako eskubidea duten testamentu bidezko edo deklaraturako jaraunspen artean adostasunik ez dagoenean, jaraunspen-ondarea judizialki banatzera zuzendutako jarduketa multzoa da jaraunspen-ondarearen banaketa judiziala.

Baina prozedura hori hasteko, aurretiko eta oinarrizko baldintza bat dago, legitimazioarekin zerikusia daukana: jaraunspenaren banaketa judizialaren eskaera egiteko eskatzaileak kausatzailearen jaraunspen delat egiaztatu beharko du. Hemen bi egoera sortzen dira: alde batetik, jaraunspen-izaera testamentu bidez bereganatu bazuen, horretan bertan oinarritzen da bere legitimazioa; beste aldetik, testamenturik ezean, edo izanda ere, horren xedapenak baliogabe deklaraturako balira, bere burua jaraunspen delat daukanak deklarazioa era formalean lortu beharko du. Azken kasurako, legeak borondatezko jurisdikzioaren barruan dauden hainbat jardura aurreikusten ditu, ustezko jaraunspen horrelako deklarazioa eskatu ahal izateko. Hau da, banatu beharreko ondasunak eta jaraunspen zehazten dituen testamenturik ez dagoenean, alde aurreko deklarazioa beharrezkoa izango da. Dena dela, jaraunspen deklarazioa beharrezkoa izateak ez du esan nahi deklarazioa eginda jaraunspen ondarearen banaketa judiziala derrigorrez eskatuko dutela; izan ere jaraunspen deklarazioa egin ondoren, posible litzateke ondasunen banaketarako adostasuna egotea. Beraz, bi gauza desberdin behar dira: jaraunspen-deklarazioa (ondarearen banaketa eskatzeko legitimazioa ematen duena), eta ondarearen banaketa judiziala (jaraunspenaren ondasunak banatzea helburu duena). Argi geratu behar du ondarearen banaketa judizialaren prozedura jaraunspen artean ondasunak banatzeko adostasunik ez dagoenean bakarrik izango dela beharrezkoa.

Kontu horri dagokionez, 2000ko PZLren 1.2. Xedapen Indargabetzaileak 1881eko PZLren abintestato jaraunspen deklarazioari buruzko arauketa indarrean gordetzen du (Bigarren Liburuko IX. Tituluko Bigarren Atala: “Abintestato jaraunspen deklarazioa”), Borondatezko Jurisdikzioa arautzen duen lege berria onartu arte.

3.2.2. Alderdien legitimazioa: abintestato jaraunspen deklarazioa

1881eko PZLren 977. artikulutik eta 1000.era bitarteko artikuluek jaraunspen judizialki edo notario bidez deklaratzeko prozedura arautzen dute. Baina, zein kasutan izango da beharrezkoa prozedura hori? Pertsona bat testamentua egin gabe hil denean;

testamentua egonda ere, bere xedapenak deusezak direnean; edo testamentuaren xedapenak jaraunsle generiko batzuen alde egin direnean. Era berean, beste kasu batzuk ere sartu beharko litezke, adibidez, testamentuan berehala identifikatzeko datu nahikoak eman gabe, pertsonak edo ahaideak jaraunsle deklaritzen direnean. Zentzu horretan esan behar da KZren 749. artikulutik 751.era bitarteko artikulua indarrean daudela.

Baina, nork bultza dezake prozedura hori?, nor da legitimatua prozedura hasteko? Erantzuna erraza da: beren burua hildakoaren jaraunsletzat hartzen dutenak. Hala ere, ofizioz ere has daiteke, testamenturik eta jaraunslerik eza egiaztatu ondoren. Azken kasuan, prozeduran zehar egoera mantenduz gero, Estatu edo Autonomia Erkidegoen aldeko ondorengotzaren ildotik jo beharko litzateke; jaraunslerik ezaren aurrean, Estatu edo Autonomia Erkidegoa izango dira oinordeko.

Lehenik eta behin, prozedura honen egitura desberdina da eskatzailea nor den: alde batetik, ondorengoak, aurrekoak edo bizirik jarraitzen duen ezkontidea direnean, eta bestetik, deklarazioa beste pertsona batzuen edo Estatuaren aldekoa denean. Lehen kasuan, egin beharreko bidea espediente judiziala da, nabaritasun-akten bidez (1881eko PZLren 979. art.); bigarrenean, ostera, espediente judiziala da egokia (1881eko PZLren 980., 990. eta 1000. art.; eta KZren 913., 956. eta 958. art.).

Beraz, ikus daitekeenez, kasu batean eta bestean, prozeduraren eskumena desberdina da, eta organo jurisdikzionalen eta notarioen artean banatuta dago. Lehen auzialdiko epaitegiak eskudunak izango dira eskatzaileak hildakoaren zehar-ahaideak direnean edo haien faltan, oinordetza Estatuaren edo Autonomia Erkidegoen alde egin behar litzatekeenean (1881eko PZLren 980. art.). Notarioek abintestato jaraunseen deklarazioaz soilik arduratzen dira, horiek ondorengoak, aurrekoak edo hildakoaren ezkontidea izanez gero (1881eko PZLren 979. art.).

Lurralde-eskumenari dagokionez, hildakoak Espainiako Estatuan izan zuen azken bizilekuaren arabera zehazten da. Baina azken bizilekua atzerrian izan bazuen, eta auzia Espainiako Estatuan egiten bada, bi foru edo aukera aurreikusten dira: lehengoa, Espainiako Estatuan izandako azken egoitzako edo bere ondasunen zati handiena zegoen tokiko epaitegia (PZLren 52.1.4. art.), demandatzailearen aukeran. Notarioen eskumenaren aldetik, kausatzaileak Espainiako Estatuan zuen azken egoitzaren foruak

gailentzen du. Hori egon ezean, bi egoera aurreikusten dira: batetik, estatuaren barruan hiltzen bada, heriotzaren tokia kontuan hartuko da, notario eskuduna zehazteko orduan; eta bestetik, atzerrian hil bazen, “ondasunen edo banku-kontuen zati handienaren” kokapena hartuko da kontuan notarioaren eskumena zehazteko (1881eko PZLren 979. art., eta NE 209. bis 1.a). Dena dela, notarioaren hautaketa askea denez eta batzuetan barruti berean notario batzuk egon daitezkeenez, argi utzi behar da edozein notarioaren aurrean egindako eskaerak (betiere eskuduna bada) gaiaz arduratzeko eskusibotasuna ematen diola.

Bukatzeko gehitu behar da esandakoa aplikagarria dela prozedura espainiarrek hasten dutenean, baita atzerritar elementuren bat egonda ere, Espainiako Estatuko auzitegiek eskumena dutenean (Nazioarteko Hitzarmenak nahiz Itunak, edo horiek egon ezean, BJLOren 22. artikulua kontuan hartuta).

3.2.2.1. Nabaritasun-aktaren bidezko jaraunsleen deklarazioa

Lehen esan denez, nabaritasun-aktaren bidezko jaraunsleen deklarazioa egokia izango da eskaera egiten dutenak ondorengoak, aurrekoak edo ezkontidea direnean. Argitu behar da inor ezkontidetzat hartuko dela ezkontza-lotura bidezkoa dela egiaztatuta badago; horrek esan nahi du egitatezko harreman hutsak baztertuta daudela.

Gogoratu behar da gai honetan 1881ko PZL dagoela indarrean, borondatezko jurisdikzioari buruzko lege bat onartzen den arte.

Prozedura erraza eta sinplea da. Zentzu honetan, notarioak jarduteko tarte handia izango du bai zirkunstantzia faktikoak zehazteko, bai eskatutakoa onartzeko edo ezezteko. Notarioak eskatutakoa ezeztu ezean, eskatzaileak bide judicialera jo dezake egokia den deklarazio-prozeduraren bitartez (NEren 209., 09. bis eta 210. art.).

Eskaera ahoz nahiz idatziz egin daiteke, eta ez dira beharrezkoak ez abokatua ez prokuradorea. Eskaeran, alde batetik, hiltzeari eta ahaidetasun-harremanari buruzko informazioa eta notarioaren lurraldeko eskumena zehazteko inguruabarrak adieraziko dira; eta beste aldetik, eskatzailearen jaraunsle-izaeraren berriazko deklarazioaren eskaera erantsi behar da. Hori guztia dokumentu bidez egiaztatu behar da (heriotzaren

ziurtagiria edo heriotza deklaratzeko duen erabaki judizial irmoa, KZren 193. eta hurrengo artikuluen inguruabarrak betetzeagatik egokia den espedienteari jarraitu zaionean; Azken Borondatearen Egintzen Erregistroaren ziurtagiria; ezkontzaren edo ahaidetasun-harremanaren ziurtagiria; kasua bada, testamentuaren baliogabetasuna egiaztatzen duen edozein dokumentu;...). Era berean, lekuko bidezko informazioa eskatzen da (bi lekuko gutxienez), eta eskaera egiten denean proposatuko da edo notarioak berak eskatuko du (NE 209. bis 4. eta 5 a) art.). Hala ere, notarioaren iritziz emandako dokumentazioa edo informazioa egokia edo nahikoa ez bada, informazio nahiz dokumentazio osagarria eskatu ahal izango du.

Egindako jarduera guztiak agerian utziko dira aktan, baita hirugarrenen eskubideak ukitzeagatik hauek prozeduran agertzeko jardueren publizitatea eta etendura ekar lezaketen intzidentziak ere.

Deklarazioa eskatzaileek eskatu zuten moduan egingo da, haiek jaraunse bakarrak izanez gero, (1881eko PZLren 979. art.) eta deklarazioa oinarritzen duten egitateak nabariak, ukaezinak eta automatikoki deklaragarriak badira. Deklarazioan, bakoitzaren nortasuna eta bakoitzari jaraunspenean dagozkion legezko eskubideak adieraziko dira (NE 209. bis 6. art.). Horrela izango ez balitz, deklarazioa ukatu egin behar da eta bide judiziala zabalik utzi, eskaera berriz egiteko.

Behin akta sinatu ondoren, eta kasua bada, jaraunseleen deklarazioa eginda, notarioaren protokoloan sartuko da. Hortik aurrera, akta jaraunspen-titulua izango da eragin guztietarako.

3.2.2.2. Jaraunsele-deklarazioaren espediente judiziala

Jaraunsele hartzen direnak aurreko kasuko ahaidetasun-harremanik ez badute, jaraunsele-deklarazioaren espediente judiziala izango da prozedura egokia (ikus. 1881eko PZLren 980. art.: “gainerako jaraunseleak”).

Gogoratu behar da berriz ere, jaraunsele-deklarazioaren espediente judizialari dagokionez, 1881eko PZL indarrean dagoela.

Kasu horretan, eskaera idatziz bakarrik egingo da, eta horrekin batera heriotza-ziurtagiria, edo kasua bada, heriotza deklaratzeko duen ebazpen irmoa (KZren 193. eta hurrengo artikuluen inguruabarrak emanda), Azken Borondatearen Egintzen Erregistro Orokorraren ezezko ziurtagiria eta hildakoarekin ahaidetasun-lotura ziurtatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira. Eta amaitzeko, eta kasua bada, testamentuaren xedapenen balioabetasuna frogatzen duten agiriak ere erantsi beharko dira eskaeran.

Era berean, eskaerari lekuko-zerrenda bat eta dagokion galdeketa erantsiko zaizkio. Horren xedea lekuko-informazioa ematea da (abintestato jaraunsele deklazioaren prozeduran bezala), baliozko testamenturik eza eta eskatzaileak jaraunsele bakarrak direla egiaz dezaten. Ez dirudi Erregistroaren ziurtagiria beharrezkoa denik, ezta lekuko-informazioa ere, heriotza testamentua egiteko legezko adina lortu baino lehen gertatu bazen (14 urte, eta 18 urte testamentua holografoa izanez gero. KZren 663. eta 688. art.).

1881eko PZLren 980. artikulua arabera, jaraunspen-ondarearen balioa 2404 eurotik gorakoak izanez gero, eskaerak abokatu batek sinatuta egon beharko luke. Hala eta guztiz ere, egile batzuen ustez, arau hori bateraezina da 2000ko PZLren 23. eta 31. artikuluek postulazioari buruz xedatzen dutenarekin. Horregatik, aipatutako araua lege horren 3. Xedapen Indargabetzaileak indargabetzen duela joko beharko litzateke. Beraz, bai abokatua, bai prokuradorea nahitaezkoak izango dira prozeduran.

Eskaera egin ondoren, Fiskalak horri buruzko irizpena emango du. Baina haren iritziz, aurkeztutako informazioa osagabea bada, aldeztutako aukera emango die interesdunei (1881eko PZLren 981. art.).

Jarraian, epaileak autoa emango du eta eskatutako deklarazioa eginarazi edo ukatuko du, eskatzaile guztiei edo batzuei dagokienez. Autoa apelagarria izango da bi efektutan (1881eko PZLren 981. art.). Erabakia eman ondoren, ondasunak interbentzio judizialpean egonez gero, hura efekturik gabe utziko da, eta deklaratutako jaraunsele emango zaizkie. Hala eta guztiz ere, posible litzateke ondasunen gainean babes-neurriak mantentzea, horrela eskatzen bada, 2000ko PZLren 790. artikulua kontuan hartuta, epailea babes-neurriak ofizioz hartuz bultzatzen duen egoeraren bat egonez gero. Baina ebazpena ezezkoa izango balitz, eskatzaileek bide judiziala zabalik izango dute;

hau da, eskatzaileek beren uzia berriz baliarazi ahal izango dute deklarazio-prozedura batean (muntaren arabera arrunta edo hitzezkoa izango dena), 2000ko PZLren arau orokorrak aplikatuz, noski.

Beste alde batetik, fiskalak edo epaileak, eskatzaileez gain, beste ahaide batzuk daudela jakiteko arrazoiak balituzte, espedientean parte hartzeko aukera emango die. Horretarako, espedientea geldiarazi egingo da eta publizitate nahikoa emango zaio ediktu bidez (1881eko PZLren 984. art.). Hortik aurrera, prozedura desberdina izango da, eskatzaile berriak agertu ala ez, edo agertuta ere, beren ustezko eskubideak onartzen ez badira. Aipatutako kasuak aztertuko dira orain. Lehenengo kasuari dagokionez, hau da, eskatzaile berriak agertzen badira, lekuko-informazioa bilduko da; ondoren, fiskalak egindako eskaera berriei buruzko irizpena emango du eta amaitzeko erabakiko da. Bigarren eta hirugarren kasuetan, hau da, eskaera berririk ez balego, edo aurkeztutako eskabiderik onartuko ez balitz, ediktu bidezko beste dei bat egingo da; Estatuko Abokatuak zitatuko da, eta inor agertu ezean, jaraunspena jabegabekotzat hartuko dela ohartaraziko da (1881eko PZLren 998. art.). Egoera horietan, epaileak jabegabeko deklaratu du jaraunspena ofizioz, eta Estatuaren esku utziko da. Horrek esan nahi du jaraunspenaren ondarea eta dokumentu guztiak altxor publikoaren parte izango direla. Dena dela, kontuan hartu behar da Autonomia Erkidego bakoitzean gaiari buruzko berariazko xedapenak egon daitezkeela.

3.2.3. Jaraunspen-ondarearen balioespena eta banaketa

3.2.3.1. Sarrera

Jaraunspenaren banaketaren barruan, jaraunspen-ondarea banatzea xede duten hainbat jarduera barnebiltzen dira, jasotzeko eskubidea (testamentu bidez edo deklarazio bidez) dutenen artean adostasunik ez dagoenean: funtsean, jaraunspen-ondarearen ondasunak balioesteko lanak, banatzeko eragiketak, ondasunen adjudikazioa eta jaraunse bakoitzari ematea. Baina aipatutako jardueri berme-neurri edo kautelazko batzuk ere gehitu behar zaizkie, jaraunspen-ondare bera bermatzeko, haren interbentzio edo administrazioaren bitartez (kapitulu honen azken epigrafean aztertuko dira), legezko xedapenagatik hildakoaren oinordekoak izan behar duten pertsonak aurkitzen diren bitartean, deklarazioaren tramitazioan edo banaketan zehar sortutako gatazkak

konpondu arte. Neurri horiek ez dute derrigorrez banaketa-prozedurarekin lotuta joan behar, baizik eta kausatzailearen hilketaren momentutik bertatik har daitezke eta ondorengo banaketa-lanak alde batera utzirik.

Kontuan hartu behar da jaraunspena banatzeko prozedura ez dela beharrezkoa, banatzeko eragiketak judizioz kanpo burutu ahal direlako KZren 1058. artikulua arabera. Beraz, jaraunse eta parte alikuotaren legatu-hartzaileen arteko adostasunak banaketa-prozedura hastea galarazten du, edo bere kasuan, hasita egonez gero, amaiarazten du, epaiketaren edozein momentutan adostasuna lortzen bada (PZLren 789. art.).

3.2.3.2. Prozeduraren hasiera: eskaera egiteko legitimazioa eta betekizunak

Prozedura abokatuak eta prokuradoreak sinatutako (PZLren 23. eta 31. artikulua aplikatuta, lehen adierazi dugunez) eskaeraren bitartez hasten da; horrekin batera, eskatzaileak kausatzailearen heriotzaren ziurtagiria eta jaraunse-izaera duela egiaztatzen dituen dokumentua aurkeztu beharko ditu, zein den kasua, testamentua edo abintestato jaraunselearen deklarazioa (PZLren 782.2. art.). Eskaera zuzentzen zaion organoak, eskatzailearen, jaraunselearen nahiz legatu-hartzaileen eta bizi den ezkontidearen nortasuna zehaztu beharko ditu, eta eskaera, hau da, jaraunspenaren banaketa eta, bere kasuan, interbentzioa eta inbentarioa egin beharko ditu. Hori ikusita, esan daiteke, batzuetan, eskaerak izaera bikoitza izango duela: alde batetik, ondarea banatzeko eskatzen da; eta beste aldetik, beharrezkoa balitz, ondarearen interbentzioa eta ondasunen nahiz eskubideen inbentarioa egitea (kasu horretan, eskaerak kautelazko izaera du).

Beraz, edozein jaraunselearen edo legatu-hartzailearen jaraunspenaren banaketa eskatzea izango du, baldin eta testamentugileak, jaraunselearen arteko akordioak edo ebazpen judizialak izendatutako komisario edo kontatzaile-partitzaile baten bidez egin behar ez bada (PZLren 782. art.). Eskaera hori gainerako jaraunsele edo legatu-hartzaileen aurka aurkezten da (banatzeko gatazka dutenekin), eta kasua bada, bizirik dagoen ezkontidearen aurka (KZren 834. eta 943. artikuluek jaraunspenaren gainean honi aintzatesten dizkion eskubideak kontuan harturik). Hala ere, ezin da ahaztu, batzuetan, eskaera guztien akordioarengatik egiteko aukera dagoela.

Prozedura hasita, jaraunsle eta legatu-hartzaileen hartzekodunak ere legitimatuta egongo dira jardueretan parte hartzeko, balorazioa kontrolatzeko eta ondasunen banatzeko ondorioetarako bakarrik. Horrela, beraien kontrako maulak eta beraien kreditu-eskubideen kontrako erabakiak saihesten dira (PZLren 782.5. art.).

KZren arabera, jaraunspenaren banaketa eskatzeko akzioak ez du preskribitzen (KZren 655. art.), eta era berean, bere jarraipenak ere ez. Hemen xedapen-printzipioa aplikatzen da; ondorioz, eta lehen adierazi denez, prozeduran zehar, interesdunek egokitzat jotzen duten jaraunspenaren banaketaz akordioak lor ditzakete. Kasu horretan, eta prozeduran zehar honela eskatzen badute, epaileak epaiketa largetsiko du eta ondasunak jaraunspenaren eskura utziko ditu (PZLren 789. art.).

Bukatzeko, gehitu behar dugu, prozedura honek indar erakartzailea duela jaraunspen-ondarearen aurka has daitezkeen prozedura guztietarako. Horregatik, ondoren hasitako prozedura guztiak metatuko zaizkio.

3.2.3.3. Prozeduraren garapena: ondasunen balioespena eta banaketa

Jaraunspen-ondarea osatzen duten ondasunen balioespena, eta baita banaketa nahiz zatiketa-eragiketak ere, perituen eta kontatzaile-partitzaileen esku uzten dira, hurrenez hurren.

Horretarako, ondasunen eta eskubideen inbentarioa eginda, honela eskatu bazen, edo eskatu ezean, prozedura honela garatuko da. Interesdun guztiak, hartzekodunak (prozeduran agertu badira) eta fiskala (ordezkaririk gabeko adingabe edo ezgai bat, edo prozeduran agertu ez den norbait egongo balitz) batzar batera deituko dira. Batzar-eskaera onartu zenetik edo kautelazko neurriak hartu zirenetik hurrengo hamar egunen barruan burutuko da. Prozeduran agertu ez ziren hartzekodunei ez zaie batzarrerako era formalean deituko; hala ere, batzarrean parte har dezakete finkatutako egunean beren kredituak justifikatzeko titulua aurkezten badute (PZLren 783.5. art.).

Batzarraren presidentea Idazkari Judiziala izango da. Helburua peritua izendatzea da, jaraunspenaren ondasunen balorazioa egin dezan, beharrezkoa bada, eta kontatzaile bat izendatzea, hark banaketa egin dezan. Hasiera batean, interesdunak premiatuko ditu

denon adostasunez izendatzeko, baina posible ez balitz, zozketa bidez egingo da, PZLren 341. artikuluari jarraiki. Beraz, azken kasuan, kontatzailea prozeduraren lekuan kolegiatutako abokatu bat izango da, eta hark erabakiko du perituak beharrezkoak diren ala ez, eta kasua bada, izendatuko ditu. Peritu bat baino gehiago izan daitezke, baina inoiz ez da bat baino gehiago tasatu behar den ondasun mota bakoitzarengatik. Bai kontatzailea, bai perituak errefusatu daitezke, PZLren 124. artikulutik 128.era bitarteko artikuluek araututakoarekin bat.

Kontatzailea eta, beharrezkoa balitz, perituak izendatu ondoren, haien esku utziko dira jaraunspenaren elementu guztiak inbentariatzeko (aldez aurretik eginda ez bazen) eta batez ere, balioesteko, likidatzeko edo interesdunen artean banatzeko. Horretarako, alderdietako batek eskatuz gero, epaileak epe zehatz bat jar dezake; horrek esan nahi du, epe barruan bete ezean, kontatzaileak kalte-galerengatik erantzukizuna izan dezakeela (PZLren 785.3. art.).

Kontatzaileak banaketa-eragiketak egingo ditu kausatzailearen oinordetzara aplikagarria den legearen arabera (zuzenbide komun edo berezia); baina testamentugileak bere ondasunen inbentario, balioespen, likidazio eta banaketarako beste arau batzuk zehaztu bazituen, horiek hartuko dira aintzat, baldin eta nahitaezko jaraunsleen senipartea kaltetzen ez badituzte. Gainera, ahal den neurrian, ez-zatiketa eta finken gehiegizko zatiketa saihesten ahaleginduko da (PZLren 786.1. art.).

Egindako banaketa-eragiketak hasi zirenetik bi hilabeteko gehienezko epean aurkeztu beharko dira, kontatzaileak sinatutako idazki batean. Horretan adieraziko dira: banatzeko dagoen ondarea osatzen duten ondasunen zerrenda; zerrenda horretako ondasunen balioespena; ondarearen likidazioa, zatiketa eta partaide bakoitzari egindako esleipena (PZLren 786.2 art.).

Behin banaketa egin ondoren, idazkia helaraziko zaie interesdunei, nahi izanez gero, 10 eguneko epean aurka egin dezaten. Epe horren barruan, alderdiek Epaitegiko Idazkaritzan aztertu ahal izango dituzte, bai autoak, bai banaketa-eragiketak; horrez gain, nahi dituzten kopiak eskura ditzakete beren kontura (PZLren 787.1. art.).

Aipatutako epean interesdunek honako aukera hauek dituzte: aurkeztutako banaketari adostasuna ematea edo aurka egitea. Bi kasuak aztertuko dira ondoren.

- a) Aurkeztutako banaketari adostasuna ematea, berariaz zein isilbidez. Isilbidez eginez gero, konforme dagoela ulertuko da, interesdunak aurka egiten ez badu. Bi kasuetan, epaileak autoa emango du banaketa-eragiketak onartzeko eta notario bidezko protokolizazioa agintzeko (PZLren 787.2. art.).
- b) Aurkeztutako banaketari aurka egitea. Aurkakotasuna idatziz aurkeztuko da; aurka egindako banaketa-eragiketak zehaztu eta aurka egiteko arrazoiak adieraziko dira (PZLren 787.1. art.). Une horretan, epaileak kontatzaileari eta alderdiei agerraldi batera deituko die; hurrengo 10 eguneko epean egingo da (PZLren 787.3. art.). Xedea guztien adostasuna lortzea da. Agerraldi horretan, interesdun guztien adostasuna lortuz gero, hitzartua betearaziko da eta kontatzaileak egokiak diren aldaketak egingo ditu banaketa-eragiketetan; hori egin ondoren, epaileak aurreko kasuan bezala onartuko du (PZLren 787.4. art.). Baina kontrako kasuan, hau da, agertzean adostasunik lortzen ez bada, prozedura gatazkatsu bihurtuko da. Hori dela eta, epaileak alderdiei entzungo die eta proposatutako frogak onartuko ditu (baldin eta desegokiak edo alferrekoak ez badira), eta prozedura hitzezko judizioaren ildotik joango da (PZLren 787.5. art.).

PZLren 782.4. artikulua aurkakotasunari buruz xedatzen duena kontuan hartu behar da. Zentzu horretan, testamentu bidez edo jaraunsekideek beraiek hartzekodun gisa aintzatetsitakoek eta exekuzio-titulu batean beren eskubidea dokumentatuta dutenek ere jaraunspenaren banaketari aurka egin diezaiokete, ordaintzen zaiena edo bere kredituen zenbatekoa segurtatu arte. Kasu horretan, hartzekodunek edozein momentutan egin dezakete aurka, baina jaraunse bakoitzari adjudikatutako ondasunak eman baino lehen betiere (PZLren 782.4. art.). Kasu zehatz honetan, aurkakotasuna ez da jaraunspena banatzeko era bat, baizik eta atzeratu egiten du, kredituak bermatu edo ordaindu arte.

3.2.3.4. Prozeduraren amaiera: ondasunen jabetza-tituluak jaraunseei ematea

Banaketak behin betikoz onartuta (adostasunagatik edo erabaki judizialarengatik) eta protokolizatuta, interesdun bakoitzari adjudikaturiko ondasunak eta jabetza-

tituluak emango zaizkio, jaraunspenaren hartzekodunen batek aurka egin duenean izan ezik. Gorago esan denez, ondasunak ez zaizkie jaraunsleei ez legatu-hartzaileei emango, kreditu guztiak ordaindu edo bermatu arte (PZLren 788. eta 789. art.).

3.2.4. Jaraunspen-ondarearen interbentzioa eta administrazioa

Mortis causa izeneko oinordetzak aldi baterako egoera sortzen du kausatzailearen ondasunen titularitateari dagokionez. Egoera hori ondasunak legezko edo testamentu bidezko jaraunsleei behin betikoz adjudikatu arte mantentzen da. Pertsona bat hiltzean, legez oinordekoak izan behar duten ahaideak ezagutzen ez badira, edo jaraunspenaren banaketan zehar haien artean gatazkak sortzen badira, PZLk hainbat kautelazko neurri aurreikusten ditu, izaera bikoitza dutenak: batetik, zendua ehorztea eta jaraunspen-ondarearen osotasuna bermatzea, ahaideek ondasunen ardura hartu, abintestato jaraunse deklarazioa formalizatu edo jaraunseleen artean jaraunspena behin betikoz banatu arte (interbentzio judizialaren izenpean PZLn); eta bestetik, behin inbentarioa eginda, jabegabeko jaraunspena kontserbazioa, administrazioa eta ordezkartza burutzea, banaketa-eragiketak amaitzen ez diren bitartean (administrazioaren izenpean PZLn). Aipatutako neurriak ofizioz edo alderdiek eskatuta har daitezke eta banaketa-jarduerekin batera edo aparte.

3.2.4.1. Jaraunspenaren ondasunen eta dokumentuen segurtasun-neurriak

Oraintxe esan denez, segurtasun-neurriak ofizioz edo alderdiek eskatuta har daitezke. Lehenik eta behin aztertuko da zein kasutan hartzen diren ofizioz (PZLren 790. eta 791. art.):

- a) Heriotzaren tokiko epaileak testamenturik ez dagoela, eta legez jaraunse izatera deitua izango den ahaiderik (aurrekoak, ondorengoak, ezkontidea edo egitatezko egoera parekatuan dagoena eta zehar-ahaideak 4. mailara arte) ere ez dagoela ziurtatu duenean (PZLren 790.1 I art.).
- b) Edo aipatutako ahaideak egonik ere, haietako bat bertan ez dagoenean, edo legezko ordezkarririk gabeko adingabea edo ezgaitua denean (PZLren 790.1. II. art.).

Ahaideak agertuta edo adingabe nahiz ezgaituari legezko ordezkaria izendatu ondoren, hildakoaren ondasunak eta efektuak emango zaizkie, eta interbentzio judiziala amaituko da (PZLren 790.2. art.).

Bi kasu horietarako, PZLren 791. artikulua hainbat neurri aurreikusten ditu:

- a) Beharrezkoa bada, epaileak hildakoa ehorzteko ezinbesteko neurriak hartuko ditu (PZLren 790.1. art.).
- b) Era berean, ezkuta edo lapur daitezkeen hildakoaren liburuak, agiriak, posta-trukea eta bestelako efektuak segurtatzeko beharrezko neurriak har ditzake (PZLren 790.1. art.).
- c) Beste aldetik, epaileak probidentzia bidez hildakoa testamentua eginda ala testamenturik egin gabe hil dela ziurtatzera zuzentzen diren neurriak ere har ditzake. Eta horretarako, kasua balitz, Azken Borondatearen Egintzen Erregistro orokorreko eta heriotzaren ziurtagiriak ere eskatuko ditu (PZLren 791.1., I. art.).
- d) Beste baliabiderik izan ezean, epaileak hildakoaren ahaideak, lagunak edo auzokideak dei ditzake testamenturik dagoen eta legezko oinordetzarako eskubiderik duen ahaiderik ote dagoen jakiteko (PZLren 791.1. II. art.).

Neurri horiek hartu ondoren, hildakoak testamentua egin gabe hil zela eta legezko oinordetzara deituta dagoen ahaiderik ez dagoela ziurtatzen bada, epaileak honako neurri hauek aginduko ditu auto bidez (PZLren 791.2. art.):

- a) Hildakoaren liburuak, agiriak eta posta-trukearen okupazioa.
- b) Ondasunen inbentarioa eta gordailua. Horretaz gainera, administraziorako egokia dena xedatuko da eta epaileak pertsona bat izendatzeko aukera izango du (jaraunspen-ondarearen kontu), inbentarioa eta gordailua egin eta berma ditzan.

Ebazpen berebean pieza banandu bat irekitzea aginduko du ofizioz, abintestato jaraunspenaren deklarazioa egiteko. Ez da ahaztu behar egoerak bere horretan iraunez gero, jaraunspenaren onuraduna Estatua edo Autonomia Erkidegoa izango litzatekeela.

Orain arte aztertutako segurtasun-neurri guztiak ofizioz hartzen dira. Beste batzuk, aldiz, alderdiek eskatuta har daitezke. Kasu horretan, har daitezkeen neurriak mugatuak

dira eta alderdien interesak babestera zuzenduta daude; izan ere, PZLren 792.1. artikulua adierazten duenez, 791.2. artikulua neurriak besterik ezin izango dituzte eskatu alderdiek, hau da, ondasunen okupazioa, inbentarioa eta administrazioa.

Baina, nor dago neurri horiek eskatzeko legitimatuta? Legitimazioa interesarekin lotuta doa. Hots, legitimazioa jaraunspenaren gainean alega daitekeen edozein interes motatan oinarritzen da. Ondorioz, segurtasun-neurriak eskatzeko legitimatuak izango dira, lehenik, izan daitezkeen jaraunsleak (baina oraindik ez direnak), benetako jaraunsleak (jadanik badirenak), eta kasu batzuetan, hartzekodunak. Kasu bakoitza aztertuko da ondoren:

- a) Ezkontidea edo legezko oinordetzarako eskubidea duela uste duen edozein ahaide, baldin eta egiaztatzen badute abintestato jaraunseleen deklarazioa notarioaren aurrean bultzatu dutela, edo jaraunspen-ondarearen interbentzioaren eskaera jaraunseleen deklarazio judizialarekin batera egiten bada (PZLren 792.1.1. art.). Hemen legitimatuek oraindik ez dute jaraunsele-izaera eskuratu.
- b) Edozein jaraunselekide edo zati alikuotaren legatu-hartzaile, jaraunspenaren banaketa judizial eskatzen den momentuan, testamentuaren xedapen bidez interbentzioa berariaz debekatzen denean izan ezik. Hau da, kasu horretan, legitimatuak jaraunsele-izaera aurretik jaso du edo legitimo deklaratu izan da, eta jaraunspenaren banaketa judiziala eskatzeko prozeduraren barruan bertan eskatzen du interbentzioa (PZLren 792.1.2. art.).
- c) Testamentuak edo jaraunselekideek aintzatetsitako hartzekodunak, eta beren eskubidea exekuzio-titulu batean dokumentatuta dutenak (PZLren 792.2. art.).

Jaraunspenaren interbentzioa alderdiek eskatuta edo ofizioz erabakitakoan, hurrengo pausoa ondasunen inbentarioa da. Beraz, beharrezkoa denean eta alde aurretik hartu ez baziren, epaileak ondasunak, eta baita lapur edo ezkuta daitezkeen hildakoaren liburu, agiri, posta-truke eta efektuak ere segurtatzeko beharrezko neurriak hartzea aginduko du auto bidez. Erabaki berean, data eta ordua zehaztuko ditu inbentarioa osatzeko, eta interesatuak deitzea aginduko du. Printzipioz, neurri horren eskatzaileak eta jaraunspenaren gainean edozein interes dutenak deitu beharko ditu, baina PZLk zehazten du zein diren (PZLren 793.1., 2. eta 3. art.):

- Bizi den ezkontidea
- Jaraunspenerako eskubidea izan lezaketen eta ezagunak diren ahaideak, testamentua dagoela ziurtasunik ez dagoenean, ezta abintestato jaraunseen deklarazioa eginda ere.
- Jaraunsekideak edo zati alikuotaren legatu-hartzaileak
- Jaraunspenaren interbentzioa eskatu zuten edo jaraunspenaren banaketaren prozeduran agertu ziren hartzekodunak
- Ministerio Fiskala, baldin eta legezko oinordetzarako eskubidea duten ahaideak daudenean, edo jaraunspenerako eskubidea duten ahaide ezagunen, jaraunsekideren edo zati alikuotaren legatu-hartzailearen bat bere bizilekua ez ezagutzeagatik pertsonalki deitu ezin denean, edo interesdunen bat ordezkari gabeko adingabea edo ezgaitua denan.
- Estatuaren Abokatua, edo legez aurreikusitako kasuetan, Autonomia Erkidegoetako Zerbitzu Juridikoak, testamenturik ez dagoenean, ezta ezkontide edo legezko oinordetzarako eskubidea duen ahaiderik ere.

Zehaztutako egunean eta orduan, Idazkari Judizialak inbentarioa egingo du, agertu direnekin batera. Inbentarioak jaraunspenaren ondasun, eskritura, dokumentu eta agirien zerrenda izango ditu eta testamentuak inbentarioa egiteko berariazko arauak xedatzen baditu, haien arabera jardungo da (PZLren 794.1. eta 2. art.). Inbentarioa egiten denean, ondasunak barne-hartzeari edo kanpoan uzteari buruzko gatazkak sortuz gero, prozedura gatazkatsu bihurtzen da; beraz, ikustaldi batera deituko dira interesdunak eta prozedurak hitzeko epaiketaren tramitazioa izango du. Emandako sententziak ez ditu ukituko jaraunspen-ondarearen gainean hirugarrenek dituzten eskubideak (PZLren 794.4. art.).

Inbentarioa osatzean gatazkarik egon ezean, epaileak onartu egingo du eta, kasu bada, jaraunspenaren administrazio, zaintza eta kontserbazioari buruz erabakiko du.

Inbentarioaren eraketaren kontua alde batera utzirik, interbentzio-neurriak zer momentutan bukatu edo altxatzen diren aztertu behar da. Segurtasun- edo interbentzio-neurriak hartu ondoren, argi utzi behar da haien iraupena inguruabar objektiboek eta subjektiboek baldintzatuta egongo dela. Hots, iraupena desberdina izango da, neurria oinarritu zuen zioa zein den.

Zentzu horretan, interbentzio judiziala ofizioz hartu bazen (testamentu edo ahaide faltagatik) edo alderdiek eskatu bazuten abintestato jaraunsleen deklarazioaren prozeduran, jaraunsleen deklarazioa egiten zen momentuan bertan bukatuko da, jaraunslekideren batek jaraunspenaren banaketa judiziala eskatzen duenean izan ezik. Azken kasuan, interbentzioak jarrai lezake, horrela eskatzen bada, adjudikatutako ondasunak jaraunse bakoitzari eman arte (PZLren 796.1. art.).

Litekeena da, jaraunslekideek jaraunsearen banaketaren prozeduran interbentzio- neurriak eskatu izana. Horrela balitz, interesdunek beraiek prozeduraren edozein unetan eska dezakete, guztien adostasunez, neurria altxa dadila. Izan ere, epaileak horrela erabakiko du, interesdunen bat legezko ordezkari gabeko adingabe edo ezgaitu denean, edo deitu ezin izateagatik bertan agertu ez den jaraunsleren bat ez dagoenean izan ezik (PZLren 796.2. art.). Ulertzekoa da interesdunek beraiek direla altxamendua eskatzeko legitimatuak, inork baino hobeto dakitelako neurria mantentzea beharrezkoa den ala ez.

Azkenik, jaraunspenaren banaketari aurka egin zion hartzekodunik egonez gero, (lehen esan denez, testamentuak nahiz jaraunslekideek aintzatetsitako edo beren eskubidea exekuzio-titulu batean dokumentatuta duten hartzekodunak) ez da interbentzioa bukatuko haiei ordaindu edo beren kredituak bermatu arte (PZLren 796.3. art.).

3.2.4.2. Jaraunspen-ondarearen administrazioa

Inbentarioa eratuta badago ere, ez da nahikoa, beste neurri batzuk ere hartu behar baitira. Haietako batzuek ondasunen gordailua eta kontserbazioa izango dituzte helburu; beste batzuk, aldiz, jaraunslekideei ondasunak eman arte haiek administratzera zuzentzen dira.

Lehenik eta behin, gai honi buruz testamentuak xedatzen duena hartu behar da kontuan; baina, besterik ezean, legezko xedapenen eta epailearen iritzi askearen mende jardun beharko da. Hona hemen PZLren 795. artikulua aurreikusitako arauak:

- a) Eskudirua eta efektu publikoak Zuzenbidearen arabera gordailatuko dira. Gordailua Epaitegiaren Gordailu eta Kontsignazioen Kontuan egingo da.
- b) Administrazioari dagokionez, alarguna izendatuko da administratzaile; eta ez balego, jaraunspenaren zati handiena duten jaraunsleak edo parte alikuotaren legatu-hartzaileak. Eta ez baleude, edo epailearen iritziz kargua izateko gaitasun nahikorik ez badute, edozein jaraunsele edo parte alikuotaren legatu-hartzaile (egonez gero), edo hirugarren bat izenda daiteke. Administratzaileak funtzio bikoitza izango du: batetik, jaraunspenaren ondasunak administratuko ditu, eta bestetik, ondasunak ordezkatzeko ditu. Jakina denez, ondasunek nortasun propioa duen ondare autonomoa osatzen dute, eta juridikoki jardun dezake, baina horretarako norbaitek jardun behar du bere izenean.
- c) Administratzaileak behar adinako kauziora eman beharko du ondasunengatik erantzuteko, eta epaileak zehaztuko du hori. Hala ere, epaileak ezkontide alarguna edo administratzaile izendatutako jaraunseleka kauziora ematetik salbuetsi dezake, hark ondasun nahikoak baditu ematen zaizkionengatik erantzuteko; beste hitz batzuetan, ondare-berme nahikoak eskaintzen baditu.
- d) Era berean, jaraunsele eta zati alikuotaren legatu-hartzaileek ere kauziora ematetik salbuetsi dezakete administratzailea. Horri buruzko adostasunik egon ezean, kauziora onespina ematen ez dutenen jaraunspenaren gaineko interesarekiko proportzionala izango da. Gauza bera gertatzen da deitu diren ordezkari gabeko adingabeei eta ezgaituei dagokienez, eta deitu ezin izateagatik agertu ez direnen jaraunspenaren partaidetzari dagokienez; kauziora beren partaidetzarekiko proportzionala izango da.

Administratzailea izendatu eta hark kauziora eman ondoren, karguaren jabe egingo da eta administratzaile gisa berarekin harremanak izango dituztenei jakitera emango zaie. Gainera, bere kargua dokumentu baten bidez egiaztatuko da, eta Jabetza Erregistroan ere izendapenaren oharpena egin daiteke, manamendu judiziala bidez eta hipoteka-legeriaren baldintzak beteta (PZLren 797.1., 2. eta 3. art.).

Jaraunseleek jaraunspena onartzen ez duten bitartean, administratzailea haren ordezkaria izango da hasten diren auzi guztietan edo kausatzailea hiltzean hasita zeudenetan; ondorioz, jaraunseleek deklarazioa egin arte, hildakoari zegozkion akzio guztiak egikaritzeko ditu. Baina, behin jaraunspena onartu ondoren, ordezkapena

ondarearen administraziora, zaintzara eta kontserbaziora mugatuko da, eta horretatik ondorioztatutako ekintza ekonomiko hutsak besterik ezin izango ditu egikaritu (PZLren 798. art.).

Bere kargua betetzen duen bitartean, administratzaileak gestioaren kontuak eman beharko ditu aldizka, epaileak zehazten dituen epeetan, eta kargua bukatutakoan, amaierako kontua emango du (momentu horretara arte aurkeztutako kontuen osagarria izango dena). Behin kargua amaitu ondoren, kontu horiek guztiak (amaierakoa barne) alderdien eskura utziko dira Idazkaritzan, epaileak probidentziaz zehatutako epean; amaitu ondoren, alderdiek aurka egiten ez badute, epaileak auto bidez onartuko ditu, eta administratzailea erantzukizunetik salbuetsita deklaratu du. Auto berean kauzioa administratzaileari itzultzea aginduko du. Kontrako kasuan, hots, kontuak epe barruan inpugnatuz gero, administratzaileari inpugnazio-idazkia helaraziko zaio, hark erantzun dezan eta izapidetzak hitzezko epaiketaren arauen arabera jarraituko du (PZLren 799. eta 800. art.).

Administratzailearen betebeharrei dagokienez, ondasunak kontserbatu behar ditu eta horrela egin ezean, erantzukizuna izan dezake. Ahal den neurrian, ondasunek egokiak diren errentak, fruituak eta produktuak eman dezaten ahaleginduko da. Horregatik, kontserbaziorako behar-beharrezkoak diren konponketa arruntak egin beharko ditu ondasunetan; ezohizko konponketak edo gastuak beharrezkoak izanez gero, epaitegiari jakinaraziko dio eta hark agerraldi batera deituko ditu alderdiak. Aldez aurretiko perituen azterketa eta aurrekontua egin ondoren, inguruabarrak kontuan hartuta, epaileak egokitzat hartzen duena erabakiko du (PZLren 801. art.).

Administratzaileak karguan jardutean lortutako zenbatekoak epaitegiaren esku gordailatuko ditu, baina gastu arrunt eta ezohikoei erantzuteko, zenbatekoak atxikitzeo aukera izango du (PZLren 800. art.).

Administratzaileak ezin izango ditu inbentariatutako ondasunak besterendu, ezta kargatu ere. Hori da arau orokorra, baina salbuespenak ere badaude; hauek dira:

- a) Honda daitezkeen ondasunak.
- b) Kontserbazio zaila edo garestia duten ondasunak.

- c) Fruituak, baldin eta euren besterentzea onuragarria bada.
- d) Gainontzeko ondasunak, euren besterentzea zorrak kitatzeko edo administrazioaren beste ardura batzuk betetzeko beharrezkoa bada.

Epaileak, administratzailearen proposamena kontuan hartuta eta interesatuei entzun ondoren, aipatutako ondasunen besterentzea erabaki dezake; enkante publiko bidez egingo da (PZLren 803. art.).

Administratzailearen eskubideei dagokienez, emandako zerbitzuengatik zenbateko zehatzak eskuratzeko aukera izango du. Izan ere, PZLren 804. artikulua kopuru horiek ehunekoan arabera zehazten ditu. Ehunekoa desberdina da jarduera mota zein den. Horrekin batera, epaileak bidezkotzat irizten dionean, kargua betetzeko beharrezkoak diren bidaia-gastuak administratzaileari ordaintzea erabaki dezake.

Amaitzeko gehitu behar da, hildakoak bere ondasunak zaintzeko administrazio motaren bat bazuen, mantendu egingo dela, baina hortik aurrera, administratzaile judizialaren arretaren mende. Administratzaile horiek beren kontuak eman eta bildutakoa bidaliko diote administratzaile judizialari, baina hark ezin izango ditu kargutik banandu, aldez aurreko epailearen baimenik ez badago eta bidezko ziorik ez badago. Baimen judizial hori administrazioan hutsik dauden postuak betetzeko ere beharrezkoa izango da (PZLren 805. art.).

3.3. Ezkontzaren ondasun-erregimena likidatzea

Ezkontza-harremanaren ondorioz ondasun eta eskubideen multzo erkidea dagoenean, eta ezkontideen artean likidatu eta banatu nahi denean, ezkontideen arteko akordiorik egon ezean, PZLren 806. artikulutik 811.era bitarteko artikuluek aurreikusitako prozedura erabiliko da (PZLren 806. art.). Aipagarria da prozedura hori erabiltzeko aintzat hartzen den datua ondasunen eta eskubideen multzo erkidea egotea dela, hots, ezkontzaren edozein ondasun-erregimena likidatzeko orain aztertzen den prozedura erabiltzen da.

3.3.1. Oinarriak

Likidazioa burutzeko eskaera bi arrazoitan oinarri daiteke:

- Ezkontza-harremana desegin delako (deuseztasun, banaketa edo dibortzioren zioak direla medio), edo
- Legeak eskaera hori egiteko aurreikusten dituen suposaturen bat eman delako. Arrazoiak anitzak dira: ezkontideetako batek gaitasuna galtzea, bestearen ekonomia-ezagupen edo -jarduerak zalantzan jartzea, familia bertan behera uzteagatik kondenatua izatea, urte batez baino gehiagoz banaturik bizitzea, ezkontideek ondasunen banaketa-erregimena aplikatuko dela erabakitzea...

Hortaz, likidazio-prozedura hau beste prozesu batekin lotuta egon daiteke -ezkontza-harremana amaitzeko prozesuarekin batera, esaterako-, edo era independente batean, bera bakarrik eta ezkontza-loturarik eragin gabe, ezkontzaren ondasun-erregimena likidatzeko zioen bat dagoenean.

3.3.2. Eskumena

Eskumenari dagokionez, bi egoera desberdindu behar dira:

- Likidazioa ezkontza-harremanaren amaiera-prozesuarekin batera gertatzen bada -deuseztasun-, banaketa- edo dibortzio-prozesuak-, horretaz arduratu den edo arduratzen ari den lehen auzialdiko epaitegia izango da eskuduna.
- Uzi independente moduan aurkeztuz gero, ezkontideen egoitzako auzitegiari dagokio likidazioari buruzko prozedura ebatzea; eta ezkontideak ez badira bizi epai-barruti berean, PZLren 769. artikuluko arauak izango dira aplikagarriak.

3.3.3. Objektua

PZLk bi prozedura xedatzen ditu, hainbat objektu aintzat hartzen dituztenak:

- Ezkontza-erkidegoaren ondorioz dauden eskubide eta ondasunen inbentarioa eratzeko prozedura. Izaera kautelarra du, eta ezkontza desegiteko prozesua eskatzen du.

- Ezkontza-erkidegoaren ondasunak likidatu eta banatzeko prozedura. Ezkontza-desegiteari buruz irmoa den erabaki judizial bat eskatzen du.

3.3.3.1. Inbentarioa eratzeko prozedura

Prozedura deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-demanda onartu ondoren, edo ezkontzaren ondasun-erregimena desegiteko prozedura hasi ostean eragin daiteke (PZLren 808.1. art.).

Eskaera idatziz egin behar da, abokatua eta prokuradorearen sinadurarekin. Horrez gain, adostasunik egonez gero, bi ezkontideek jar dezakete eskaera, edo akordiorik egon ezean, batak bestearen aurka. Eskaerarekin batera, inbentarioa egin beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda, eta ondasun horien gaineko agiriak aurkeztu behar dira (PZLren 808.2. art.).

Aurrekoaren ondoren, ezkontideei zitazioa egingo zaie idazkari judizialaren aurrean inbentario-proposamena egin dezaten; proposamenaren edukiak KZren 1397. eta 1398. artikuluekin bat etorri beharko du.

Inbentariori buruzko akordiorik egonez gero -esanbidezkoa zein isilbidezkoa-, aktan jasoko da, eta egun berean edo hurrengoan, ondasunak xedatu eta administratzeko neurriak zehaztuko dira (PZLren 809.1., IV. art.).

Akordiorik lortu ezean, ezkontideei ikustaldirako zitazioa egingo zaie, eta izapidetzak hitzezko epaiketarako ezarritakoaren arabera egingo du aurrera. Ikustaldiaren ondoren, epaiak sortutako arazo guztiak ebatziko ditu, eta ezkontza-erkidegoaren inbentarioa zehaztuko du. Gainera, epaiak ondasun erkideak administratzeari eta xedatzeari buruz ere erabakiko du (PZLren 809.2. art.).

3.3.3.2. Ezkontza-erkidegoaren ondasunak likidatzeko eta banatzeko prozedura

Prozedurak helburutzat du aldez aurretik inbentarioan dauden ondasunak ezkontideen artean behin betiko likidatzea eta banatzea. Hala ere, horren gainean hainbat ñabardura egin behar dira:

- Eskaera honek ezkontza-erregimena ekonomikoa deuseztatzen duen aurreko ebazpen judizial batean oinarritu behar du, hau da, eskatu ahal izateko, aldez aurretik aipaturiko ebazpen judiziala behar da.
- Ikuspegi prozesaletik prozedura bera bada ere, indarrean dagoen ezkontza-erregimen motaren arabera bereiztu behar da (irabazpide- edo partaidetza-erregimena):

Bi ezkontza-erregimen ekonomikoren kasuan:

- Ezkontideetatik edozeinek likidatze-eskaera jar dezake, abokatu eta prokuradorearen sinadurarekin; eskaerarekin batera, likidazioa egiteko proposamena aurkeztu behar da.
- Horren ostean, ezkontideen artean akordioa lortzen saiatzeko helburuz, haiek Idazkari judizialaren aurrean agertu beharko dute; akordioa esanbidezkoa zein isilbidezkoa izan daiteke.
- Akordioak prozeduraren amaiera dakar; eta hitzarmenik lortu ezean, ostera, prozesuarekin jarraitzen da.

Hortik aurrera, likidatu beharreko ezkontza-erregimen ekonomikoren arabera, berezitasun batzuk aipatu behar dira:

- Irabazpide-erregimena: likidazio-eskaera Kode Zibilean arautzen diren ezkontideen arteko kalte-ordaina, ordainketa eta lehentasunen irizpideen arabera burutu beharko da (KZren 1403. eta hurrengo artikulua.). Adostasunik lortuz gero, ondasunak eta agiriak KZren 786.1. eta 2. artikuluan arautzen denaren arabera eman beharko dira. Akordiorik ez badago, aldiz, ezkontideen artean, likidazioa burutzeko kontatzaile eta perituak izendatuko dira (PZLren 784. art.).
- Partaidetza-erregimena (PZLren 811. art.): likidazio-proposamenarekin batera aurkeztu beharko da ezkontide bakoitzaren hasierako eta amaierako ondasunen balorazioa, eta KZren 1417. eta hurrengo artikuluen arabera, ezkontide batek besteari eman beharreko zenbatekoa. Ezkontideen artean adostasuna lortuz gero, likidazioa

hitzartutakoaren arabera burutuko da. Adostasunik egon ezean, likidazioa burutzeko hitzezko judizioaren izapidetzari jarraituko zaio.

4. KAPITULUA: PROZESU MONITORIOA

4.1. Kredituaren babes prozesala. 4.2. Aurrekari historikoak. 4.3. Kontzeptua eta ezaugarri nagusiak. 4.4. Izaera juridikoa. 4.5. Prozesu monitorioaren egokitasuna. 4.6. Eskumena. 4.7. Hasierako eskaria. 4.8. Eskariaren onarpena eta ordaintzeko errekerimendua. 4.9. Zordunaren jarrerak ordaintzeko errekerimenduaren aurrean. 4.9.1. Zordunak ez ordaintzea. 4.9.2. Zorduna ez agertzea. 4.9.3. Zordunak aurka egitea. 4.10. Berezitasunak jabetza horizontalaren gaitetan.

4.1. Kredituaren babes prozesala

1881eko Prozedura Zibilaren Legeak ezin izan dio justiziak pairatzen duen *kalitate-krisiari* irtenbiderik eman. Izan ere, Prozesu Zibilaren hutsunetarikoz batzuk konpontzen saiatuz, urtarrilaren 7ko 1/2000 Prozedura Zibilaren Legeko IV. Liburuko azken Tituluak (812-818. art.) prozesu monitorioa arautu zuen, 30.000 eurotik gorakoak ez diren diru-kredituei babes berezia emateko.

Prozesu monitorioak aurrez prozesu arruntik burutu beharrik gabe azkar batean exekuzio-titulua lortzea ahalbidetzen du. Legegileak bide zehatz bat eman nahi izan du, hartzekodunari erantzun judicial bizkorra eta babes judicial eraginkorra emateko (EKren 24.1.s art.). Monitorioa da -kanbio-letren prozesuarekin batera- kreditu-eskubidearen eraginkortasuna indartzera zuzenduta dagoen prozesu bakarra. Prozesu horrek babes prozesal zibila eskaintzen dio kredituari, eta merkataritza-trafikoak eskatzen duen modu bizkorrean eta eraginkorrean garatzen da.

Prozesu monitorio berezia bizkorra eta plenarioa den prozesua da, eta horren bitartez, gauza juzgatuaren efektua eragiten duen exekuzio-titulua lortzen da.

Egile batzuen ustez, kredituaren babes jurisdikzionalaren bide nagusi bihurtuko da, eta deklarazio-prozesuak gutxiaraziko ditu. Beste era batean esanda, prozesu monitorioak auzitegi zibilen gehiegizko karga arinduko du.

Bukatzeko, aipatu beharra dago 2000ko ekainaren 29ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/35/CE Zuzentaraua. Zuzentaruak operazio komertzialetako berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen ditu; horretarako, Europako Batasunak esku-hartze prozesal komun eta egokia exigitzen du -prozesu monitorioa- ordainketa jaso ez dutenentzat. Izan ere, Espainian, zuzentarau horren transposizioa abenduaren 29ko 3/2004 Legearen bitartez egin da, 28 hilabeteko atzerapenarekin (2002ko abuztuaren 8a baino lehen egin behar izan zelako transposizioa). Egia esan, lege horrek ez du aipatutako zuzentaruaren 5. artikulua bi betekizun betetzen (prozesu monitorioarekin zerikusia dutenak): berandutzaren aurkako prozesuan ezin zaio zorraren muntari mugarik jarri (PZLren prozesu monitorioan muga hori 30.000 eurokoa da), eta exekuzio-titulua lortzeko gehieneko epeak ezin du 3 hilabeteko epea gainditu (egiten diren monitorioek 90 egun baino askoz ere gehiagoz luzatzen dira eta ez dute betiere zorraren ordainketa lortzen).

4.2. Aurrekari historikoak

Monitorioa XIV. mendeko Italian sortutako prozesua da. Harreman komertzialen gorakadaren eta ez-ordaintzeak ekarri zituen zorren ondorioz, Italiako penintsulako merkatariek beren kredituak bizkor eta eraginkortasunez babestuko zituen prozesu zalu eta erraz baten beharra sentitu zuten. Merkatarien beharrei erantzuteko sortu zen, hain zuzen, prozesu arruntak luzeegiak baitziren.

Prozesu berri horren bitartez, exekuzio-titulua berehala sortzen zen, *praeceptum* edo *mandatum cum clausula iustificativa* zeritzona. Behin epailearen aurrean eskaria egin ondoren, eta alde aurreko kogniziorik egon gabe (*ante causa cognitionem*), organo judizialak ordaintzeko edo gauzaren bat egiteko agindua ematen zuen (*de solvendo vel trahendo*). Zordunak, bere aldetik, bi aukera zituen: epailearen aurrean ez agertzea, eta honela agindua berrestu eta gauza juzgatu bihurtzen zen. Edo epailearen aurrean agertzea; agerpen hutsak -hau da, zordunak ez zuen aurka egiteko ziorik eman behar- prozesu berezia amaitzea zekarren; beraz, judizio arruntaren bidetik jarraitu behar zen.

Jakina, hain prozesu erraz eta bizkorra izanik, laster hedatu zen Italian. Pixkanaka-pixkanaka, Italiako hiri gehienek beren estatutuetan arautu zuten. Denboraren poderioz, Europan barna ere hedatu zen, baina batez ere germaniar lurraldeetan. Lurralde haietan,

izaera dokumentala erantsi zitzaion prozesu berezi honi; alderdiak eskatuta, epaileak ordaintzeko agindua ematen zuen, baina aldez aurretik alegatutako onargarritasuna - dokumentuen bidez egiaztatzen zena- aztertu behar izaten zuen. Zordunak aginduari aurka eginez gero, judizio arruntetik jarraitu behar zuen prozesuak, eta froga-zama alderantzikatu egiten zen. Aurka egin ezean, *mandatuma* exekuzio-titulu bihurtzen zen.

Espainiari dagokionez, XV-XIX. mendeetako iturri legalek ez zuten prozesu berezi honi buruz ezer aurreikusten. Hala ere, Tomas y Valienteren iritziz, prozesu monitorioa Espainiako auzitegi-praktikan existitu zen -legez kontrako praktika modutzat hartuta- XIX. mende arte. Literaturak, bere aldetik, 1579. urtean jaso zuen lehenengo aldiz. Nahiz eta legeek prozesu monitorioa aurreikusi ez, kontuan hartu behar da zuzenbidea ez dela legetan bakarrik agertzen dena; izan ere, garai hartan merkataritza-trafikoaren eraginez, oso normala zen Italiako merkatariaek Gaztelan izatea. Hori dela eta, seguruenez, Espainiako auzitegiek prozesu monitorioa sobera ezagutzen zuten.

XIX. mendean, Espainiako hainbat egilek auzitegi-praktika ikasten zuten. Egile haiek zioten *ordaintzeko aginduaren* erabilpen praktikoa ezagutzen zutela. Horrek esan nahi du XIX. mendeko Espainiako hainbat auzitegiak prozesu monitorioa aplikatzen zutela. Hala eta guztiz ere, abusuzko praktikatzat hartuta, *1853ko Gironako Markesaren Instrukzioak* desagerrarazi egin zuen. Ondorioz, legez kanpoko praktika hau ez zen 1855eko Prozedura Zibilak aurreikusia izan; ezta 1881ekoak ere.

4.3. Kontzeptua eta ezaugarri nagusiak

Aurrez prozesu arruntik burutu beharrik gabe eta azkar batean exekuzio-titulu bat sortzeko tresna da prozesu monitorioa. Horretarako, hartzekodunak nahikoa izango du epailearen aurrean agiri bat aurkeztea, epemuga bete duen eta likidoa eta galgadarria den diru-zor bat dagoela egiaztatzeko (PZLren 812. artikulua zehazturikoak).

Prozesu monitorioa egokia da epemuga bete duten eta galgagarriak diren diru-zorren ordainketa exijitzeko, baldin eta Legeak ezarritako agirien bidez justifikatzen bada eta 30.000 eurotik gorakoak ez badira.

Exekuzio-titulua sortzea da prozesu monitorioaren helburua. Hartzekodunak, zorraren ordainketa judizialki exijitu ahal izateko, exekuzio-titulua eskatzen dio epaileari. Horretan datza, hain zuzen, uzi monitorioa.

Ezaugarri nagusiei dagokienez, honako hauek azpimarra litezke:

1) Lehenik eta behin, esan beharra dago prozesu monitorioaren bidez gauza juzgatuaren efektuak dituen exekuzio-titulua sortzen dela. Gorago adierazi denez, prozesu berezi hau, hasieratik, kredituak babesteko prozesu zalu eta erraz moduan sortu zen, judizio arruntaren gehiegizko formalismoa eta moteltasuna saihesteko asmoz.

2) Prozesu monitorioa hasi ahal izateko, hartzekodunak zorra adieraztea ez da nahikoa; agiri bat aurkeztea eskatzen zaio. Agiri horrek hartzekodunaren eskubidearen froga-printzipioa adierazi beharko du; itxura juridiko ona, alegia. Alemanian, aldiz, hartzekodunari ez zaio inolako agiririk eskatzen.

3) Diru-kredituari babes prozesal pribilegiatua emateko tresna da. Baina, zergatik? Legeak ezarritako agirietariko bat aurkeztuta, prozedura bizkor baten bidez berehala betearazteko balio baitu.

Izan ere, PZL 812. artikulua dioenaren arabera, printzipioz, edozein agiri da baliozkoa, baina merkataritzako edo arlo zibileko usadioak kontuan hartuta, hauek dira nagusiak: mota, itxura edo euskarri fisikoa edozein izanda, zordunaren sinadura edo zigilua duten dokumentuak, ohiko fakturak edo albaranak, hartzekodunak aldebakarretik legearen edo ohituraren arabera sortutako dokumentuak, baldin eta normalean zordun eta hartzekodunaren arteko zor eta kredituak jasotzen badituzte, aurreko harreman iraunkorra egiaztatzen duten agiri komertzialak eta hiri higiezin jabeen komunitateen gastu komun bezala zor diren kopuruak ez ordaintzearen ziurtagiriak.

Hau da, ez da behar zordunaren sinadurarik nahiz autentifikaziorik. Baina horrek arazo larriak sor ditzake. Sinadura beharrezkoa ez bada, ezin izango zaio zordunari dokumentua onartzeko eskatu.

4) Prozesu monitorioan ez dago zordunaren berehalako entzunaldirik. Dena dela, horrek ez du esan nahi entzunaldirik ez dagoenik, baizik eta geroagorako uzten dela. Aurka egiteko aukera emango zaio betiere, baina ordaintzeko errekerimendua emandakoan.

Behin demandatzaileak eskaria egin eta legeak ezarritako agiriren bat aurkeztu ondoren, epaileak, aztertu eta ondoren, ordaintzeko errekerimendua emango du. Demandatuak (zordunak) aurka agertu ezean, exekuzioarekin hasiko da (PZLren 816. art.); aurka agertzekotan (PZLren 818. art.), prozesu monitorioa arrunt bihurtuko da. Beraz, aurka egiteko aukera dagoenez, ez da EKren 24.1. artikulua babes judizial eraginkorra izateko eskubidea urratzen.

Esan daiteke exekuzio-titulua berehala sortzeko helburua kontraesanaren inizatiba alderantzikatuz lortzen dela. Demandatuari (zordunari) ematen zaio kontraesana hasteko inizatiba. Exekuzio-titulua sortuko da, baldin eta demandatuak, aurka eginez, kontraesana hasteko beharra egiaztatzen ez badu. Aurka egitekotan, prozesu berezia amaitu egingo da, egokia den judizio arruntaren ildotik jotzeko.

5) Bestalde, legeak ez die zordunek aurka egiteko zioei mugarik ezartzen. Hau da, hasiera batean, zordunak edozein zio alega dezake. PZLren 818.4. artikulua ez du aurka egiteko zioei buruz ezer aipatzen.

6) Prozesu monitorioa hasi baino lehen, hartzekodunari ez zaio obligatorik ezartzen zordunari ordainketa notarialki, pribatuki edo froga daitekeen beste edozein modutan eskatzeko. Zordunaren kalterako izan daiteke hori; izan ere, ez zaio judiziotik kanpo ordaintzeko aukerarik ematen prozesua saihestu ahal izateko, ezta zorraren munta zehatza zein den jakiteko aukerarik ere.

7) Prozesu monitorioa hasteko, epemuga bete duen eta galdagarria den diru-zorra izan beharko du; ez da 30.000 eurotik gorakoa izango (PZLren 812.1. art.). Legegileak, zuzen jokatuz, nahiago izango du gehienezko munta ezarri. Gogoratu behar da Espainiako sistema prozesalean kreditua babesteko tresna berria dela.

4.4. Izaera juridikoa

Prozesu monitorioaren izaerari buruzko eztabaidak sortu dira. Egia esan, ez dago oso argi zein den prozesuaren izaera: exekuzio-prozesua edo deklarazio-prozesua.

Batzuen iritziz, exekuzio-prozesua da. Prozesu monitorioak exekutiboaren antza duelakoan, hainbat argudio eman dituzte: bata eta bestea epemuga bete duten eta galdagarriak diren diru-kredituak betetzera zuzenduta daude; prozesu bietan kognizio-fasea atzeratu egiten da; kasu bietan zordunari entzuna izateko aukerarik eskaini gabe ematen duelako epaileak ordaintzeko ohartarazpena,...

Hala ere, prozesu monitorioaren eta exekuzio-judizioaren arteko desberdintasun nagusia hau da: prozesu monitorioan zorra ez dago exekuzio-titulu batean dokumentatuta; exekuzio-titulua da, hain zuzen ere, prozesuaren bidez lortu nahi dena. Hau da, prozesu monitorioaren helburua bera da exekuzio-judiziotzat hartzea eragozten duena. Horregatik, monitorioa ezin da exekuzio-prozesua izan, bizkor eta erraz exekuzio-titulua lortzeko prozesua baizik.

Egia da ordaintzeko errekerimendua aldez aurreko kontraesanik egon gabe ematen dela, baina aurka egiteko epea bete ondoren bakarrik lortzen da exekuzio-titulua.

Beste egile batzuek diotenez, deklarazio-prozesu berezia da monitorioa. Izan ere, PZLk berak honela adierazten du prozesua IV. Liburuan kokatzen duenean. Baina, zergatik deklarazio-prozesu berezia? Deklarazio-prozesuko egitura arruntetik aldentzen delako. Arestian aipatu denez, prozesu monitorioan, kontraesanaren inizatiba alderantzikatzen da, exekuzio-titulua bizkor eta erraz sortzeko helburuz.

Baina, prozesuko monitorioa osatzen duten bi faseak dira kontuan hartu beharrekoak, izaera juridikoa aztertu ahal izateko. Izan ere, fase batean eta bestean agertzen diren irizpideak desberdinak dira. Ondoren, biak aztertuko dira:

1. Exekuzio-titulua sortu baino lehen: lehenengo fasea deklaraziozkoa dela esan daiteke. Gogoratu behar da, PZLren 815. artikulua dioenaren arabera, auzitegiak eskatzailearen eskubidearen frogahastapena aurkitu behar duela. Hau

da, auzitegiak ez du zuzenean exekuzio-titulua sortzen, baizik eta agiria aztertu, eta legeak ezarritako baldintza guztiak betetzen dituen egiaztatu behar du. Ondoren, ebazpen judizial bat emango du, exekuzio-titulua sortzeko. Beraz, eskubidea, nolabait, aurrez deklaratu behar da. Baina gainera, prozesu monitorioa deklarazio-prozesu berezia da fase honetan. Zergatik berezia? Fase honetan zordunak aurka egiteko aukerarik ez duelako; ez dago kontradikziorik, alegia. Aurkeztutako agiriak eta eskariek baldintza guztiak bete ondoren, auzitegiak ordaintzeko errekerituko dio zordunari probidentzia bidez, baina inolako kontraesanik egon gabe.

2. Behin ordaintzeko errekerimendua eman ondoren: ordaintzeko errekerimendua emandakoan, prozesu monitorioaren izaera aldatu egiten da. Hemendik aurrera, bi dira aukerak: A) Errekeritutako zordunak auzitegiaren aurrean agertu edo ordaindu ezean (PZLren 816. art.), exekuzioa aginduko da. Kasu horretan, prozesu monitorioak izaera exekutiboa izango du. Hau da, hain zuzen, prozesu monitorioaren garapen arrunta; hau da prozesu monitorioaren xedea. B) Zordunak epe barruan aurka eginez gero (PZLren 818.1. art.), prozesu monitorioa egokia den prozesu arrunt bihurtuko da; prozesu monitorioak utzi egiten dio prozesu berezia izateari, zorrari buruzko eztabaida juridikoa sortu baita. Beraz, prozesu arrunten ildotik jo beharko da.

Ondorio gisa, prozesu monitorioak izaera mistoa duela esan daiteke. Lehendabiziko fasean, deklarazio-izaera berezia izango du; bigarrenean, aldiz, exekuzio-izaera. Hau da prozesu monitorioaren garapen arrunta. Beraz, zordunak aurka eginez gero, ez da benetako prozesu monitorio bat izango, prozesu arrunta baizik; kasu horretan, legegileak kredituari babes pribilegiatua emateari uzten dio, babes orokorra emateko (judizio arruntaren ildotik bideratuko da).

4.5. Prozesu monitorioaren egokitasuna

PZLren 812.1. artikulua berak zehazten du prozesu monitorioaren xedea: 30.000 eurotik gorakoak ez diren, mugaeguna beteta duten eta galdagarriak diren diru-zorren ordainketa lortzea.

Beraz, zorrak hainbat ezaugarri izan behar ditu: ordaintzeko epea bete duen eta galdagarria den diru-zorra izatea, eta 30.000 eurotik gorakoa ez izatea. Galdagarriak izan behar dutenez, ezin dira prozesu monitorioaren bidez exijitu baldintzaren mende dauden zorrak (baldin eta baldintza bete ez bada). Gauza bera gertatzen da kontratua duten edo kontratuz kanpoko kulpari buruzko erreklamazioekin, beren galdagarritasuna auzitegien deklarazio-erabakiaren baldintzapean jartzen baita. Beraz, puruak eta likidoak izan behar dute zorrek.

30.000 euroko mugari dagokionez, eztabaidak sortu dira. Izan ere, Prozedura Zibilaren Legearen Aurreproiektuan muga hori 3.000.000 pezetakoa (18.000 eurokoa) zen; zirriborroan, aldiz, 2.000.000 pezetakoa (12.000 eurokoa). Beste herrialde batzuetan (Frantzia, Alemania eta Italia kasu), ez dago inolako munta-mugarik prozesu monitorioaren ildotik jotzeko. Ildo beretik doa lehen aipatutako europar zuzentaraua; zuzentarau horren transposizioa egiten duen legeak indarrrik gabe utziko du 30.000 euroko muga.

Baina hau da kontu honetan sor daitekeen galdera: posible litzateke, gehienezko munta errespetatuz, zorrak metatzea?; edo kontrako kasua, posible litzateke 30.000 eurotik gorakoa den zorra zatitzea? Hasiera batean, legeak ez du inolako oztoporik jartzen. Beraz, 30.000 euroko gehienezko munta errespetatzen baldin bada, zor edo uzi batzuk metatzeko aukera legoke; horrela, prozedura bakar batean uzi batzuk ebatziko lirateke, hartzekodunak uzi bakoitzarengatik prozedura berri bat hasi behar gabe. Zorra zatitzeari dagokionez, posible litzateke baldin eta, gehienezko munta errespetatu ondoren, hartzekodunak soberakina erreklamatzeari uko egiten badio.

PZLren 812.1. artikulua demandarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak zehazten ditu, zorra egiaztatzen dutenak:

1. Zordunak sinatu dituen edo bere zigilu, arrasto, marka edo beste edozein seinale fisiko edo elektroniko duten agiriak, forma, mota eta euskarri fisikoa edozein

izanda (PZLren 812.1.-1. art.). Agiri hauetan zorraren nolabaiteko aitortpena dago zordunaren aldetik.

2. Fakturak, albaranak, ziurtagiriak, telegramak, telefaxak edo hartzekodun eta zordunaren arteko kreditu eta zorrak dokumentatu ohi dituzten agiriak, hartzekodunak aldebakarretik sortuak izan arren (PZL 812.1.-2. art.).
3. Hartzekodunaren eta zordunaren arteko alde zuzeneko harreman iraunkorra egiaztatzen duten agiri komertzialak (PZL 812.1.-1. art.).
4. Hiri higiezin jabeek dituzten komunitate-gastu komun gisa zor diren muntak ez ordaintzearen ziurtagiriak (PZL 812.1.-2. art.). Apirilaren 6ko 8/1999 Legeak 1960ko Jabetza Horizontalaren Legeko 21. artikuluan prozesu monitorioa sartu zuen (ikus PZL 1. Amaierako Xedapena). Hiri higiezin jabeek dituzten komunitate-gastu komun enpleguaren erregulazioetan, prozesu monitorioa ez ezik, prozesu arruntera ere joateko aukera ematen da. Kasu horretan, zordunak hasierako eskariari aurka egitekotan, hartzekodunak aurreneurritzko enbargo eskatzeko aukera izango du.

Ikus daitekeenez, agiri batzuetan nolabaiteko zor-aitortpena dago zordunaren aldetik; beste agiri batzuk, aldiz, hartzekodunak bakarrik sortuak dira.

Adierazi dugunez, epaileak agiria itxura juridiko onekoa den aztertu beharko du. Agiriak hartzekodunaren eskubidearen frogaz aztertu beharko du.

Agiriak aurkezteko moduari dagokionez, Tome Garcia egilearen iritziz, normalean, dokumentu pribatuak izango direnez, PZLren 268.1. artikulua dioena aintzat hartu beharko da; hau da, jatorrizkoa edo fede-emaile publikoak kautotutako kopia aurkeztu beharko da. Horrelakorik izan ezean, egile horrek dio dokumentu pribatuaren kopia sinplea aurkezteko aukera dagoela, baina kasu horretan, zordunak aurka egiteko arriskua handiagoa izango dela.

4.6. Eskumena

Eskumen objektiboaren aldetik, PZLk lehen auzialdiko epaileari aintzatesten dio eskumena (PZLren 813., I. art.). Lurralde-eskumena zehazteko, aldiz, hiru foru zehazten dira:

1. Zordunaren helbideko edo bizilekuko lehen auzialdiko epailea izango da eskuduna prozesu monitorioaz arduratzeko.
2. Zordunaren helbide edo bizilekua zein den ez bada jakiten, epaileak ordaintzeko errekerimendurako zorduna aurki dezakeen lekuko lehen auzialdiko epaileak izango du eskumena.
3. Hiri higiezin jabeek dituzten komunitate-gastu komunitako zorrak izanez gero, finka dagoen lekuko lehen auzialdiko epaitegiak ere eskumena izango du, eskatzailearen aukeran.

PZL 813., II. artikulua arabera, ez da posible epaitegi baten eskumenean berariazko jartzea edo jartze tazitua. Ondorioz, ezarritako lurralde-eskumenari buruzko arauak aginduzkoak dira.

Baina esan beharra dago, lurralde-eskumena zehazteko zordunaren helbidea nahiz bizilekua kontuan hartzeak hartzekodunari arazoak sor diezazkiokeela, leku hori eta bere egoitza dagoen lekua desberdinak direnean. Zordunaren helbide edo bizilekua ezagutzen ez bada, epaileak ordainketa eskatzeko zorduna aurki dezakeen lekuko lehen auzialdiko epaitegia izango da eskuduna, erreklamatzeko dena 812.2.2. artikulua zorra (higiezin jabeek dituzten komunitate-gastu komunitako zorrak) denean izan ezik; azken kasuan, finka dagoen lekuko epaitegia ere izango da eskuduna, eskatzailearen aukeran (PZLren 813., I. artikulua amaieran).

4.7. Hasierako eskaria

PZLren 814.1. artikulua esanetan, prozesu monitorioa hartzekodunaren eskariaren bitartez hasiko da. Ikus daitekeenez, legeak ez du demanda hitza erabili,

hartzekodunaren eskaria baizik. Izan ere, eskaria inprimaki edo formularioaren bitartez egiteko aukera dago (PZLren 814.1., II. art.).

Eskarian, zordunaren nortasuna, zordunaren eta hartzekodunaren helbidea edo bizilekua, edo aurki daitezkeen lekua zehazteaz gain, zorraren jatorria eta zenbatekoa adierazi beharko dira. Horrekin batera, PZLren 812. artikulua aurreikusitako agiriak aurkeztu beharko dira (PZLren 814.1. art.).

Legeak ez du eskaria arrazoitzea edo idatziz aurkeztea eskatzen, ezta demanda arrunterako ezarritako formalitaterik ere; legeak eskaria inprimaki edo formulario bidez aurkezteko aukera dagoela besterik ez du esaten. Hala eta guztiz ere, edukiaren aldetik, benetako demanda izan beharko du, edozein deklarazio-prozesu hasarazten duen idazki gisa (PZLren 399. eta 437. art.).

Eskaria egin baino lehen, hartzekodunak ez dio zordunari zorraren ordainketa notarialki edo pribatuki eskatu beharrik. Horrela, nolabait, prozesuz kanpo ordaintzeko, prozesua saihesteko eta zorraren munta zehatza jakiteko aukera kentzen zaio zordunari. Correa Delcasso egilearen ustez, aldez aurreko eskaera guztiz anomaloa den betekizuna da, Belgikan baino eskatzen ez dena. Izan ere, herrialde horretan porrot egin du prozesu monitorioak.

Eskariarekin betekizunekin jarraituz, eskaria aurkeztu ahal izateko, munta edozein izanda, ez da behar, ez abokaturik ez prokuradorerik, 900 euroko munta gainditu arren (PZL 814.2. art. 23.2.-1. eta 31.2.-1. artikuluekin lotuta).

Bestalde, eta legeak ez badio ere, abokatua eta prokuradorea ez dira beharrezkoak izango, ezta ordaintzeko errekerimendua (20 eguneko epea bukatu ondoren) exekuzio-titulu bihurtzeko eskaria egiteko ere. Alabaina, behin ordaintzeko errekerimendua egin ondoren, zordunak aurka egitekotan, abokatuak eta prokuradoreak sinatutako idazkiaren bitartez egingo du, arau orokorren arabera, munta kontuan harturik, beharrezkoa denean (PZLren 818.1., II. art.). Hau da, zorraren munta 900 eurotik gorakoa izanik, alderdiek

abokatuaren laguntzaz eta prokuradorearen ordezkapenaren bitartez jardun beharko dute. Beste alde batetik, zordunak aurka egin ezean, tituluaren exekuzio-faserako abokatuaren eta prokuradorearen esku-hartzea beharrezkoa izango da, baldin eta zorraren munta 900 eurotik gorakoa bada (PZL 539.1., II. art.).

Aurreikuspen horrekin, Espainiako legegileak Europako herrialde gehienek (Frantzia, Alemania, Austria eta Holanda, besteak beste) mantendutako bideari jarraitzen dio. Batzuen esanetan, eskaria betetzea hain erraza denez, ez da beharrezkoa laguntza teknikoa. Nolanahi ere, argi dago abokatuaren eta prokuradorearen esku-hartze beharrezkoa ez izateak arazoak ekar ditzakeela. Horrela gerta daiteke beren kabuz agertu eta defendatzeko beren burua gai ikusten ez duten pertsonekin. Azken finean, pertsona horiek profesionalen laguntza beharko dute; hainbatetan, gehiegizko ordainsariak ordaindu beharko dituzte munta gutxiko zorren ordainketa lortzeko. Ondorioz, hartzekodun batzuek, ordainketa lortzeko, auzitegietara jotzeari uko egitea ekar lezake; zorduna kostuak ordaintzera kondenatu arren, ez baitago prokuradorearen eta abokatuaren ordainsariak ordaintzera behartuta, beharrezkoak ez izateagatik.

Bukatu baino lehen, honako galdera hau sortzen da: hartzekodunak kautelazko neurririk eska dezake? Galderari erantzuteko JHLren 21. artikulura jo behar da (PZLren 1. Amaierako Xedapenarekin lotuta). Artikuluaren 5. atalak honako hau dio: “*Zordunak hasierako eskariari aurka egiten dionean, hartzekodunak ondasunen aurreneurritzko enbargoa eskatu ahal izango du...*”. Hau da, prozesu monitorioa epaiketa arrunt bihurtzen denean baino ezin izango da kautelazko neurririk eskatu. Beraz, kasu guztietan kautelazko neurriak hartzeko aukera balego, legeak ez luke kasu zehatz horretarako berriazko aurreikuspenik egin beharko. Gainera, ez da ahaztu behar prozesu monitorioaren xedea exekuzio-titulua sortzea dela, jarraian exekutatu dena, baldin eta zordunak ordaintzen ez badu. Horrela, prozesu monitorioaren bidez, exekuzioa berehala lortzen bada, epaileak ez luke kautelazko neurririk zertan onartu.

4.8. Eskariaren onarpena eta ordaintzeko errekerimendua

PZLren 815. artikulua prozesu monitorioaren atal garrantzitsuena arautzen du; hala ere, erregulazio eskasa eta interpretatzen zaila da.

Aipatutako artikulua dioenez, eskariarekin batera aurkezturiko agiriak 812.2. artikulua zehaztuetaoak izatekotan, epaileak automatikoki, probidentzia bidez, ordaintzeko agindeia emango du. Artikulua literalki interpretatuz gero, esan liteke epaileak ez duela agiri horiek aztertu beharrik. Dena dela, gomendagarria litzateke epaileak, edozein dokumentu izanda, azterketa egitea betiere.

Ordaintzeko agindeia eman baino lehen, epaileak agiria aztertu beharko du: alde batetik, PZLren 812. artikulua aipaturiko agirietariko bat dela, eta bestetik, munta 30.000 eurotik gorakoa ez dela egiaztatzeko. Azterketa horretan, epaileak eskatzailearen eskubidearen froga-hastapen bat aurkitu beharko du. Horrek ez du esan nahi agiriak eskatzailearen eskubidea edo zorra frogatu behar duenik, agiria ez baita froga gisan erabiltzen. Agiriak itxura juridiko onekoa izan beharko du, hots, zorraren existentziaren itxura eman beharko du. Ondorioz, agiria auresuposatu prozesala da, epaiketa monitorioa baldintzatzen duena. Epaileak azterketa formala egingo du, agiria eskatzailearen eskubidearen froga-hastapen bat ote den kontrolatzeko.

Legeak berariaz esaten ez duen arren, agirien azterketa formala egiteaz gain, epaileak bere lurralde-eskumena eta orden publikoari buruzko auresuposatuak (gaitasuna, adibidez) egiaztatu beharko ditu, eta kasua bada, akatsen konponketa eskatu.

Aipatutako gai guztiak aztertu ondoren, eskaria onartuz gero, epaileak probidentziaren bidez ordaintzeko agindeia emango du. Hau da, probidentziak edukitza bikoitza du: lehenik, eskaria izapidetzeko onartzea; eta bigarrenik, ordaintzeko agindeia egitea. Baina, eskaria onartzeko autoa eman beharko litzateke. Ondorioz, bi ebazpen desberdintzen dira: alde batetik, autoa (legeak aurreikusten ez duena), eskaria onartzeko, eskatzailearen eskubidearen froga-hastapena egoteagatik; eta bestetik, probidentzia, zordunari ordainketa errekeritzeko.

Halaber, froga-hastapenik aurkitu edo aurreuposatu prozesalak ez betetzeagatik, epaileak hartzekodunaren eskaria ukatzen duen kasuan ere, autoa eman beharko litzateke. Auto horrek eskaera ukatzeko zioak adierazi beharko lituzke.

PZLk probidentzia-ebazpen bakar bat aurreikusteak eragina du inpugnazioan; probidentziaren aurka berraztertze-errekurtsoa baino ezin baita jarri (PZLren 451. art.); autoaren aurka, aldiz, apelazioa (PZLren 455.1. art.) eta arau-hauste prozesalagatiko errekurtsoak ere jar litezke (PZLren 468-469. art.).

Bestalde, legeak ez du uzi monitorioaren ukapenaren ondorioei buruz deus esaten. Orduan, zein izango litzateke irtenbidea eskatzailearentzat uzi monitorioaren ukapenaren aurrean? Logikoena jurisdikzio arruntaren ildotik jotzea izango litzateke.

Dakigunez, agiriaren azterketa formala eta eskariaren onarpena lehen auzialdiko epailearen eskumena da. Zentzu horretan, aipatu beharra dago Alemanian idazkari judiziala arduratzen dela jardun horretaz. Beraz, PZLren onarpena momentu egokia izan zitekeen idazkari judizialaren eginkizunak gehitu eta indartzeko. Idazkariaren prestakuntza kontuan hartuz, hark arazorik gabe bidera lezake prozesu monitorioa, eta aldi berean, prozedura judizialak bizkortu.

Prozedurarekin jarraituz, eskariaren onarpenak probidentzia bidez ordaintzeko agindeia ematea dakar. Epaileak zordunari ordain dezala errekerituko dio (PZLren 815.1. art.). Hogei eguneko epea emango dio ordaintzeko eta auzitegiaren aurrean ziurtatzeko, edo auzitegiaren aurrean agertu eta aurka egiteko, zor osoa edo zati bat ez ordaintzeko dituen zioak idazki baten bidez alegatzen dituela (PZLren 815.1. art.).

Ordaintzeko agindeiaren jakinarazpenari dagokionez, PZLk 161. artikulura bidaltzen du (PZL 815.1.-2. art.). Hau da, ebazpenaren edo zedularen kopia entregatuko da. Baina, jakinarazteko era horrek arazoak ekar ditzake. Zorduna ez agertzearen ondorio larriak aintzat hartuta, legeak berme gehiago ezarri beharko lituzke, zordunak ordaintzeko agindeiaren berri duela egiaztatzeko, edo beste era batean esanda, egoki

jotzen duen jarrera (ordaintzea, agertzea eta aurka egitea, edo agertzea ziorik eman gabe) aukeratzeko askatasuna izan dezan. Horrela, egile batzuek esaten dute egokiena jakinarazpen pertsonala exijitzea izango litzatekeela.

Agindeiaren jakinarazpenarekin batera, zordunari ohartaraziko zaio ordaintzen ez badu, edo aurka egiteko auzitegian agertu ezean, exekuzioa aginduko dela. Kontuan hartu behar da aurka-egiterik eza dela, hain zuzen ere, exekuzio-tituluak sortzen duena.

Hiri higiezinaren jabeek dituzten komunitate-gastu komunen erreklamazioetan, komunitateari buruzko gaietarako jakinarazpenak eta zitazioak egiteko agindeia zordunak alde aurretik zehaztutako helbidean egingo da; zehapen hori egin ezean, etxebizitza edo lokalean; eta hori ere ezingo balitz egin, PZLren 164. artikulua arabera, ediktuen bidez (PZLren 815.2. art.).

4.9. Zordunaren jarrerak ordaintzeko agindeiaren aurrean

Behin zordunari ordaintzeko agindeia egin ondoren, hark honako jarrera hauek izan ditzake: ordaintzea; ez ordaintzea, ezta aurka egitea ere; eta azkenik, aurka egitea.

4.9.1. Zordunak ordaintzea

Zordunak ordaintzeko agindeia betetzekotan, ordaindu duela kreditatu bezain pronto, frogagiria emango zaio eta jardunak artxibatuko dira (PZLren 817. art.). Zordunak ordaintzeak prozesu monitorioari amaiera emango dio.

Legeak dioenaren arabera, zorra ordaindu ondoren, zordunak kreditatu egin behar du. Horrek ez dakar inolako arazorik, baldin eta zorraren munta auzitegian bertan kontsignatzen bada. Baina arazoak sor daitezke zordunak prozesuz kanpo ordaintzen duenean. Legeak ez du aukera horri buruz ezer aipatzen; hala eta guztiz ere, onartu beharko litzateke. Beraz, zordunak hartzekodunari zuzenean ordaintzen badio, teorikoki hark frogagiriren bat eman beharko lioke. Horregatik, banku-transferentziaren edo

posta-igorpenaren ordezkagiria ere ordainketaren frogabide moduan onartu beharko litzateke. Gainera, 20 eguneko epea amaitu ondoren, epaileak exekuzioa agindu badu, zordunak geldiaraz lezake, aipatutako ziurtagiria aurkeztu ondoren.

Ordaintzeko errekerimenduak berak ezarriko du ordaindu behar den zenbatekoa.

4.9.2. Zordunak ez ordaintzea

Hogei eguneko epean zordunak ordaindu ezean, eta ordaindu ez izanaren zioak alegatzeko epailearen aurrean agertzen ez bada, epaileak autoa emango du eta zor den muntagatik exekuzioa aginduko du (PZLren 816.1. art.). Legeak berariaz esaten ez duen arren, zorduna epailearen aurrean agertzeak eta aurka ez egiteak ondorio bera izango du, exekuzioaren agindua, alegia.

Gogoratu beharra dago prozesu monitorioaren xedea exekuzio-titulua sortzea dela. Hau da, hain zuzen, autoak egiten duena. Autoak exekuziozko bihurtzen du ordaintzeko agindeia, eta horretarako, hartzekodunak ez du exekuzioa eskatu beharrik.

Exekuzioa agintzen duen autoak deklaraziozko kondena-epaiak eragiten duen gauza epaituaren antzeko efektua izango du (legeak kontu honi buruzko aipamenik ere izan arren). PZLren 551.2. artikulua aintzat hartuta, auto horren kontra ezin da errekurtsorik jarri. Bestalde, hartzekodunak ezin izango du ondorengo prozesu arrunt batean prozesu monitorioaren bidez eskatu dena berriro erreklamatu; ezta zordunak itzuli ere (PZLren 816.2. art.). Hori dela eta, ukaezina da exekuzio-titulua sortzen duen autoak gauza juzgatuaren efektua duela.

Baina ezin da ahaztu aipaturiko autoak ondorio gehiago eragiten dituela. Izan ere, zorrak PZLren 576. artikulua aurreikusitako berandutzagatiko interesak sortzen hasten da autoa ematen den momentutik.

Exekuzioa kondena-epaia eman izan balitz bezala garatuko da (PZLren 549. eta hurrengo art.). Zordunak, bere aldetik, aurka egin diezaioke exekuzioari (PZLren 556. art.) eta aurka egiteko zioak titulu judizialen kasuetarako aurreikusitakoak izango dira.

Exekuzioan abokatuaren asistentzia eta prokuradorearen ordezkapena beharrezkoak izango dira, baldin eta munta 900 eurotik gorakoa bada (PZLren 539.1., II. art.). Gogoratu beharra dago hasierako eskaria egiteko ez dela beharrezkoa teknikari horien esku-hartzea; ondorioz, orain arte hartzekoduna haietaz baliatu ez bada, egiteko errekerituko zaio.

4.9.3. Zordunak aurka egitea

Lehen adierazi denez, ordaintzeko agindeia jasotzen duen momentutik, zordunak 20 eguneko epea izango du auzitegiaren aurrean agertu eta aurka egiteko, eta zor osoa edo zati bat ez ordaintzeko dituen zioak idazki baten bidez alegatzeko (PZLren 815.1. art.). Beraz, ulertu beharra dago aurka-egitea erabatekoa edo partziala izan daitekeela.

Zordunak epe barruan aurka eginez gero, auzia egokia den epaiketa arruntean ebatziko da; eta epaiketa horretan ematen den epaiak gauza juzgatuaren ondorioa izango du (PZLren 818.1. art.). Hori dela eta, zordunak aurka eginez gero, prozesu monitorioak prozesu berezia izateari uzten dio, prozesu arrunt bihurtzeko. Lehen azaldu denez, aurka egiteak prozesu monitorioaren izaera aldatzea dakar. Hemendik aurrera, benetako eztabaida prozesala, kontraesana hasten da.

Aurka egiteko idazkiak abokatuak eta prokuradoreak sinatua egon beharko du, baldin eta beraien esku-hartzea, munta dela eta, beharrezkoa bada (PZLren 818.1., II. art.).

PZLk ez du aurka egiteko zioei buruz ezer aipatzen. Hasiera batean, legeak ez du oztoporik jartzen deklarazio-prozesuetan aurkez daitezkeen salbuespen prozesal eta

material oro alegatzeko: dela auresuposatu prozesalik eza, dela eskumenik eza, dela aldez aurreko ordainketa, etab.

Baina baliteke zordunak aurka egitean, inolako oinarririk ez izatea, hau da, aurka egiteko ziorik ez alegatzea. Legeak ez du deus esaten; orduan, zein izango litzateke irtenbidea? Kasu horretan, epaileak exekuzioa agintzeko autoa eman beharko luke, ez agertzea (PZLren 816.1. art.) eta ziorik eman gabe aurka egitea parekoak izango bailitzateke. Horretaz gain, PZLren 815.1. artikulua berak berariaz dio epaitegiaren aurrean agertuko dela eta labur alegatuko dituela, bere iritzian, erreklamaturako zenbateko osoa edo zati bat ez ordaintzeko dituen zioak. Beraz, ziorik eman ezean, agertu ez balitz bezala jokatu beharko litzateke.

Bestalde, aurka-egiteari ez dagozkion jarrerak izatea ere posible litzateke. Esate baterako, zordunak errekonbentzioa aurkezten duenean aurka egiteko orduan. Epaileak inoiz ezin izango luke errekonbentzioa onartu, prozesu monitorioa exekuzio-titulua sortzeko aurreikusita baitago. Gainera, errekonbentzioa demandari erantzuteko idazkian aurkezten da (PZLren 406.1. art.), eta prozesu monitorioan ez dago horrelakorik.

PZLren 818.1. III. artikulua ezartzen duen arau berezia aztertuko da ondoren. Zordunak erreklamatu zaion zorraren zati bati bakarrik aurka eginez gero (pluseskaera kasua), amore-emate partzialtzat hartuko da. Izan ere, amore emandako muntari dagokionez, legeak PZLren 21. eta hurrengo artikuluetara bidaltzen du. Ondorioz, hartzekodunak amore-ematearen objektua izandako uziak ontzat hartzeko autoa emateko eskatuko dio epaileari. Hori exekuzio-titulu gisa hartuko da. Bestetik, aurka egin dion muntari dagokionez, jarraian adierazten den bezala jardungo da (aurka-egitea mantenduko da).

Orain arte esan dugunaren arabera, benetako aurka-egitea izateko, zordunak zor osoa edo zati bat ez ordaintzeko benetako zioak alegatu beharko ditu; hots, ez ordaintzeko justifikazioa eman beharko du, epaileak exekuzioa agintzen duen autorik ez emateko.

Horrela, lehen adierazi denez, prozesu monitorioak berezia izateari utziko dio, eta muntarengatik egokia den judiziotik ebatziko da auzia.

Ondoren aztertuko dira PZLren 818.2. artikulua aurreikusitako bi aukerak:

1. Uziaren munta hitzezko epaiketarena baino handiagoa ez bada, epaileak ikustaldirako deia egingo du berehala (PZLren 818.2. art). Hau da, uziaren munta 3.000 eurotik gorakoa ez bada (PZLren 250.2. art.), hitzezko epaiketa da egokia. Epaileak ikustaldirako deia egingo du eta hortik aurrera, epaiketa horren izapideen ildotik joko da.
2. Uziaren munta 3.000 eurotik gorakoa bada, aurka-egite idazkia helaraziko zaio hartzekodunari, hilabeteko epean demanda arrunta aurkeztu ahal izateko (PZLren 818.2. art.). Hartzekodunak epe barruan demanda aurkeztuz gero, demandatuari helaraziko zaio, hark 20 eguneko epean demandari erantzun diezaion, eta epaiketa arruntaren ildotik joko da. PZLren 818.2. *in fine* artikulua PZLren 404. eta hurrengo artikuluetara bidaltzen du. Baina, ematen zaion 30 eguneko epe barruan hartzekodunak demanda aurkeztu ezean, jardunak largetsi eta kostuak ordaintzera kondenatuko zaio; hots, atzera egin duela ulertzen da. Kostuak ordaintzeko kondena zentzuzkoa da, hartzekoduna bera (orain atzera egiten duena) izan baita prozesu monitorioa sustatu duena. Horretaz gain, ez da ahaztu behar, zorra 3.000 eurotik gorakoa izateagatik abokatu eta prokuradorearen esku-hartzea aginduzkoa denez, tekniko horien ordainsariak ere kostuetan sartu beharko direla.

Kasu batean zein bestean, gauza juzgatuaren ondorioa duen epaiaren bitartez amaituko da epaiketa. Legeak ez du horrelakorik aipatzen, baina hala ondorioztatzen da PZLren XIX., 8. Zioen Adierazpenetik: legeak deklaraziozko, arrunt eta plenarioa den prozesua hartzen du; beraz, gauza juzgatuaren ondorioa duen epaiaren bidez amaitzera bideratuta dago.

Bukatzeko, froga-zama eta kautelazko neurrien kontuak aztertuko dira. Zordunak aurka egin eta behin egokia den epaiketa arrunta hasi ondoren, nori dagokio froga-

zama? Legeak ez du deus esaten. Printzipioz esan liteke hartzekodunari dagokiola frogatu beharra. Hark ez du bere uziaren elementu eratzailerik frogatu, baizik eta hasierako eskariarekin batera, froga-hastapen bat besterik ez du aurkeztu. Orain arte ez du ezer frogatu; ondorioz, orain bere uziaren oinarria frogatu behar luke.

Kautelazko neurriei dagokienez, behin zordunak aurka egin ondoren, hartzekodunak ondasunen aurreneurritzko enbargoa eska lezake (PZLren 721. eta hurrengo art.). Lehen esan da ez dagoela hasierako eskarian kautelazko neurririk eskatzerik; dena den, posible izango litzateke baldin eta zordunak aurka egiten baldin badu, prozesu monitorioa prozesu arrunt bihurtzen baita.

4.10. Berezitasunak jabetza horizontalaren gaitan

Jadanik azaldu denez, prozesu monitorioak berezitasunak ditu, bere helburua gastu komunak ez ordaintzeagatik hiri higiezinaren jabeen zorra erreklamatzeko denean. Kapitulu honetan, jabetza horizontalaren gaitan prozesu monitorioak dituen berezitasun batzuk azaldu arren (dokumentuari buruzkoak, lurralde-eskumenari buruzkoak,...), azken puntuan Jabetza Horizontalaren Legearen 21. artikulua jasotzen dituenak aztertuko dira.

Horrelako zorrak prozesu monitorioaren bitartez eskatu ahal izateko, beharrezkoa izango da jabeen biltzarraren alde aurretiko akordioaren egiaztatzea. Biltzar horretan komunitatearekiko zorraren likidazioa onartuko behar da, presidentearen oniritziarekin, eta eragina duen jabeekideei notifikatuko zaie, JHLren arauekin bat. Biltzar horren egiaztatzea hasierako eskariarekin batera aurkeztuko da.

Gainera, erreklamatzeko den munta nagusiari gehituko zaizkio alde aurreko ordainketarako agindeiaren gastuak, baldin eta berau egin zela dokumentu bidez egiaztatzen bada, eta gastu horien frogagiria aurkeztzen bada.

Hasiera batean, prozesua hasteko legitimazioa presidenteari dagokio (komunitatearen ordezkaria baita), baina administratzailea ere legitimatuta egongo da, jabeen biltzarrak hala erabakitzen badu.

Baina noren aurka zuzentzen da eskaria?, nori dagokio legitimazio pasiboa? Hasierako eskaria etxebizitzaren edo lokalaren aurreko jabearen kontra aurkez daiteke, JHLren arabera hark oraingo jabearekin solidarioki erantzun behar duenean. Hala ere, aurreko jabeak oraingoaren kontra errepikatzeko aukera izango du. Era berean, eskaria erregistroaren tituludunaren aurka zuzen daiteke; eta hark, aurreko kasuan bezala, errepikatzeko eskubidea izango du. Amaitzeko, eskaria obligaziodun guztien aurka batera edo batzuen aurka bakarrik zuzen daiteke.

Jakina, kostuak zordunaren kontura izango dira eta horietan sartuko dira abokatuaren ordainsariak eta prokuradorearen eskubideak, nahiz eta haien esku-hartzea beharrezkoa ez izan.

5. KAPITULUA: KANBIO-EPAIKETA EDO JUDIZIOA

5.1. Sarrera. 5.2. Truke-letra: kanbio-epaiketaren derrigorrezko betekizuna. 5.3. Kanbio-epaiketaz arduratzeko eskumena. 5.4. Aurka-egiterik gabeko kanbio-epaiketa. 5.4.1. Lerro nagusiak. 5.4.2. Demanda eta bere onarpena. 5.4.3. Ordaintzeko agindeia eta bahitura. 5.4.4. Betearazpena agintzen duen autoa. 5.5. Kanbio-epaiketari aurka egiteko demanda jartzea eta bere ondorioak. 5.5.1. Sarrera. 5.5.2. Aurka-egite kanbiarioa izapidetzea. 5.5.3. Aurka egiteko arrazoiak. 5.5.3.1. Aurka-egiteko arrazoi prozesalak. 5.5.3.2. Aurka egiteko arrazoi materialak. 5.6. Demandatuaren jarrerak ordainketa-agindeia jasotzean. 5.6.1. Zordunak zorra berdintzen duenean. 5.6.2. Zordunak zorra berdintzen ez duenean. 5.6.3. Zordunak kopurua zaintzapean utzi eta aurka egiten duenean. 5.6.4. Zordunak ordaindu eta aurka egiten duenean. 5.7. Kanbio-legeak ezarritako solidaritate-erregimenaren garrantzia prozesuan. 5.8. Aurka-egitea ebazten duen sententzia.

5.1. Sarrera

Truke-letra titulu betearazletzat jo izan da aspalditik. Zehazki, azkenaldian, horrela ulertu da *Novísima Recopilación* delakotik (XI., III., 7.) aurreko PZL arte (1429.4. art.). Baina errealitate hori egun indarrean dagoen PZLk aldatu du. Gaur egun truke-letrak ez dira titulu betearazleak espainiar ordenamendu juridikoan, ezta txekeak eta ordaindukoak edo zor-agiriak ere. Zein da aldaketa horren arrazoa? Jakina denez, 2000. urteko PZLk betearazpen-batasuna aldarrikatzen du: betearazi daitezkeen titulu guztiak, epaileek emanikoak izan edo ez, era berean betearazten dira. Ez da horrela izan 1855eko PZLtik erritu zibila arautzen duen azken legera arte. Denbora tarte horretan, legelariak betearazpen bi sistema arautu ditu: bat, epaileek emandako tituluentzat (sententziak) eta beste bat, bestelako betearazpen-tituluentzat (truke-letra bereziki). Bigarrenek betearazpen-epaiketari betearazten ziren. Betearazpen-epaiketa desagertu egin da PZLn, ziur asko truke-letrak (eta baita txekeak eta ordaindukoak) beren benetakotasuna ziurtatzeko izan duten bermerik eza dela eta. Horregatik, egun, truke-letren gailan, kanbio-epaiketaz mintzatu behar da.

5.2. Truke-letra: kanbio-epaiketaren derrigorrezko betekizuna

PZL oso argia da bere 819. artikuluan. Kanbio-epaiketa bakarrik eman ahalko da, hari hasiera ematean Kanbio-agirien eta Txekearen Legean (uztailaren 16ko 19/1985 legea) aurreikusten diren betekizunak betetzen dituen truke-letra, txeke edo ordaindukoa aurkezten bada. Are gehiago, PZLk berak dioenez, auzitegiak auto bidez kanbio-tituluaren egokitasun formala aztertuko du (PZLren 821.2. art.). Horrekin, legegileak epaiketa horretan kanbio-uziak, hau da, truke-letra bera oinarritzat dutenak jarri behar direla adierazi nahi du. Beraz, ezin daiteke jarri epaiketa honetan uzi kausalik, truke-letra beretik desberdina den bestelako harreman juridikoan oinarritutakorik.

Kanbio-uziak diru-zenbateko bati egingo dio erreferentzia, eta betebeharrak, oro har, mugaeguneratuta egon behar badu ere, posible da atzerabidezko kanbio-uzia mugaeguna baino lehen jartzea, igorlearen, endosatzaileen eta gainerako behartuen kontra.

5.3. Kanbio epaiketaz arduratzeko eskumena

Epaiketa honetaz arduratzeko eskumen objektiboa lehen auzialdiko epaitegiek bakarrik dute. Lurralde-eskumena, aldiz, demandatuaren helbideko epaitegiari aintzatesten zaio. Azken horri dagokionez, bi ñabardura egin behar dira. Batetik, truke-letraren edukitzaileak titulu beretik sortutako zordun bat baino gehiago demandatzen dituenean, auzi-jartzaileak horietako edozeinen helbidean jar dezake demanda, auzitegi horri lurralde-eskumena egotzita. Bestetik, lurralde-eskumen hori derrigorrezkoa da (880.III art.). Zioz, epaileak bere eskumena ofizioz kontrolatu behar du demanda onartzeko momentuan (PZLren 58. art.) eta ezin daiteke ez esanbidezko ez isilbidezko sumisiorik izan.

5.4. Aurka-egiterik gabeko kanbio-epaiketa

5.4.1. Lerro nagusiak

Betearazi behar den betebeharra dokumentu batean jasotzen dela kontuan hartuta, legegileak kanbio-epaiketaren xede nagusitzat lehenbailehen betearazpena agintzen duen auto bat lortzea jotzen du. Izan ere, praktikan, truke-letran oinarritutako demanda bat jartzean, demandatua gehienetan ez da aurka agertzen ordainketa eskatzen zaionean, eta epaileak zuzenean galdatutako zenbatekoan betearazpena agintzen du. Beraz, demandatuaren oposizioa agertzen ez denean, demandari ordainketa-agindeiak darraio.

Ondoren, betearazpen-prozesuaren pausoak egingo dira. Banan-banan aztertuko dira ondoren.

5.4.2. Demanda eta bere onarpena

Edozein prozesu bezala, kanbio-epaiketa demanda bidez hasten da. Zehazki, PZLren 821.1. artikuluan kanbio-epaiketa “demanda labur” baten bitartez hasiko dela irakur daiteke. Valentziako eskolako egileekin bat puntu honetan, legelariaren oker bat identifikatu da. Demanda laburra (“demanda sucinta”, gaztelaniaz) hitzezko epaiketari hasiera ematen diona da (PZLren 437.1. art.), eta bere ezaugarri nagusia da uzia ez duela bere osotasunean jasotzen. Uzi hori ikustaldian osatzen da. Baina kanbio-epaiketan demandak uzia bere osotasunean jaso behar du; horregatik, demanda ez da laburra, motza (“demanda breve”, gaztelaniaz) baizik. Izan ere, kanbio-epaiketari hasiera ematen dion demandak epaiketa arruntari hasiera ematen dion demandak bete beharreko betekizun subjektiboak betetzeaz gain, oinarritua izan eta eskaera jaso behar baitu. Hirurak azalduko dira ondoren.

Demandaren betekizun subjektiboak dagokienez, arduratu behar duen auzitegia zehazteaz gain, alderdiak identifikatu behar ditu. Abokatuaren eta prokuradorearen laguntza derrigorrezkoa dute.

Gainera, demanda oinarritu egin behar da, oinarri hori demandatea truke-letraren edukizailea dela esatera muga badaiteke ere. Truke-letrak jasotzen ditu demandanteak adierazi beharreko egitate eratzailak.

Azkenik, kanbio-epaiketari hasiera ematen dion demandak jasotzen duen eskaera prozesala da. Epaitegiari ez zaio kondenazko adierazpen bat eskatzen. Demandatuari ordainketa galdatzeko, bahitura egiteko eta, dagokionean, zorraren zenbatekoan betearazpena agintzen duen autoa emateko besterik ez zaio eskatzen.

Logikoki, demanda horri truke-letra edo kanbio-titulua gaineratuko zaio.

Demanda aurkeztu ondoren, nahiz eta PZLk berariaz ez xedatu, auzitegiak demanda onartu edo ez erabaki beharko du. Horretarako, bere jurisdikzioa eta eskumena egiaztatu (PZLren 38., 48. eta 58. artikulua) eta kanbio-tituluaren egokitasun formala aztertuko du (PZLren 821.2. art.). Auto batean bere erabakia (demanda onartu edo ez) adieraziko du. Jurisdikziorik edo eskumenik eza alegatu ondoren ez badu demanda onartzen, auto horren kontrako gora-jotzea jar daiteke (PZLren 207.1. eta 455. artikulua). Aldiz, demanda ez onartzea kanbio-tituluaren desegokitasun formalean oinarritzen bada, lehenengo birjartzea aurkeztu ahal izango da autoaren kontra, eta ondoren, gora-jotzea. Posible da gora-jotzea zuzenean jartzea (PZLren 552.2. eta 821.2. artikulua).

Auzitegiak demanda onartzen badu, auto berean, zordunari, 10 eguneko epean ordaintzeko eskatuko dio, eta haren ondasunen prebentziozko bahitura aginduko du, zorraren zenbatekoan ordainketa egiten ez den kasurako (PZLren 821.2. art.). Hurrengo idazpuruetan aztertuko dira.

5.4.3. Ordaintzeko agindeia eta bahitura

Esan den bezala, auzitegiak demanda onartzen badu, berehala, onarpen-auto horretan, ordainketa egiteko eskatuko dio zordunari. Agindei horren aurrean, demandatuak ordaintzea erabakitzen badu, dirua epaitegiko kontsignazio- eta gordailu-kontuan jarriko du. Orduan, epaileak kanbio-titulua emango dio demandatuari, egindako ordainketaren ziurtagiri gisa, eta demandanteari, dirua. Horrekin, kanbio-prozesua bukatutzat joko da.

Baina kanbio-epaiketari hasiera ematen dion demanda onartzean, epaileak, auto berean, demandatuak zorra ordaintzen ez duen kasurako, haren ondasunen prebentziozko bahitura aginduko du. Autoan epaileak bahituraren zenbatekoa adierazi behar du. Kanbio-tituluaren muntaz gain, berandutza-interesak eta kostuak hartuko ditu aintzakotzat.

Legelariak egiten duen arautzean zalantza bat sortzen da: ordainketa-agindeia berehalakoa ez bada, hau da, zordunari ordaintzeko 10 eguneko epea ematen bazaio (PZLren 821.2.1. art.), zergatik agintzen du autoak prebentziozko berehalako bahitura? Hori ikusirik, bahitura hori automatikoa dela mantendu beharra dago, nahiz eta

zordunak epaitegiari, kasuan kasuko ingurumariak alegatuz, bahitura bertan behera uztea eska badiezaioke ere.

5.4.4. Betearazpena agintzen duen autoa

Demandatuari, zordunari alegia, ordaintzeko eskatzen zaionean, hamar eguneko epean ordaintzen ez badu eta aurka egiteko demanda jartzen ez badu, epaileak betearazpena aginduz, autoa emanen du. Auto horrek legeak galdatzen dizkion betekizunak bete beharko ditu (PZLren 553. art.). Betearazpen horren zenbatekoak, aurretik esan bezala, kanbio-tituluaren muntaz gain, berandutza-interesak eta kostuak hartuko ditu barne.

Exekuzioa PZLk exekuzioetarako aurreikusten duen araudiarekin bat egingo da (jakinarazpena, bahitura,...) (PZLren 825. II. art.); exekuzio-titulua kanbio-titulua bera izanen da, eta epaitegiak demandatua kondenatuko du, bestelako erabakirik eman ez baitu.

Demandatuak badu exekuzio horren aurka agertzerik. Hurrengo lerroetan aztertuko diren balizko egoerak izango lirateke.

5.5. Kanbio-epaiketari aurka egiteko demanda jartzea eta bere ondorioak

5.5.1. Sarrera

Kanbio-epaiketari sarrera txiki bat egin ondoren eta ezaugarri nagusiak oro har eta azaletik azertu ondoren, aurka-jartze kanbiarioa aztertuko da orain.

Prozedura Zibilaren Legeak aurka-jartze kanbiarioa 824. eta hurrengo artikuluetan arautzen du. Era berean, kanbio-epaiketaren aurka-jartzea PZLren 824. artikulua lehengo atalean agertzen da. Artikulu horrek azaltzen du zordunak kanbio-epaiketari aurka egiteko demanda jar dezakeela, ordainketa-agindeia egin eta hurrengo hamar egunetan.

Aurka-jartze kanbentarioaren barruan honako puntu hauek aztertuko dira.

- aurka-egite kanbentarioa izapidetzea
- aurka-egiteko zioak
- demandatuak ordainketa-agindeiaren aurrean har litzakeen posizioak
- Kanbio-agirien Legeak ezarritako solidaritate-erregimenaren garrantzi prozesala
- Aurka-egitea ebazten duen sententzia.

5.5.2. Aurka-egite kanbentarioa izapidetzea

Adierazpen-prozesuak demandaz eta demandaren erantzunez erregulatzen dira. Kanbio-epaiketa, aldiz, ez da demandaz ez erantzunez erregulatzen, baizik eta lehenengo demanda aurkezten da, gero zordunari jakinarazi eta, hirugarrenik, ordainketa-agindeia egiten zaio. Ordaintzeko eskaintzen zaion epearen barruan zordunak kanbio-judizioari aurka egiteko demanda jar dezake.

Eskema hori, prozesu betearazlearena bezalakoa da, eta gaur egun kanbio-epaiketa demanda eta erantzunaz erregulatzen ez bada, lehen egoten zen eta prozesu betearazlearen betearazpen-epaiketarik da. Nahiz eta kanbio-epaiketa betearazpen-epaiketa legez erregulatu, prozesu horren izaera ez dago argi eta garbi finkatuta.

Zordunak kanbio-judizioari aurka egin diezaioke ordainketa-agindeia egin eta hurrengo hamar egunetan. Aurka-egitea demanda bidez egiten da eta horrek dakar PZLren 399. artikulua ezartzen dituen demandarako baldintzak bete behar izatea.

Zordunak aurka egiten duenean, bere egiten du demandatzailearen egoera prozesala eta beste alderdia demandatu bihurtzen du. Egoera prozesal horrek garrantzi izugarria du, teoriarik zein praktikan, aurka egiten duen zordunak demandatzailearenak berarenak

diren karga guztiak eskuratzen baititu, gertaeren zein frogaren alegazioari dagokionez. Demanda bidez aurka-egite hutsak alderdiek duten rolen alderanzketa eragiten du.

Eskaeraren oinarria kanbio-agiria da eta aurkezten duenak ez du ezer gehiagorik alegatu behar. Zordunak zer edo zer alegatu nahi badu, berari dagokio alegatzeko eta probatzeko karga. Hortaz, kanbio-epaiketa egiteko hasierako demanda jartzen duenak kanbio-agirian (hasierako idazkiarekin batera aurkeztu behar den agiria) inplizituak diren eratzeko egintzak baieztatzen ditu. Zordunak ez badio kanbio-epaiketari aurka egiten, ez dauka zertan ezein egintza alegatu edo probatu betearazpena agintzeko. Zordunak aurka egiten badio, oinarritzea eta probaren karga bere gain hartuko ditu.

Jarraian, PZLren 440.1. artikuluari helduz, hartzekodunari aurka-egite demanda helarazten zaio eta, une berean, ikustaldira deitzen zaio. Ikustaldia ahozko epaiketarako araututakoaren arabera egingo da (PZLren 826. eta 443. artikulua). Alderdiak ikustaldira bertaratzen ez badira, eraginak honako hauek izango dira:

- A) *Zorduna bertaratzen ez bada:* auzitegiak ulertuko du aurka-egitean atzera egin duela eta betearazpena agintzen duen autoa emango du.
- B) *Hartzekoduna bertaratzen ez bada:* PZLren 826. artikulua dio auzitegiak aurka-jartzeari buruz ebazpena emango duela, hartzekodunari entzun gabe. Hau da, epaiketak aurrera egingo du (alderdiak ikustaldian ez agertzea arautzen duen PZLren 442. artikulua analogiaz), eta zordunak, demandatzaile bihurtuta, berak esandako egintzak frogatu beharko ditu. Geroago, auzitegiak dagokion epaia emango du.

5.5.3. Aurka egiteko arrazoiak

Aurka egiteko arrazoiak PZLren 824.2. artikuluan bilduta daude eta bertan Kanbio-agirien eta Txekearen Legearen 67. artikulura bidaltze-oharra egiten da. Horren arabera, kanbio-zordunak letraren, txekearen edo ordaindukoaren ukandunari aurka egin

diezazkioke Kanbio-agirien eta Txekearen Legearen 67. artikuluan aurka egiteko ezarritako arrazoi edo zio guztiak.

Aurka egin daitezkeen salbuespenei begiratuz gero, salbuespen prozesalik, hau da, prozesuaren betebeharrak eta oinarriari dagokienik ez dagoela ikusiko da. Kanbio-agirien eta Txekearen Legearen 67. artikulua salbuespen materialak baino ez ditu aipatzen, harreman juridikoak kausazkoak zein kanbiarioak direnean gertatzen direnak, hain zuzen ere. Baina horrek ez du kentzen salbuespen prozesalik alegatzeko aukera, edozein prozesutan eraketa baliozkoa izan denentz eztabaidatu ahal izatea ezinbestekoa baita.

Salbuespenen izaerari dagokionez, mota bat baino gehiago dagoela azpimarratu behar da:

- salbuespen prozesalak eta
- salbuespen materialak

Horrela, kanbio-letran, txekean edo ordaindukoan beharrezko formalitaterik eza da salbuespen prozesal eta materiala batera. Prozesala, kasu honetan balio-titulurik ez dagoelako, eta, orduan, kanbio-epaiketa egon dadin behar den oinarri prozesalik ez delako gauzatzen. Salbuespen materiala ere izan daiteke, harreman juridiko kanbiarioa (agiri bati betebeharrak bat atxiki izana, hain zuzen ere) baztertzen baita.

Beraz, jarrera biak egokiak direla aitortu behar da, eta bata ala bestea aukeratzea erabiliko den ikuspuntuaren arabera aldatuko da. Alde batetik, prozesuaren ikuspuntutik begiratuta, prozesu berezia da eta betebeharrak zehatz batzuk beteko dituen agiria egotearen menpe dago. Bestetik, ikuspuntu materialetik, aldiz, harreman juridiko kanbiarioa bera ukatzen da.

Azaldutakoa kontuan izanik, hortaz, aurka egiteko bi arrazoi mota daude: arrazoi prozesalak eta arrazoi materialak. Biak aztertuko dira ondoren, lehenengoetatik hasita.

5.5.3.1. Aurka egiteko arrazoi prozesalak

Aurka egiteko arrazoiak prozesalak izango dira zordunak (hau da, aurka-jartzean demandatzailea) oinarri prozesal baten eza alegatu edo arau prozesal baten babespean, Kanbio-agirien eta Txekearen Legean aurreikusita egon gabe ere, alegazioa egiten duenean .

Ezin dira jurisdikzioari nahiz eskumenari buruzko gaiak salbuespentzat hartu, ezta auziak ebazpenari men egitea ere, haien alegatzeko bidea deklinatoria da eta.

Aurkez daitezkeen aurka egiteko arrazoiak honako hiru hauek dira:

1. Hartzekodunaren edo bere prokuradorearen nortasunik eza
2. Zordunak egotzi zaion izaera edo ordezkaritza ez izatea.
3. Prozesua izapidetzeko akats formalak egotea.

Lehenengoari dagokionez, hartzekodunaren edo bere prokuradorearen nortasunik eza oso zentzu zabala duela esan beharra dago. Horrela, gai bat baino gehiago aipatu behar da:

- Hartzekodunaren gaitasunik eza
- Hartzekodunak benetan ez duela prozesuan aritzeko berak esandako ordezkaritarik (ahalordeari dagokion guztia: izatea, legalitatea eta nahikotasuna).
- Eskubidean ondorengotza egiaztatu ez bada: hartzekoduna ez da tituluari agertzen baina kausatzailearen jaraunsle bakarra da.
- Oro har, prokuradorearen ordezkaritza prozesalari dagokion guztia.

Aurka egiteko bigarren arrazoi prozesalari dagokionez, hartzekodunak benetan ez duenean prozesuan aritzeko esandako ordezkariarik, zordunak puntu hori alegatu ahal izango du. Izan ere, demandan egozten zaion izaera edo ordezkariarik ez duela alega dezake. Baina, kasu horretan, demanda ordezkatuaren kontra, eta ez ordezkariaren kontra, aurkeztu behar da. Kontua ez da ez duela harreman juridiko kanbarioa onartzeko ordezkariarik, baizik eta ez duela demandan egozten zaion ordezkariarik.

Aurka egiteko arrazoi prozesalen atala amaitzeko, prozesua izapidetzeko akats formalak egotea arrazoi prozesala dela esan behar da. Kasu horretan, zordunak izapidetu denaren deuseztasuna alega dezake, emandako ebazpenen aurka litezkeen errekurtsoak aurkeztea zilegia dela ukatu barik.

5.5.3.1. Aurka egiteko arrazoi materialak

Aurka egiteko arrazoi material bat alegatzen denean, funtsezko arauen ezarpenean arreta jartzen da. Kanbio-salbuespen materialen artean, aurka egiteko arrazoi kanbarioak eta kanbarioak ez direnak ezberdindu dira.

Kanbio-salbuespenak kanbio-betebeharrei dagozkie, hau da, kanbio-agiria sortzeari eta zirkulatzeari. Kanbarioak ez diren aurka-egiteak, berriz, kausazko erlazio juridikoari dagozkio, hots, betebeharra izateari, agiri bati atxikirik joan edo ez joan.

5.5.3.2.1. Kanbio-salbuespenak

Kanbio-salbuespenen artean, lau salbuespen ezberdinu behar dira:

- A) Kanbio-letra, txeke edo ordaindukoaren beharrezko formalitaterik eza, Kanbio-agirien eta Txekearen Legean ezarrita dagoenari jarraituz.

- B) Ukandunaren legitimaziorik eza
- C) Kanbio-deklaraziorik ez egotea edo, balego, baliozkoa ez izatea, sinaduraren faltsutasuna barne.
- D) Kanbio-kreditua azkentzea.

Kanbiarioak ez diren aurka-egiteetan, zordunak kanbio-letraren ukandunari berarenganako harreman pertsonaletan oinarrituriko salbuespenei aurka egin diezaieke.

Lehenengoz, kanbio-salbuespenak aztertzeari ekingo zaio. Horretarako kontuan hartuko den sailkapen-irizpidea Kanbio-agirien eta Txekearen Legean eskaintzen den bera izango da.

Erabil litezkeen sailkapen-irizpide anitz badaude ere, Kanbio-agirien eta Txekearen Legeak biltzen duena argiena da. Hala eta guztiz ere, salbuespen materialak ezin sailka daitezke. Zordunak alegatuko duen egintzaren izaera aipatuz, kanbio-epaiketako prozesuan, zordunak demandatzailearen rola hartzen du eta, horregatik, ez da nahikoa izaten hartzekodunak adierazi dituen eratze-egintzak ukatzea.

Horretaz gain, hartzekodunak adierazi dituen eratze-egintzak bere eskaera eratzeko izaten dira. Bere aurka betearazpenik ez agintzeko eskaera, hain zuzen ere.

Hala ere, abstraktuki, egintzak galarazleak (sinaduraren faltsutasuna), iraungitzaileak (ordainketa) zein baztertzailak (preskripzioa) izan daitezke, bai prozesuan bai aurka egiteko demandan. Horrela bada, zordunak egintza horiek alegatzen baditu, eratze-egintzak izango dira eta berari probatzea egokituko zaio.

Zordunak alega dezakeen lehenengo kanbio-salbuespena da kanbio-letran, txekean zein ordaindukoan beharrezkoak izaten diren derrigorrezko formalitaterik eza, betiere Kanbio-agirien eta Txekearen Legean ezarritakoa kontuan izanik.

Salbuespen horretan hainbat gauza alega daitezke, hala nola, hartzekodunak ez duela aurkeztu kanbio-agiria demandarekin batera; kanbio-agiria egon arren, ez duela Kanbio-agirien eta Txekiearen Legeak eskatzen dituen betebeharrak: letraren igorlearen edo hartzailearen izenik ez dagoela, edo igorpenaren data nahiz lekua falta dela, edo igorlearen sinadurarik ez dagoela, edo ordainketaren lekua edo tinbrea falta dela.

Ezin da ahaztu betebeharren bat falta duen agiria ezin dela kanbio-letra, txeke edo ordaindukotzat hartu (Kanbio-agirien eta Txekiearen Legearen 2., 95., edo 107. artikulua). Zordunaren arabera, betebeharren bat ez betetzea adierazi duen eratzegintza da eta ez da nahikoa hartzekodunak adierazi duen eratzegintza ukatzea. Funtsatu eta frogatu beharko du.

Zordunak alega dezakeen eta gorago aipatu den bigarren albuespena edukitzailearen legitimaziorik eza litzateke. Kasu horretan, legitimazioa kanbio-letraren legezko titulartasuna da. Legitimazio horrek bi gauza eskatzen ditu: alde batetik, balio-titulua edukitzea, hau da edukitze materiala, eta, bestetik, bere aldeko kanbio-eskualdatzea, edukitzailearen alde betetako endosua.

Hirugarren albuespena kanbio-deklaraziorik ez egotea izango litzateke edo, balego, baliozkoa ez izatea (sinaduraren faltsutasuna barne). Sinaduraren faltsutasuna, normalean, beste baten izenean letra onartu duen pertsonaren ordezkariarik ezari dagokio, nahiz eta baliteke gaitasun prozesalik eza ere alegatzea (Kanbio-agirien eta Txekiearen Legearen 9. eta 19. artikuluek ezartzen dutena ahaztu gabe). Sinaduraren faltsutasuna alegatzeak, egintza eztabaidagarria den, probatzearen karga atzera ere zordunari, eta ez hartzekodunari, egokiarazten dio, aurka egitean, zordunak demandatzailearen jarrera hartzen baitu prozesuan.

Azkenik, zordunak alega dezakeen laugarren kanbio-albuespena kanbio-kredituaren azkentzea da. Horrela, ordainketa, pluspetizioa (hau da, zati baten ordainketa) eta preskripzioa aipatu behar dira, zordunak preskripzioa, abstraktuki, egintza baztertzailerik

moduan alegatzen badu ere. Kasu horretan, zordunak alegatzen duenez, eskaera eratzten du, eta aurka egiteko demandan egin behar du.

5.5.3.2.2. Kanbiarioak ez diren salbuespenak

Kanbio-zordunak letrari aurka egin diezaioke, edukitzailearen eta beraren arteko harreman pertsonalean oinarriturik. Bide horretatik, kanbio-epaiketan, harreman juridiko materiala, kausazkoa edo azpian datzana hartzen da kontuan, hau da, prozesuko alderdi bien arteko harreman zehatza, baina ez beste pertsona batzuen artean legokeen beste harremanik.

Nahiz eta, aurreko paragrafoan esan den bezala, epaiketa mota berezi honetan, kanbio-zordunak letra-edukitzaileari aurka egin diezaiokeen bien arteko harreman pertsonalean oinarriturik, inola ere ezin diezaike aurka egin askatzailearenganako edo lehen edukitzailearenganako harremanetan oinarriturik leudekeen salbuespenei.

Hala ere, honetan ere bada araua betetzen ez duen kasurik: edukitzaileak kanbio-letra zordunaren kalterako erdietsi badu, hain zuzen ere. Hau da, kanbio-letra edukitzaileak jakin badakienean zein diren zordunak, libratzaile edo endosu-emailearen aurka alega ditzakeen salbuespenak.

Azaldu berri den honek guztiak esan gura du harreman juridiko materialeko alderdien artean, hots, kanbio-letraren libratzailearen eta libratuaren artean, azpian datzan edo kausazko harreman oso hori alega daitekeela, inolako mugarik egon barik. Aipatu egoera hori kanbio-epaiketa berezian gertatzen da, baina prozesua arrunta balitz, dagozkion demanda eta erantzuna daudela, zordun demandatuak kanbiarioak ez diren salbuespenik alegatuz gero, errekonbentzioa jartzea ekarriko luke.

Kasu horretan, errekonbentsioaren kasuan, alegia, demandatuak demandatzaileak ezarritako prozesuko objektua uzten du. Beste modu baten esanda, prozesuko uzia uzten

du eta beste uzi bat adierazten du, eta prozesuan azpian datzana edo kausazko harremana gehitzen ditu, eta haiek beste objektu bat edo uzi bat dira. Baina, dena den, PZLk kanbio-epaiketa erregulatzen duen legez, egiten den salbuespena ezin da errekonbertsioztat hartu, eratze-egintzat baizik.

5.6. Demandatuaren jarrerak ordainketa-agindeia jasotzean

Zordunak aurkez ditzakeen aurka-egiteak aztertu ondoren, ordainketa-agindeia jasotzean har ditzakeen jarrerak laburbilduko dira. Horrela, agindeia egin ondoren, demandatuak honako aukeretako bat hauta dezake.

- ordaintzea
- ez ordaintzea
- aurka egiteko betearazpenaren kopurua zaintzapean uztea
- ez ordaintzea eta aurka egitea.

Ondoren aztertuko dira.

5.6.1. Zordunak zorra berdintzen duenean

Aukera hau PZLren 822. artikuluan jaso dago eta, demandatuak ordaintzen badu, kasuan kasuko diru-kopurua alderdi betearazlearen esku jarri eta betearazpena ere amaitutzat joko dela ezartzen du. Kasu horretan, betearazpen-epaiketan gertatzen den bezalaxe, prozedura borondatezko jurisdikziodun espedientea baino ez da, eta berau demandatua bertan izan gabe izapidetzen da. Bere eginkizuna betearazlea da, eta bertan, borondatez, diru-betebeharra betetzen da.

5.6.2. Zordunak zorra berdintzen ez duenean

Ordainketa-agindeia egin eta hurrengo hamar egunetan, hau da, auzitegiak zordunari pertsonatzeko eskaintzen dion epean (ikus PZLren 824.1. artikulua), zordunak aurka egiten ez badu, auzitegiak erreklamaturako kopuruak betearazteko agindu eta ondasunen enbargoa trabatuko du (PZLren 825. artikuluan ezarritakoari jarraituz).

Betearazpena agintzea demandatzaileak eskaturiko diru-kopurua ordaintzeko kondena-ebazpena izaten da. Gainera, betearazpena agintzen duen autoa titulu betearazlea da. PZLren 825. artikulua bigarren paragrafoa arretaz irakurri ondoren baieztatu daiteke hori.

PZLren 825. artikulua aurka-egiterik ezaren ondorioak aipatzen ditu eta hitzez hitz hau dio:

“Zordunak ez badu aurka-egiteko demandarik aurkezten ezarritako epean, erreklamaturako kopuruak betearaztea agindu eta enbargoa trabatuko da, aldez aurretik ezin izan bada gauzatu, edo, 823. artikuluan ezarritakoaren arabera, desegin bada. Kasu horretan, agindutako betearazpena gauzatu da, lege honetan epaiak eta ebazpen judizialak nahiz tartekaritza-ebazpenak betearazteko ezarritakoaren arabera”.

5.6.3. Zordunak kopurua zaintzapean utzi eta aurka egiten duenean

PZLk ez du kanbio-epaiketarako diru kopurua zaintzapean utzi eta aurka egiteko aukerarik aurreikusten. Hala eta guztiz ere, PZLren 585. eta 586. artikuluen interpretazioa egin eta kanbio-epaiketari buruzko arauari lotzen badiegu, prozesu mota honetan diru-kopurua zaintzapean utzi eta aurka egiteko aukera egon badagoela ondorioztatzen da.

Hau guztiau kanbio-epaiketaren izaeratik bertatik ondoriozta daiteke, betearazpen-epaiketa bezalakoa baita. Gainera, epaiketa biok ala biok helburu duten eginkizun bera da, eginkizun betearazlea duen kreditu-eskubidearen defentsa, alegia.

Beste alde batetik, betearazpen-epaiketan zordunak duen diru-kopurua zaintzapean uzteko aukera dagoela kontuan izanik, kanbio-epaiketan demandatuak aukera hori ez izateak ez du zentzurik. Aukera horrek izapideak erraztea erdiesten du, kondena ebatzi ondoren, diru-kopurua zaintzapean utzi izanak alferrikako bilakatzen dituen egintza betearazleak saihesten baititu.

5.6.4. Zordunak ordaindu eta aurka egiten duenean

Prozedura Zibilaren Legeak aukera hau 824. artikuluan jaso du. Artikulu horrek ezartzen du kanbio-epaiketan zordunak demandatzaileak eskatutakoari aurka egin diezaiokeela, aurka-jartzeko demanda erabiliz, aipatu 824. artikulua markatzen duen epean, hau da, zordunari ordainketa-agindeia egin eta hurrengo hamar egunetan.

Aurreko atalean adierazi den moduan, ezin da ahaztu kanbio-epaiketan egin daitekeen aurka-jartzeak betearazpen-epaiketan gertatzen den izaera zein helburu bera duela. Baina, hori bai, kanbio-epaiketan demandatuak dituen defendatzeko aukerak betearazpen-epaiketan baino askoz zabalagoak izan ohi dira.

Kanbio-agirien eta Txekearen Legearen 67. artikulua aztertuko da ondoren. Aztertuz gero, kanbio-zordunak betearazpen-epaiketako zordunak baino salbuespen gehiagori aurka egin diezaiekeela ikusiko da.

Era honetan, kanbio-epaiketako zordunak demandatuaren eta demandatzailearen arteko harreman juridikoetatik sortutako salbuespen guztiei aurka egin diezaieke. Gainera, aurreko edukitzaileen kontra dituen salbuespenei aurka egin diezaieke, baldin eta edukitzaileak letra lortzean, demandatuaren kalterako jokatu badu (*exceptio doli delakoa*, alegia). Hortaz, kanbio-epaiketan, hirugarrenei egindako iruzurrean gerta litekeen endosuaren arazoa sartuko litzateke.

Kanbio-zordunak kanbio-kreditua ahitzea dakarten salbuespenei ere aurka egin diezaieke, hau da, kanbio-letra, txeke edo ordaindukoaren legitimaziorik ezari dagokiona eta kanbio-deklaraziorik ez egoteari edo, balego, baliozkoa ez izateari dagokiona ere, sinaduraren faltsutasuna barne.

Azkenik, zordunak edukitzailearen legitimaziorik ezari dela-eta, salbuespenei ere aurka egin diezaiekete. Horrekin guztiarekin batera, demandatuak PZLren 559. artikuluan (ikus artikulua) biltzen direnak ez ezik, salbuespen prozesalei ere aurka egin diezaieke.

Prozedura Zibilaren Legeak kanbio-zordunari eskaintzen dizkion aukera guztiek dakarte kanbio-epaiketak epaiketa arruntak bezalakoa izatea, arlo honetan behinik behin, eta haietan, dagoeneko argi dagoen moduan, mugarik ez dago aurka-egitean.

5.7. Kanbio-legeak ezarritako solidaritate-erregimenaren garrantzia prozesuan

Kanbio-agirien eta Txekearen Legearen 57., 96., eta 148. artikulua tituluak (kanbio-letra, txeke, zein ordaindukoan) libratzaile, onartzaile, endosu-egile, nahiz abal-emaile gisa sinatu duten guztiek edukitzailearen aurrean duten solidaritate-erregimena ezartzen du .

Kode Zibilak aurreikusten duen solidaritate-erregimenak ez bezala, tituluak kanbio-betebeharpeko guztien kontra jotzen uzten dio edukitzaileari.

Edukitzaileak betebeharpeko guztien aurka akzioa batera egikaritu dezakeenez, aipatu akzioak meta daitezke, baina haiek, prozesuaren ikuspuntutik, bateraezinak dira, bat onartzeak beste betebeharpeko batzuen aurka izan lezakeenik baztertuko baitu.

Metaketa-aukera hori, Prozedura Zibilaren Legearen 73.3. artikuluan bildurikoen artean dago, baina akzio-metaketak ez du ekiditen praktikan prozesua aldatzea. Prozesuan gertatzen diren arazo horiek gertatzen dira PZLk ez dielako konponbiderik eskaini hainbat arazori, hala nola, betearazpen-izapideetan gerta daitezkeenei, edo kanbio-epaiketako zenbait izapidetan gerta daitezkeenei: ordainketa-agindeia, ordainketa bera, dirua zaintza judizialean uztea edo ondasunen bahiketa.

Prozesuaren Legeak ez die arazoi erantzunik ematen, eta egin beharreko interpretazioek gaur egungo legean oinarritik ez duten jarrera juridikoak sorrarazten ditu. Jurisprudentziak arazook konpondu arte, behinik behin, horrela izango da.

5.8. Aurka-egitea ebazten duen sententzia

PZLren 827.1. artikulua kanbio-epaiketean sententzia emateko epea ezartzen du. Modu horretan, auzitegiak epaia ahozko judizio-ikustaldia egin eta hamar eguneko epean emango duela ezartzen du.

Epaiak aurka-egitearen baieste edo ezestearen inguruan ebazpena eman behar du, baina Prozedura Zibilaren Legeak epaiaren edukiari buruz ez du ezer esaten eta, horregatik, ez dago argi agindu betearazleari edo diru-betebeharrerako kondenari buruz beste ezer esan duenik.

Diru-betebeharrerako kondenari dagokionez, aurka-egitea baztertu duen eta errekurritu den epaiaren behin-behineko betearazpenaren zilegitasunari lotuta agertzen da. Hori horrela da betearazpena posible baita soilik epaia titulu betearazlea bada, eta horrek epaian kondena-erabakia egon dadila eskatzen du.

Hurrengo lerrootan, kanbio-epaiketako disputa ebazten duen sententzian onartzen diren balizkoak aztertuko dira. Horretarako honako hiru balizko hauek erabiliko dira:

LEHENENGOA: epaiak aurka-egitea onartzen badu eta gora jotzen ez bada, aurreneurritzko enbargoa desegin beharko da eta prozesua amaituko da.

BIGARRENA: epaiak aurka-egitea onartu badu eta hartzekodunak gora jotzeko errekurtsua egin badu, aurreneurritzko enbargoa desegingo da, errekurtsio-egileak enbargoari eusteko eskatu ezean. Auzitegiak kontrako alderdiari entzun ondoren eta kasuaren inguruabarrak aztertu ondoren ebatziko du.

Prozedura Zibilaren Legearen 827.2. artikulua dio: “Aurka-egiteari on iritzi dion epaiaren aurka errekurtsua jartzen bada, 744. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuko da, trabatu diren aurreneurritzko enbargoari dagokienez.”

PZLren 827.2. artikulua, beraz, PZLren 744. artikulura bidaltzen du, eta bertan, sententzia irmoa ez denean ebatzitako kautela-neurria desegitea aurreikusita dago. Horretaz gain, bestelako neurriak ere har litezke, alderdi betearazleak kauzioaren zenbatekoa gehitu ondoren.

Egia esan, aldaketarik gabeko igortze zuzen horrek arazo bi sortzen ditu. Alde batetik, ezin da jakin zein neurri ordezka dezakeen aurreneurritzko enbargoa eta, beste aldetik, kanbio-epaiketean aurreneurritzko enbargoa kauziorik gabe ebatzen denez, ezin da kauzioaren zenbatekoa gehitu.

HIRUGARRENA: epaiak aurka-egitea ezesten badu eta zordunak errekurtsua jartzen badu, epaiaren behin-behineko betearazpena egon daiteke. Kasu horretan, behin-behineko betearazpenerako arau orokorrak, hots, PZLren 524. eta hurrengo artikuluetan bilduta daudenak erabiliko dira, epaiaren edukia ekonomikoa dela ahaztu gabe.

PZLren 827.3. artikulua esaten ez badu ere, epaiak aurka-egitea ezetsi eta gora jotzen ez bada, edo sententziak azkenean aurka-egitea irmoki ezesten badu, horixe izango da

titulu betearazlea eta, horretan oinarriturik, hartzekodunak nahitaezko betearazpena eska dezake, PZLk aurreikusitako izapideak kontuan izanik, jakina.

Hitzez hitz, PZLren 827.3. artikulua dio: “Kanbio-epaiketean emandako epai irmoak gauza epaituaren ondorioak sortuko ditu, epaiketa horretan alega eta eztabaida zitezkeen arazoei dagokienez. Gainerako arazoak kasuan kasuko epaiketan aurkez daitezke”.

Egia esan, arau hori ulertezina da, zordunak aurka egiteko demandan alega baititzake kanbio-letraren edukitzailearenganako harreman pertsonaletan oinarritutako salbuespen guztiak.

Beraz, gauza epaitua prozesuaren alderdien artean dagoen harreman juridiko osora zabalduko da eta, ondoren, ezin izango da alderdi beren arteko beste prozesurik egon. Hala ere, kanbio-zordun eta beste pertsona (libratzailea, kasu) baten artean egon ahal izango da, baina orduan ez lirateke batuko gauza epaituak ezezko ondorioa zabaltzeko behar diren nortasunak.

Laburbilduz, absoluzio-epaia izanez gero, kautela-neurriak desegingo dira, PZLren 744. artikulua ezarritakoaren arabera. Baina sor litezkeen kalteei erantzuteko kauziora egiten bada, edo, gora jotako epaia berretsiz gero, nagusiaren itzulketarena. (PZLren 827.2. artikuluan honela ezarrita dago eta).

Epaia behin-behinean betearaz daiteke, PZLren 827. artikuluko lehenengo paragrafoan horrela adierazita baitago.

PZLren 827. artikulua aurka-egiteari buruzko epaia eta bere eraginkortasuna aipatzen ditu. Hitzez hitz, honela dio:

“Hamar eguneko epean, auzitegiak epaia emango du, eta aurka-egiteari buruz ebazpena emango du. Aurka-egiteari gaitz iritzi eta epaiari errekurtoa jartzen bazaio, epaia behin-behinean betearaziko da, lege honetan xedatutakoaren arabera.”

Erreserbak eskubide-erreserba duen gauza epaituaren ondorioak sortuko ditu. Kasu horretan, demandatuak kanbio-epaiketari legez aurkeztu ezin izan dituen gaiei buruz lehenago esandakoa hartu behar da kontuan.

6. KAPITULUA: HIPOTEKA-BETEARAZPENAREN PROZEDURA

6.1. Hipoteka-betearazpenaren prozedura. Sarrera. 6.2. Hipoteka-hartzekodunak erabil ditzakeen prozedurak. 6.3. Betearazpen-prozesu arrunta. 6.3.1. Alderdiak eta metaketa. 6.3.2. Prozesuaren berezitasunak. 6.4. Hipoteka betearazteko prozesu berezia. 6.4.1. Prozesu balizkoak. 6.4.1.1. Finkaren tasazio-prezioa. 6.4.1.2. Agindeietarako eta jakinarazpenetarako egoitza. 6.4.1.3. Eskumena. 6.4.1.4. Legitimazioa. 6.4.2. Betearazpenaren garapena. 6.4.2.1. Demanda. 6.4.2.2. Ordainketa-agindeia. 6.4.2.3. Erregistro-ziurtagiria eta orri-bazterreko oharra. 6.4.2.4. Jakinarazpenak. 6.4.2.5. Gordailua edo ondasuna administratzea. 6.4.2.6. Enkantea. 6.4.2.7. Hipoteka-kreditua ordaintzea eta soberakinaren erabilera. 6.4.3. Betearazpena etetea eta aurka egitea. 6.4.3.1. Betearazpena eteteko arrazoiak. 6.4.3.2. Betearazpenpekoaren aurka egitea. 6.4.4. Epaiketa arruntera igortzea. 6.5. Edukitzaren lekualdaketa-rik gabeko bahia betearazteko prozesu berezia.

6.1. Hipoteka-betearazpenaren prozedura. Sarrera

Ikasgai honetan nahitaezko betearazpenerako prozesua aztertuko da. Betearazpen mota honek jurisdikzio-tituluak ez diren hainbat titulutan du oinarria, eta tituluok berme eskubide erreala, hala nola, hipoteka eta edukitzaren lekualdaketa-rik gabeko bahia jasotzen dute. Berme-eskubide erreala ondasun baten gainean sortzen da, eta ondasun hori, edukitzailea dena dela, bere segurtasunerako ezarritako betebeharrak nagusia betetzeari lotuta dago (ikus Kode Zibilarren 1876. artikulua, Hipoteka Legearen 104. eta 105. artikulua, eta Ondasun Higigarrien gaineko Hipoteka eta Edukitzaren Lekualdaketa-rik gabeko Bahiaren Legearen 16. artikulua).

Eskubide erreal horren izaera dela bide, legegileak bermea gauzatzeko prozedura betearazle bereziak ezarri ditu kreditu-eskubidea bultzatzeko asmoz (ikus 1861eko Hipoteka Legearen zioen azalpena). Prozedura berezi horiek erabil ahal izateko, beharrezkoa da *pactum executivum* delakoa duen titulua, hau da, titulu hau betearazpenarekin zuzenean lotua egongo da, alderdiak borondatez onartua izango da eta auzitegiak alde aurretik arduratu gabekoa izango da.

Konstituzio Auzitegiaren aurrean, prozedura hauetan, nahitaezko betearazpenetan gertatzen den ez bezala, alderdien arteko kontraesanik ez zegoela salatu zen. Hori dela eta, kontraesanik ezak defentsa gabezia eragiten zuela alegatu zen eta, hortaz, erregulazio horrek Espainiako Konstituzioaren 24.1 artikuluan azaltzen den oinarrizko eskubidearen aurkakoa zela.

Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 18ko 1981/41. sententzian, babesak ukatu zuen 6. oinarri juridikoan. Hipoteka Legearen aurreko 131. artikuluari dagokionez, epaiketa arruntan kontraesana egoteko aukera oraindik ere egon bazegoela eta are gehiago, kontraesana mugatu beharrean, prozedura bertan behera uzteko aukera mugatu zuen, eta aurkez zitezkeen salbuespenak murriztu zituen, hain zuzen ere.

Eragingo dion ondasunaren izaeraren arabera, kredituak hainbat eratan berma daitezke: ondasun higiezinaren gaineko hipotekaz, ontzien gaineko hipotekaz, ondasun higigarrien gaineko hipotekaz eta edukitzaren lekualdaketarik gabeko bahiaz, erregistroan ezin zehatz daitezkeen hainbat ondasuni dagokionean. Bermaturiko kredituok hainbat prozedura sortzen dituzte.

Prozedura Zibilaren Legeak Hipoteka Legea aldatu du, hau da, lehen hipoteka-betearazpena arautzen zuen legezko testua. Hala ere, Zioen Azalpenean, hipoteka-betearazpenaren aurreko erregimena funtsean berdin jarraitzen duela dio. Aipatu sistemaren ezaugarri esanguratsuenak da zordunak betearazpenari aurka egiteko arrazoiak nahiz etete balizkoak mugatzea. Legegileak ez du aldaketa handirik egin, hipoteka-kredituen merkatua asaldatzea bailekarke.

Horretaz gain, Prozedura Zibilaren Legeak dio hipotekaturiko edo bahituriko ondasunen gaineko betearazpenak gaur egun daukan erregulazioa aurrerapausoa ere badela. Aurrerapausoa, izan ere, hipotekaz bermaturiko kredituen betearazpena zelan erregulatu den bertaratu baitu eta, modu honetan, zenbaitetan eztabaidagai izan den betearazpen horien jurisdikzio-izaera indartu du.

Gainera, berme erreala duten kredituen betearazpenak era bateratuan erregulatu dira, eta, modu berean, lehen zeuden era askotako erregulazioak ezabatu ditu. Betearazpena bertan behera uzteko arrazoiak ere egokiago ordenaturik azalduta daude. Hauek dira:

- Hipoteka- edo kreditu-bermea azkentzea.
- Hartzekodunak galdatu duen saldoarekin ados ez egotea.

Jabari-hirugarrengotza eta zigor prejudizialitatea ezin dira bertan behera uzteko arrazoitzat jo, kasu horietan guztietan prozedura bertan behera uzteak izaera murriztailea iraurazten duen arren.

6.2. Hipoteka-hartzekodunak erabil ditzakeen prozedurak

Hipotekaz bermaturiko kreditua duen hartzekodunari legeak hainbat prozedura-aukera eskaintzen dizkio. Horrela, baldin eta prozedura-baldintzak jazotzen badira, eskubidearen defentsarako egokien iritzi diona hauta dezake. Denen artean, haatik, betearazleak diren aukerak besterik ez dira.

Normalena ez bada ere, zenbatekoari dagokion adierazpen-prozedura arruntera jo daiteke. Baina bide hori hautatzeak arinagoa den beste bati uko egitea dakar, hala nola, babes judizial betearazlera zuzenean jotzea, eskubidea adierazteko prozeduratik igaro barik, judiziala ez den titulua baitago. Hala eta guztiz ere, aukera egon badago, eta baliteke balizkoren batean hautatu dena egokiena izatea, kondena-deklaraziozko uzia dela ahaztu gabe.

Hortaz, hartzekodunak aukera bi ditu:

LEHENENGOA: PZLren prozedura betearazle arruntera jo dezake, PZLren 517.2. artikuluaaren laugarren puntuan dauden betearazpen-tituluetako bat du eta.

BIGARRENA: 2000ko PZLren III. Liburuko IV. Tituluren V. Kapituluaren xedatuta dagoen betearazpen-prozesu berezia eska dezake, PZLren 682. artikulua ezarri betebeharrak biltzen badira betiere.

Hipoteka-maileguaren eskriturretan hartzekodunak horietako edozein bide aukera dezakeela alderdiek adostea arruntena bada ere, akordio hori alferrikakoa da, ez baitago

alderdien eskuetan erabiliko den prozesu mota aukeratzea, Legean bide bakoitza hartzeko aurreikusitako berariazko betebeharrak biltzea ezinbestekoa da eta.

Hartzekodunak betearazpen-prozesura jo badu, oinarri bi izan ditzakeen asmo betearazlea adieraziz egin du:

1. Betearazpen-titulua hipotekaren eskritura bera da. Hipoteka betearazteko asmoa litzateke.
2. Betearazpen-titulua hartzekodunaren kreditu-eskubidea xedatu duen eskritura publikoa da. Doktrinak egintza pertsonal deritzon arren, kreditua betearazteko asmoa litzateke.

6.3. Betearazpen-prozesu arrunta

Hipoteka eratzeko eskritura daukan hartzekodunak hipoteka betearazteko prozesu berezira jotzea arruntena izaten da. Bertan PZLren 682. artikuluan eskatutako prozesu-betebeharrak betetzen baditu, behinik behin. Horrela ez bada, ostera, betearazpen-prozesu arruntera jo beharko du; aukera hau ere badago, betebeharrak gertatzen badira.

Betearazpen-prozesu arruntera jotzea komenigarria izaten da, hipotekatutako ondasuna diru-bihurtze nahitaezkoan (enkantean, alegia) lortuko den balioa nahikoa ez den kasuetan hipotekaz bermaturik dagoen kredituaren zenbatekoa estaltzeko.

Betearazpen-prozesu arruntera jotzeko aukera aurreikusia dago bai ondasun higiezin gaineko Hipoteka Legean (126. artikulua, aurreneurritzko epaiketa), bai ondasun higigarrien gaineko hipoteka eta edukitzaren lekualdaketarik gabeko bahiaren Legean (81. artikulua).

6.3.1. Alderdiak eta metaketa

Uzi betearazlea pasiboki legeztatu bat baino gehiagoren aurka era daiteke, eta hainbat metaketa mota sorrarazi:

a) Betearazpenak zordunaren aurka besterik ez du jotzen:

Jabegoaren Erregistroaren arabera, hipoteka-zorduna hipotekatutako ondasunaren tituluduna denean, betearazpen-prozesu arruntera jotzeak esan nahi du nahitaezko gauzatzea burutzeko beste ondasunik baduela. Kasu horretan, demandan metatutako bi uzi mota ezberdindu behar dira: hipotekarioa eta pertsonala.

1. Hipoteka-uzian titulu betearazlea hipoteka-eskritura publikoa da. Titulu hori PZLren 517.2, 4. artikuluan agertutakoen artean dago. Uzi horrek hipotekatutako ondasuna nahitaezko gauzatzea besterik ez du helburu. Enbargoa eta idatzoharra agintzeak ez du zentzu handirik, traba horrek ez baitio ezer gehitzen berez bermea den hipotekari.
2. Uzi pertsonalean, titulu betearazlea kreditu-eskubidea bildurik duen eskritura da, hipoteka ezertarako ez aipatu barik. Titulu hori ere PZLren 517.2, 4. artikuluan agertutakoen artean dago. Uzi horren bitartez, zordunaren patrimonioa osatzen duten ondasun guztien atzetik joango da. Hipotekatutako finka ere helburua izango da, baina soilik hipoteka bidez bermatutako zenbatekoa gainditzen duen balioaren zatia. Kasu horretan, ondasun horiek bahitu eta Erregistroan idatzi beharko dira.

Betearazpen-demanda horrek uzi metaketa objektiboa dauka, uzi biak ala biak pertsona beraren aurka, hau da, hipoteka-zordunaren aurka formulatzen baitira. Demanda horretan, beraz, hipoteka-uzia eta uzi pertsonala metatuta daude eta, biak batera izapidetu behar diren arren, titulu banatan oinarrituta daude. Prozedura bakar batean izapidetzen diren betearazpen-prozedura bi dira. Metaketa kasuetan gertatu ohi den egoera arrunta da.

b) Betearazpenak zorduna eta beste pertsona baten aurka jotzen du:

Betearazpen-prozesuak zorduna eta beste pertsona baten aurka jo dezake bi balizkotan, eta hemen ere uzi-metaketa kontuan izan behar da.

1.- Zorduna eta hirugarren edukitzailea

Hipotekatutako ondasunaren balioa hipoteka-kredituari (maileguaren printzipalari eta interesei) aurre egiteko nahikoa ez denean gertatzen da. Baliteke ondasuna momentu horretan zordunarena ez izatea, edo inoiz ez izatea, hipoteka-egilea zorduna izan ez baita. Kasu horretan ere, betearazpen-prozedura arruntera jo daiteke, eta uzi betearazle bi formulatu: hipoteka-uzia eta uzi pertsonala.

Hipoteka-eskrituran oinarritutako hipoteka-uzian, hirugarren edukitzailearen aurkako betearazpena eska daiteke. Ondasun higiezinaren gaineko hipotekan, hirugarren edukitzaileak babesgabetzen ez badu, bere aurka joko da ondasun horren bidez bermatutako printzipala, eta sortutako interesak eta kostuak eskatuko dira (Hipoteka Legearen 126., eta 127. artikulua eta Hipoteka Erregelamenduaren 222. eta 223. artikulua). Hirugarren edukitzaileak ondasuna babesgabetzen badu, betearazpenak zordunaren kontra jarraituko du soilik.

Uzi pertsonalak mailegu-eskritura du eta oinarri zordunaren ondasun guztien aurka joko du; hipoteka-uziari metatzen zaio. Betearazpen-demandan uzi-metaketa gertatzen da, inolako zalantzarik gabe. Metaketa objektibo eta subjektiboa da aldi berean: hipoteka-uzia hirugarren edukitzailearen aurka jotzen den bitartean, pertsonala zordunaren aurkakoa izaten baita. Lehenengoz, enbargo zein idaztoharrik ez duen hipoteka-ondasuna gauzatuko da, eta orri-bazterreko oharraren bidez karga-egiaztapena libratu dela agerrarazi behar du. Zordunaren ondasunak, aldiz, bahitu egingo dira eta traba anokatuko da.

2.- Zorduna eta fidatzailea

Hipotekatutako ondasunaren jabetza zordunarena izan arren, mailegua fidatzaile solidario batek irozo bazuen, betearazpen-demandak uzi-metaketa konplexuagoa izan dezake: hipotekazkoa, zordunaren kontrako pertsonala eta fidatzaile solidarioaren aurkako pertsonala.

Hipotekazkoan, zorduna eta ondasunaren jabea demandatuko dira. Hipotekaren eskrituran oinarrituta dago eta, ondasuna hipotekaturik dagoenez gero, ez da ondasuna bahitu behar.

Zordunaren aurkako demandan, eta bere gainontzeko ondasun guztiak pertsegi daitezke; horretarako bahitu egingo dira eta, ondoren, trabaren idaztoharra egingo da. Titulu betearazlea mailegua dokumentatzen duen eskritura bera da.

Fidatzaile solidarioaren aurkako pertsonalean, bere ondasun guztiak pertsegituko dira. Gainera, bahitu egingo dira eta, ondoren, trabaren idaztoharra egingo da. Titulu betearazlea fidantza solidarioa agertzen duen eskritura da.

Metaketa hori oso konplexua da:

- Uzi-metaketa objektiboa baitago: zordunaren aurka hipoteka-uzia eta uzi pertsonala joko dira.
- Horretaz gain, uzi objektibo-subjektibo bat ere baitago: aurreko uzi biei, fidatzailearen aurkako pertsonala ere gehituko zaie.

6.3.2. Prozesuaren berezitasunak

PZLren 579. artikulua dio III. Liburuko IV. Tituluaren V. Kapituluaren bildutakoa erabiliko dela, betearazpenak hipotekatutako edo bahitutako ondasunen aurka soilik jotzen duenean. Baina, hala ere, ezin da ahaztu betearazpen-prozesu berezia ezar daitekeela PZLren 682. artikuluan azaldutako betebeharrak batzen direnean soilik. Betebeharrok batu ezean, hipoteka-betearazpena egingo da betearazpen-prozesu arrunta erabiliz.

2000ko PZLk ez zituen indargabetu Hipoteka Legearen 126. eta 127. artikulua eta Hipoteka Erregelamenduaren 222. artikulutik 224.era bitarteko artikulua eta, beraz, indarrean daude hipotekatutako ondasuna hirugarren edukitzaile baten eskutara iragan den kasuetan aplikatzeko; hipotekaren kasua, adibidez. Zordunari, notario bidez zein

judizialki, ordainketa-agindeia egingo zaio, eta hark ordaindu ezean, hirugarren edukitzaileari eskatu beharko zaio. Orduan, hirugarren edukitzaileak hiru aukera izango ditu:

1.- Mailegua eta interesak ordaintzea. Errekerimendu notarialaren ostean ordaintzen badu, betearazpen-prozesua hasi ere ez da egingo. Agindei judizialaren ostean ordaintzen badu, betearazpen-prozesua amaituko da.

2.- Hipotekatutako ondasuna babesgabetzea. Kasu horretan, ondasuna zordunaren eskuetan dagoela ulertuko da, eta betearazpen-prozesua bere aurka egingo da.

3.- Hipotekatutako ondasuna ez ordaintzea, ezta babesgabetzea ere. Hirugarren edukitzailea betearazpenpeko alderditzat hartuko da, hipotekatutako ondasunaren bidez ez ezik, bere ondasunez bidez ere erantzungo du. Agindeia egin zitzaionetik aurrerako interesak eta kostuak ere bere gain hartuko ditu.

Amaitzeko, prozesu bereziari ezin zaiola prozesu arruntaren beraren betearazpenik metatu. PZLren 579. artikulua ezarri moduan, hipotekatu edo bahitutako ondasunak enkantera atera ostean, emaitza nahikoa ez bada kreditua estaltzeko, alderdi betearazleak enbargoa eska dezake falta den kopuruarengatik, eta betearazpenak aurrera egingo du, betearazpen orori aplikatu beharreko arau arruntan arabera.

6.4. Hipoteka betearazteko prozesu berezia

1861eko Hipoteka Legean, hipoteka-maileguak eskritura publikoan eratuta zeudenez gero, 1855eko PZLk eta, geroago, 1881ekoak araututako betearazpen-epaiketan betearazi ahal ziren. Baina hartzekodun handiak ez zeuden ados betearazpen-bide horrekin, eta babes pribilegiatuagoa nahi zuten. Bide berria eskatzeko zioak maileguaren zabalkundea eta diruaren interesa gutxitzea izan ziren.

Betearazpen-bide berria 1893ko abuztuaren 21eko Itsasoz Bestaldeko Hipoteka Legean erdietsi zuten, eta, geroago, 1909ko Hipoteka Legearen erreforman. Horrela, Hipoteka Legearen 131. artikuluko judizio-prozedura laburra zeritzona arautu zen.

1893ko Itsas Hipotekaren Legeak betearazpen-prozesu berezi bat ezarri zuen (39. artikulutik 51.era bitarteko artikulua, hain zuzen). 1954ko abenduaren 16ko Ondasun Higigarrien gaineko Hipoteka eta Edukitzaren Lekualdaketarik gabeko Bahiaren Legeak ere, era berean, ondasun higigarrien gaineko hipotekarako prozedura judizial sumarioa arautu zuen (82. artikulutik 85.era bitarteko artikulua), eta haietan, ondasun higiezinaren hipotekaren ildo nagusiei eutsi zitzaien.

2000ko Prozedura Zibilarren Legeak ez ditu betearazpen-prozesu berezi horiek indargabetu. Aitzitik, bertan bildu eta bat egin ditu. Horrela, betearazpen-prozesu berezi bat dago, hipoteka-betearazpena deritzona, eta bere baitan ondasun higiezinaren eta higigarrien gaineko hipoteka eta ontzien gaineko hipoteka biltzen ditu.

Edukitzaren lekualdaketarik gabeko bahiaren betearazpenak duen trataera prozesala ere bateratu da. Kasu horretan, zenbait berezitasun dagoenez, beren-beregiko atal batean aztertuko dira.

Ondoren, batez ere, ondasun higiezinaren gaineko hipotekak aztertuko dira, ondasun higigarrien gaineko hipotekak eta edukitzaren lekualdaketarik gabeko bahiak baino askoz gehiago baitira.

Betearazpen-prozesu berezi hori PZLren 681. artikuluan aurreikusita dago, eta honako hau xedatzen du: bahiarekin edo hipotekarekin bermatutako zorren ordainketa eskatzeko akzioa zuzenean egikari daiteke, bahitutako edo hipotekatutako ondasunen aurka. Akzio hori egikarituko da V. Kapituluaren ezarritakoaren arabera, diruzko betearazpenari buruzko arauen aplikazio osagarriarekin.

Prozesua aplikatuko da kredituaren kapitala edo interesak zati batez ordaintzen ez direnean, baldin eta kapital hori edo interes horiek hainbat epetan ordaindu behar badira eta betebeharra bete gabe mugaeguna bete bada. Prozesua erabili ahal izateko ezinbestekoa da hizpaketa hori izatea eta Erregistroan inskribatuta egotea. Gauza bera

gertatuko da baldin eta, eperen bat ordaintzen ez den kasuetarako, erabateko mugaeguna hitzartu bada (ikus PZLren 693. artikulua).

Ontzien gaineko hipoteka aplikatuko da soil-soilik printzipala edo interesak itzultzeko mugaeguna bete bada (Ontzien gaineko Hipotekaren Legearen 39. artikulua, PZLren 681.2. artikuluari lotua).

6.4.1. Prozesu balizkoak

Prozesu berezi honek abiapuntu duen titulu betearazlea hipoteka eratzeko eskritura publikoa da. Betearazpena egiteko, hipotekatutako ondasunen aurka besterik ezin da jo. Ondoren, epaiketa berezi honetan biltzen diren betebeharrak aztertuko dira.

6.4.1.1. Finkaren tasazio-prezioa

Hartzekodunak eta Ondasunaren tituludunak finka (higiezina) edo hipotekatutako ondasun higigarria tasatu duten prezioa zehaztuko dute hipoteka eratzeko eskritura publikoan. Prezioa oinarri gisa erabiliko da enkantean (ikus PZLren 682.2.1. artikulua). Eta Erregistroan agertu behar du, hipotekaren inskripzioan, hain zuzen ere.

Prezioa zehazteak baloratzera jotzea ekiditen du. Prezio likidoa zehaztu behar du, edo eragiketa matematiko erraz baten bitartez likidatu ahal izango dena. Hartzekodunak eta hipotekatutako ondasunaren tituludunak egilesten dute eta, beraz, baliteke zorduna hipotekaren egilea ez izatea.

6.4.1.2. Agindeietarako eta jakinarazpenetarako egoitza

Zordunak eskrituran agindeiak eta jakinarazpenak bidaltzeko egoitza zehaztu beharko du (ikus PZLren 682.2.2. artikulua), eta Erregistroan egingo den inskripzioan ere agertuko da.

Zordunak egoitza libreki zehaztuko du, nahiz eta, praktikan, hipoteka-egileak egin ohi duen. Honako inguruabar hauek gerta daitezke:

- A. Egoitza bi edo gehiago zehatz daitezke, hipotekatzaileak bat baino gehiago izanez gero, edo zorduna eta zorduna ez den hipotekatzailea egonez gero.
- B. Egoitza hartzekodunarena izan daiteke.
- C. Hipoteka merkataritza-erakunde baten gainekoa bada, egoitza ezin izango da aukerakoa izan, eta hipotekaturiko lokalarena izan beharko du.
- D. Hirugarren edukitzaileraren bat egonez gero, egoitza bere eskuraketari buruzko inskripzioan zehaztutakoa izango da (PZLren 683.3. artikulua).

Aurreko guztia hala izan arren, zordunak, zordun ez den hipotekatzaileak eta hirugarren edukitzaileak zehaztutako egoitza alda dezakete, hipotekak iraun bitartean. Baina egoitza-aldaketak Erregistroan agertu behar du notario-aktaren bidez eta hipoteka orri-bazterreko ohar moduan inskribatuko da (PZLren 683.2. artikulua).

Egoitza-aldaketa modu bitan egin daiteke:

1. Zordunaren, zordun ez den hipotekatzailearen edo hirugarren edukitzailearen borondatez, hartzekodunari jakinaraziz. Baina hartzekodunari ez zaio jakinarazi behar, egoitza eskrituran agertzen den udalerrri berean edo finkak kokatuta dauden udalerrietako batean badago. Ontzien gaineko hipotekan, berriz, egoitza-aldaketa edozein kasutan jakinarazi behar zaio hartzekodunari.
2. Hartzekodunaren baimena izanda: ondasun higiezinaren kasuan, aldaketa aurrekoak ez diren beste egoitza bati dagokionean, kasu guztietan, hartzekodunaren baimena beharko da.

6.4.1.3. Eskumena

Eskumen objektiboa lehen auzialdiko epaitegiari dagokio. Lurralde-eskumenari dagokionez, ondasun higiezinaren gaineko hipotekaren kasuan, ez dago auzitegi baten eskumenean jartzetik, hortaz, lege-foruak baino ez dira gelditzen. Gainera, Epaitegiak bere lurralde-eskumena ofizioz kontrolatu beharko du.

Ofizioz kontrolatzeak esan nahi du epaileak, betearazpena agindu aurretik, bere eskumena aztertu behar duela. Lurralde-eskumenik ez duela ulertzen badu, autoa eman eta, betearazpena ez agintzeaz gain, demandatzaileari adieraziko dio zein Auzitegitan aurkeztu beharko duen demanda (PZLren 546. artikulua).

Ofizioz kontrolatzeak ez du betearazpenpeko alderdiak eskatutako kontrola baztertzen. Hark deklinatoria proposatuz egin dezake, baldin eta betearazpen-prozesuaren lehenengo jakinarazpena jaso eta hurrengo bost egunetan egiten badu betiere (PZLren 547. artikulua).

PZLren 684. artikulua xedatu bezala, hipoteka betearazteko prozesua aztertzeke, finka zein tokitan egon eta bertako lehen auzialdiko epaitegia izango da eskuduna. Finka barruti judizial batean baino gehiagotan egonez gero, finka batzuk izan eta barruti desberdinetan daudenean bezala, barruti horietatik edozeinetako lehen auzialdiko epaitegia izango da eskuduna, eta beraz demandatzaileak haietako edozein hauta dezake.

Hipotekatutako ondasunak ontziak badira, hipoteka eratzeko tituluan, alderdiek lehen auzialdiko epaitegiren eskumenean jartzea erabaki eta hori izango da organo eskuduna; eta ez bada erabakirik hartzen, hipoteka eratu den lekuko epaitegia, hipotekatutako ontziaren portuko epaitegia, demandatuaren egoitzako epaitegia edo hipoteka inskribatu den erregistroko epaitegia, auzi-jartzaileak hala aukeratuta.

Hipotekatutako ondasunak higigarriak badira, bermea eratzeko eskrituran edo polizan, alderdiek lehen auzialdiko epaitegiren eskumenean jartzea erabaki eta horixe izango da organo eskuduna; eta ez badute ezer erabakitzen, hipoteka inskribatu den barruti judizialeko epaitegia. Hipotekatutako ondasunak bat baino gehiago izanez gero eta

ondasunok erregistro batean baino gehiagotan inskribatuta badaude, kasuan kasuko barruti judizialetatik edozeinetako lehen auzialdiko epaitegia izango da eskuduna, auzi-jartzaileak hala aukeratuta.

6.4.1.4. Legitimazioa

Legitimazio aktiboa hartzekodunak du, berak baitu erregistroan inskribaturiko bere mesederako hipoteka. Hipoteka-betearazpena eskatu duenaren mesede inskribatuta ez badago, largetsi beharko da.

Hipoteka pertsona jakin baten mesedetan inskribaturik ez egotea gerta daiteke, inskribatu ez den lagapena egon bada. Kasu horretan, lehenengo hartzekodunak mailegua hipotekarekin batera laga du, baina hartzekodun berriaren mesederako lagapena ez da inskribatu. Orduan, bigarren hartzekodunak ez du prozesu berezi horri hasiera emateko legitimaziorik. Hala eta guztiz ere, Auzitegi Gorenak noiz edo noiz kontrakoa onartu du.

Legitimazio pasiboa zordunak, zordun ez den hipotekatzaileak edo hipotekatutako ondasunen hirugarren edukitzaileak dute. Eta haien aurka formulatuko da demanda betearazlea (PZLren 685.1. artikulua). Figura horiek hurrengo paragrafoetan aztertuko dira.

Zorduna betebeharpekoa da, bera eta hartzekodunaren artean dagoen kreditu-harreman materiala baita. Normalean, zorduna eta hipotekatzailearen (hau da, hipotekatutako finkaren erregistro-tituluduna) figurak bat izaten dira. Baliteke zordunak bat baino gehiago izatea eta, orduan, denak demandatu beharko dira.

Zordun ez den hipotekatzailea ez dago kreditu-harreman materialak behartuta, zorduna ez da eta, baina erantzukizuna onartu behar du, hipotekatutako ondasunari dagokiona, alegia. Bere aurka hipoteka-uzia baino ezin daiteke erabili; uzi pertsonala, aitzitik, ez.

Hirugarren edukitzailea hipotekatutako gauzaren jabaria hartuko duena da. Hirugarren edukitzaileak ez du zerikusirik hipoteka eratzearekin zein zorrarekin. Baina hipotekaturiko ondasuna lortzean, zorra trukatu bada (horretarako hartzekodunaren baimena behar da), ez da hirugarren edukitzailea, zordun bihurtu da eta. Hirugarren edukitzailea demandatzeko, hartzekodunari egiaztatu behar dio ondasun horiek eskuratu dituela (PZLren 685.1. artikulua).

Hirugarren edukitzailea da, finka edo hipotekatutako ondasunaren jabaria lortu duena ez ezik, hipotekatutako edo enbargatutako finkaren gozamen-eskubidea nahiz jabari erabilgarria soil-soilik eskuratu duena, edo jabetza soila nahiz zuzeneko jabaria eskuratu duena ere (PZLren 662.2. artikulua).

Hirugarren edukitzaileari dagokionez, bi aukera ezberdindu behar dira:

- a) Hirugarrenak hartzekodunari ondasunaren eskuraketa benetakotu badio, demanda bere aurka zuzenduko da. Ez da eztabaidatzen hirugarrenak bere titulua erregistroan inskribatu duenentz, ezta eskuraketa modua ere. Legeak ez dio ezer benetakotzeari buruz, eta horregatik ez du balio izango edonola egiteak.
- b) Hirugarrenak hartzekodunari eskuraketa benekotatu ez badio, baina titulua inskribatu badu, eta jabaria inskribatzea erregistroko ziurtagiriaz frogatzen bada, hirugarrenari prozesua badagoela jakinaraziko zaio; horrela, komeni bazaio, parte hartuko du betearazpenean. (PZLren 689.1. eta 662. artikulua).

6.4.2. Betearazpenaren garapena

Prozesu berezi honen erregulazioak diruzko betearazpenerako arauen aplikazio osagarrira bidaltzen duenez, berariazko arauak baino ez daude. Ondoren, sakon aztertuko dira:

6.4.2.1. Demanda

Betearazpen-prozesu normalarena da, eta berezitasunak tituluari eta demandarekin batera aurkeztu behar diren agiriei dagozkie. Demandarekin batera, hartzekodunak zein likidazio egin eta horretatik sortu den saldoa adierazten duen agiria eta interes aldakorraren kalkulua aurkeztu beharko ditu (PZLren 572., 573. eta 574. artikulua).

Hipoteka-betearazpenaren titulu betearazlea hipoteka eratzeko eskritura publikoa da, (PZLren 517.2.4. artikulua), erregistratzaileek erregistro-ziurtagiria izan zedin nahi izan arren.

Baina, zenbaitetan, ez da beharrezkoa inskribatutako eskrituraren lehenengo kopia aurkeztea eta, orduan, bigarren kopiari inskripzioa eta hipotekaren iraupena benetakotzen duen erregistro-ziurtagiria gehitu beharko zaizkio. Hona balizko horiek:

- Inskribatutako titulua ezin daitekeenean aurkeztu (PZLren 685.2., II. artikulua).
- Hipoteka aldebakarrekoa denean (Hipoteka Legearen 141. artikulua).
- Hipoteka balio-tituluen bermea denean (Hipoteka Legearen 155. artikulua).
- Hipoteka trukatu denean.
- Hipotekak ondasun higiezinaren gainean eratu badira, legearen arabera hipotekazedulak jaulki ditzakeen erakundearen mesederako, edo hipoteka-bonuen jaulkipenari lotutako kredituak eta maileguak bermatzen dituzten erakundearen mesederako (PZLren 685.4. artikulua eta martxoaren 25eko 1981/2 Hipoteka Merkatuaren Erregulaziorako Legea).

Ontzien gaineko hipoteka denean, betearazpena agintzeko behar besteko titulua da erregistroan inskribatutako hipoteka-agiri pribatua, Ontzien gaineko Hipoteka Legearen arabera (PZLren 685.3. artikulua).

6.4.2.2. Ordainketa-agindeia

Demanda dagozkion agiriekin batera aurkeztu ondoren, auzitegiak, egoki irizten badio, auto bidezko betearazpena aginduko du. Betearazpena agindu duen auto berean

aginduko du zordunari eta hala denean, demandaren jasotzailea izan eta zordun ez den hipotekatzaileari edo hirugarren edukitzaileari ordaintzeko agindeia egiteko, erregistroaren arabera indarrean dagoen egoitzan (PZLren 686.1. artikulua).

Hipoteka-hartzekodunak agindei mota biren artean aukera dezake:

Notario-agindeia: demanda aurkeztu aurretik, hartzekodunak ordainketa-agindeia egin diezaioke zordunari, gutxienez, demanda aurkeztu baino hamar egun lehenago (PZLren 581.2. artikulua).

Agindeia erregistroan indarrean dagoen egoitzan egin behar zaio zordunari berari, zordun ez den hipotekatzaileari edo hirugarren edukitzaileari, zuzen-zuzenean, egoitzan badaude, edo aipatu pertsona horien bizilekuan dagoen eta 14 urtetik gora dituen ahaide hurbilenekoari, senideari edo langileari, eta, bizilekuan inor ez badago, atezainari edo auzoko hurbilenekoari (PZLren 686.2. artikulua).

Judizio-agindeia: goian aipatu agindeia egin ez bada edo akatsez egin bada, judizio-agindeia egin beharko da.

Betearazpenpekoak ordaintzen badu, betearazpena amaituko da (PZLren 585. artikulua). Ordaintzen ez badu, betearazpenak aurrera egingo du.

6.42.3. Erregistro-ziurtagiria eta orri-bazterreko oharra

Agindei judiziala edo estrajudiziala egin ondoren, Auzitegiak honako kontu hauek jasotzen dituen ziurtagiria eskatuko dio Erregistroari:

- 1) Betearazlearen aldeko hipotekak badirauela, kitatu barik dagoela edo erregistroan agertzen diren kitapen edo moldaketak.

- 2) Jabariari eta kargatutako ondasunaren gaineko eskubide errealei buruzko titulartasuna.
- 3) Ondasuna kargatzen duten zama guztiak, izaera edozein dela, edo ondasunak zamarik ez izatea (PZLren 688.1. artikulua).

Erregistroak egindako ziurtagiriak ondorioztatzen badu alderdi betearazlearen erreklamazioaren oinarri den hipoteka ez dagoela edo hipoteka hori ezereztu egin dela, auzitegiak autoa emango du, betearazpena amaitzeko. Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtoa jar daiteke (PZLren 688.3. artikulua).

Ziurtagiria luzatu den data berean, erregistratzaileak hipoteka-inskripzioan jasoko du, orri-bazterrean oharra egingo du, jabariari eta zamei buruzko ziurtagiria luzatu dela, luzapenaren data eta ziurtagiriak aipatzen duen prozedura badagoela adieraziko du (PZLren 688.2. artikulua). Bazterreko oharra Erregistrora heltzen den orori, hau da, geroagoko erregistro-titularrei prozesuaren berri emateko balio du. Bazterreko oharra manamendu judizialaren bidez ezereztu ez den bitartean, erregistratzaileak ezin izango du hipoteka ezereztu, betearazpenaz besteko arrazoen ondorioz (PZLren 688.2. II. artikulua).

6.4.2.4. Jakinarazpenak

Betearazpen-prozesu berezi horren hasierak prozesuaren berri emateko hiru egoera juridiko edo eskubide tituluduni hiruna jakinarazpen egiteko eskatzen du.

1.a. Geroagoko hartzekodunei: erregistratzaileak berak

Hipotekaren ondoren eratutako zama edo eskubide errealeen titularrei, erregistroan orri-bazterreko oharra egin baino lehen inskribatu bazuten eta erregistro-ziurtagirian

agertzen badira, erregistratzaileak berak emango die prozesuaren berri (PZLren 689.2., 659. eta 660. artikulua).

Jakinarazpena ez zaie egingo ez hipoteka baino lehenago eraturako zama edo eskubide errealeen titularrei, ezta ziurtagiriaren ostean erregistratu dutenei ere. Eskubideak inskribatuta edo bazterrean idatzita dituztenei, prozesua amaitu ondoren ezereztu behar direla jakinaraziko zaie. Jakinarazpenaren helburua da geroagoko hartzekodunek hipotekarekin bermatuta dauden kredituaren zenbatekoa, interesak eta kostuak estali ahal izatea. Kasu horretan, betearazlearen eskubideekin ordezkatzeko dira.

2.a. Hirugarren edukitzailea: erregistro-ziurtagirian agertzen bada jabaria bere izenean inskribatua izan duen pertsonari ez zaiola ordainketa-agindeirik egin, ez judizialki ez estrajudizialki, prozesuaren berri emango zaio betearazpenean parte hartu ahal izateko edo kredituaren zenbatekoa, interesak eta kostuak estali ahal izateko.

Prozesua hasi baino lehen, hirugarren edukitzaileak hartzekodunari ondasunaren eskuratzea frogatu badio, prozesuaren alderdia izango da eta demanda bere aurka joko da. Baina hirugarren edukitzaileak hartzekodunari ondasunaren eskuratzea frogatu ez badio, baina titulua erregistroan inskribatu badu, prozesua dagoela jakinarazi behar zaio. Eta, nahi badu, prozesuan parte har dezake, hau da, alderdia izan daiteke.

3.a. Errentariei eta egitezko okupatzaileei: PZLren 661. artikulua ezartzen du prozeduran exekutatua ez den beste pertsona batzuek okupatzen dutenean, epaitegiak betearazpena jakinaraziko diela. Arau hori ondasun higiezinaren betearazpenean kokatuta dago, baina hipoteka-betearazpenaren prozesu berezian aplikatzen da. Gauza bera esan daiteke etxean bizi diren okupatzaileei dagokien eta atal berean dagoen PZLren 675. artikuluari buruz.

6.4.2.5. Gordailua edo ondasuna administratzea

Betearazpen-prozesua hasteak ez du eraginik titularrak duen ondasunaren edukitzan. Baina legeak aurreikusten ditu kasu bi: hartzekodunari ondasunaren edukitza ematea (hipotekatutako ibilgailu motordunen kasuan, PZLren 687. artikulua) eta hipotekatutako finkaren behin-behineko administrazioa edo edukitza (PZLren 690. artikulua).

Lehenengo neurria (hipotekatutako ibilgailu motordunen gordailua) betearazpena agintzen duen auto berean aginduko da, zordunari epaiketaz kanpoko agindeia egin bazaio. Bestela, zordunari ordaintzeko agindeia egiteko aginduko da, eta, zordunak agindeiari jaramonik egiten ez badio, gordailua eratzeko aginduko da. Bigarren neurria (edo behin-behineko administrazioa edo edukitza) ordainketa-agindeia egiten denetik, edo betearazpena agintzen denetik, agindeia epaiketaz kanpo egiten bada, hamar egun igaro ondoren, hartzekodunak hipotekatutako finka edo ondasunaren behin-behineko administrazioa edo edukitza berari eman dakiola eska dezake.

6.4.2.6. Enkantea

Ordainketa-agindeia eta lehen aipatu jakinarazpenak egin eta hogeita hamar egun igaro ondoren, hipotekatutako finka edo ondasuna enkantera aterako da, auzi-jartzaileak, zordunak edo hirugarren edukitzaileak hala eskatuta. Enkantea higiezin enkanteetarako aurreikusita dagoenaren arabera egingo da, eta data zordunari jakinarazi beharko zaio (PZLren 691. artikulua).

6.4.2.7. Hipoteka-kreditua ordaintzea eta soberakinaren erabilera

Enkantea egin eta diru kopuru bat lortu ondoren, horrela erabili beharko da:

1. Auzi-jartzaileari beraren kredituaren ondoriozko betebeharrak nagusia, sortutako interesak eta eragindako kostuak ordainduko zaizkio. Hartzekodunari kontzeptu horietako bakoitzarengatik emandako zenbatekoek ezin dute gainditu hipotekak estalitakoa.

2. Gerakinik bada, hau da, lortutako zenbatekoa hipotekan bermaturikoa baino handiagoa bada, honako egoera hauek gerta daitezke:

- a) Gaindikina gordailutu egingo da hipotekatutako ondasunaren gainean geroago inskribatu edo idatzohartutako eskubideen titularren esku.
- b) Gerakina atxikitzeke agindu bada beste betearazpen bereziren batean nahiz edozein konkurtso-prozesutan, hala egingo da.
- c) Aurreko kasuak jazotzen ez badira, hipotekatutako ondasunaren jabeari emango zaio gerakina.

Adjudikazio-autoa Erregistroan inskribatuko den titulua da. Betearazitako hipoteka eta geroagoko inskripzioa nahiz idatzoharrak ezerezteko manamendu judiziala behar da. Mandamendu horretan jasoko da saldutako edo adjudikatutako ondasunaren balioa auzi-jartzailearen kreditua bestekoa edo txikiagoa dela, eta, ondasunaren balioa kredituaren zenbatekoa baino handiagoa bada, gerakina interesdunentzat atxiki dela. Halaber, geroagoko hartzekodunei eta hirugarren edukitzaileari jakinarazi zaiela (PZLren 692. artikulua).

6.4.3. Betearazpena etetea eta aurka egitea

Tradizionalki, hipoteka-betearazpenaren araudian ezarrita egon da ia-ia ez dagoela bertan behera uzteko arrazoirik eta betearazpenpekoak ezin duela aurka egin. Gaur egun, PZLk bertan behera uzteko zioak eta aurka egitekoak ezberdintzen ditu.

6.4.3.1. Betearazpena eteteko arrazoiak

Prozedura Zibilaren Legeak betearazpena bertan behera uzteko arrazoi bi onartu zituen. Baina ezin da ahaztu diruzko betearazpenerako xedatutakoa ere aplikatu ohi dela. Arau orokorra da betearazpena eten egingo dela, soilik, legeak esanbidez hala agintzen duenean (PZLren 565.1. artikulua).

Eta legeak hipoteka-betearazpena balizko bitan eteteko agintzen du:

- a) Jabari-hirugarrengotzan (PZLren 696. artikulua)
- b) Zigor arloko epaitu aurrekotasunarengatik (PZLren 697. artikulua).

Jabari-hirugarrengotzaren helburua ondasuna betearazpen-prozesutik edo zenbait ondasun higigarri hipotekatik kanpo uztea da, Hipoteka Legearen 111.1 artikulua aplikatuz. Jabari-hirugarrengotza onar dadin, demandarekin batera, jabetza-titulua ekarri behar da. Ondasunaren jabaria inskriba badaiteke, titulu horrek hirugarrengotza duenaren edo beraren kausatzailearen mesederako egon behar du inskribatuta, eta inskripzio-datak bermearenak baino lehenagokoa izan behar du. Lehentasun hori egiaztatuko da, hirugarrengotza duenaren edo beraren kausatzailearen titulua inskribatuta dagoela jasotzen duen erregistro-ziurtagiriaren bidez, eta kasuan kasuko jabari-idazkuna erregistroan azkendu edo ezereztu gabe dagoela jasotzen duen ziurtagiriaren bidez.

Betearazpen-etendura moduan, zigor-arloko epaitu aurrekotasuna alegatzen bada, delitu itxurako egitateetatik edozeini buruz auzi kriminala dagoela egiaztatu behar da, eta egitate horrek dakarrela tituluaren faltsutasuna edo betearazpen-aginduaren baliogabetasuna nahiz ez-zilegitasuna.

6.4.3.2. Betearazpenpekoaren aurka-egitea

2000ko PZL baino lehen, betearazpenpekoak ezin zion betearazpenari aurka egin. Egoera horrek betearazpen-prozesuaren konstituzionaltasuna zalantzan jarri zuen. Baina, gaur egun, aurka-egite mota bi onartuta daude:

- *Aurka-egite prozesal edo formala:* hipoteka betearazteko prozesuan, prozesuko akatsen ondorioz aurka egiteko arau orokorrak (PZLren 559. artikulua) eta betearazpenean zehar lege-hauste aurkaratzekoak (PZLren 562. artikulua) erabili behar dira. Arau horiek PZLren III. Tituluan bilduta daude, eta betearazpen guztietan aplikatzen dira.

- *Sakoneko arrazoiengatiko aurka-egitea*: sakoneko arrazoiak PZLren 695. artikuluan bilduta daude eta PZLk berak mugatu ditu, batez ere, titulu judizialen betearazpenean. Hona hemen aurka egiteko arrazoiak:
 - a) Hipoteka azkentzea. Aurka egiteko arrazoi hori alegatzeko, Erregistroko ziurtagiria, bertan hipotekaren ezerezte dagoela, edo hipoteka ezereztu izanaren eskritura aurkeztu behar dira.
 - b) Hala ere, jabariari eta zamei buruzko ziurtagiria luzatu delako orri-bazterreko oharrak badirau, ezin izango da hipoteka ezereztearen erregistro-ziurtagiririk aurkeztu, erregistratzaileak ezin baitu hipoteka ezereztu betearazpenaz besteko ondorioz (PZLren 688.2. II. artikulua). Kasu horretan, bermea azkentzea egiaztatzen duen agiri bakarra da hartzekodunak emandako hipoteka ezerezteko eskritura publikoa.
 - c) Bermatutako betebeharra azkentzea. Arrazoi hori alegatzeko, beharrezkoa da ordainagiriaren eskritura publikoa aurkeztea. PZLk bildutako balizko hori, izatez, ez dago praktikan. Ordainagiriaren eskritura guztietan, aldi berean, hipoteka-bermea ezerezten da. Hipoteka-hartzekodunak ez du sekula betebeharraren ordainagiririk emango, aldi berean hipoteka ezereztu gabe.
 - d) Eskatu beharreko kopurua zehaztean okerra izatea, baldin eta bermatutako zorra bada alderdi betearazlearen eta alderdi exekutatuaren arteko kontu bat ixtean dagoen saldoa.
 - e) Legeak saldoa egiaztatzeko bidea libreta dela ezarria du. Egia esan, praktikan, finantza-erakundeek egindako merkataritza-kontratuak direnez, eta bertan betearazpena dagoenean eskatuko den zenbatekoa aipatu erakundeak luzatutako ziurtagirian zehaztuko duena denez, alderdi exekutatuak hori eztabaidatu beharko du.
 - f) Ondasun higigarri hipotekatuak edo edukitzaren lekualdaketarik gabeko bahia duten ondasunak betearazi behar direnean, ondasunok prozedura

eragin duen karga baino lehenagoko bahiari, hipoteka higigarri nahiz higiezinari edo enbargoari batuta egotea; lotura hori kasuan kasuko erregistro-ziurtagiriarekin egiaztatu behar da.

Harritzekoa da hipoteka-betearazpenari aurka egitean, betearazpenpekoak ezin diola ordainketari berari aurka egin. Titulu judizialen betearazpenean, aitzitik, alderdi exekutatuak ordainketari aurka egin ahal izango dio, agiri bidez dokumentatzen badu. Beraz, indar handiagoa du titulu ez-judizial batek judizial batek baino. Konstituzionalki, zalantzarria da.

Goian aipatu aurka-egiteetako bat aurkeztu ondoren, betearazpena eten egingo da. Auzitegiak, probidentzia bidez, alderdiak agerraldira deituko ditu; lau eguneko tartea egon behar du egin denetik. Halakoetan, auzitegiak alderdiak entzungo ditu eta bi egunean bidezkoa dena aginduko du. Autoan, gauza bi gerta daitezke: epaileak aurka-egitea on edo gaitz iriztea.

1. Gaitz irizten badio, betearazpenak aurrera egingo du eta etetea desegino du. Ebazpen horren kontra ezin da errekurtsorik jarri.
2. On irizten badio, aldiz, ondorioak aurka-egitearen arabera izaten dira.
 - 2.1. Bermea edo bermatutako betebeharra azkentzeari edo hipotekaturiko ondasunei buruzkoei on irizten badie, betearazpena largestea aginduko du. Horren aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke.
 - 2.2. Zenbatekoa zehazteko arrazoiari on irizten badio, betearazpenaren kopurua zehaztu eta aurrera egingo du. Horren aurka ezin izango da inolako errekurtsorik jarri.

6.4.4. Epaiketa arruntera igortzea

Betearazpenean dagoen deklarazio-intzidentea oso mugatua da. Intzidente sumarioa da eta bertan alderdi exekutatuaren alegazioak, probarako bitartekoak eta epailearen ezaguera mugatuta daude. Horregatik, adierazpen-prozesu plenariora jotzea aurreikusten da, zenbatekoaren zioari dagokionera. Prozesu horretan tituluaren deuseztasunari, edo

zorraren muga-eguneratze, egiazkotasun, azkentze eta zenbatekoari buruzko erreklamazioak aztertuko dira (PZLren 698.1. artikulua).

Horrela, honako hau ondoriozta daiteke:

1. Adierazpen-prozesu plenarioan ezin da betearazpen-prozesuaren erregularitasun formalari buruz eztabaidatu. Gai horrek betearazpenean bertan ebatzita egon behar du, bertan prozesu-akatsek eragindako betearazpena eta zenbait betearazpen-egintza kontestatzea aurreikusita baitago. Ezin da ahaztu, gainera, prozesu baten baliorik eza prozesala ezin dela beste prozesu batean argitu.
2. Adierazpen-prozesua harreman juridiko materialari buruzkoa izan daiteke, betearazpen-prozesuaren intzidentean ez baita gauza epaiturik sortzen. Beraz, adierazpen prozesu horretara harreman juridiko materialari buruzkoak bertara daitezke. Prozesua hori betearazpen-prozesua egiteko badago ere gauza daiteke, baina ez du betearazpena eteten.

6.5. Edukitzaren lekualdaketarik gabeko bahiaren betearazpenerako prozesu berezia

1954ko Ondasun Higigarrien gaineko Hipoteka eta Edukitzaren Lekualdaketarik gabeko Bahiaren Legeak bahiaren betearazpenerako prozedura judicial laburra ere arautu zuen (92. eta 93. artikuluetan), eta PZLk bere egin zuen.

Bahitutako ondasunen aurka artez zuzendu ahal den betearazpen-prozesua da eta funtsezkoenean lehenago hipotekari buruz esandakoari jarraitzen dio. Hauexek dira bere berezitasunak:

1.a) Lurralde-eskumena dagokio bermea eratzeko eskrituran edo polizan alderdiek erabaki duten epaitegiari. Ezer erabaki ezean, ondasunak dauden lekuko epaitegiari, edo ondasunok biltegiratuta dauden nahiz gordailutzat jo daitezkeen lekuko epaitegiari (PZLren 684.1.4. artikulua).

2.a) Demandarekin batera ekarriko da bahian uzteko inskribatutako kreditu-titulua (eskritura edo poliza). Ezin bada titulu hori aurkeztu, demandarekin batera ekarriko da hipotekaren inskripzioa eta iraupena egiaztatzen dituen erregistro-ziurtagiria (PZLren 685.2., II. artikulua).

3.a) Betearazpena agindu eta agindei judiziala egin denean, edo, berau egon ezean, notario-agindeia egin bada, Auzitegiak aginduko du bahitutako edo hipotekatutako ondasuna hartzekodunaren edo berak izendatu pertsonaren esku gordailatzeko. Baina bahitutako ondasunak ezin badira atzeman eta ondasunon gordailua ere ezin bada eratu, prozedurak ez du aurrera egingo (PZLren 687. artikulua).

4.a) Bahitutako ondasunen gordailua eratu ondoren, ondasunok diru bihurtuko dira, PZLn premiamendu-prozedurarako ezarritakoaren arabera.

Premiamendua ondasunaren izaeraren arabera burutuko da:

1. Enbargatutako ondasunak akzioak, obligazioak edo bigarren mailako merkatuetan negozioa daitezkeen beste balio batzuk badira, PZLren 635.1. artikulua xedatutakoaren arabera ekingo da. Burtsan kotizatzen ez duten akzioak nahiz edozein motatako sozietate-partaidetzak badira, PZLren 635.2. artikulua xedatutakoaren arabera ekingo da.
2. Goiko biak ez diren beste balizko bat izanez gero, enkanteari ekingo zaio, PZLren 645. eta hurrengo artikuluek xedatutakoaren arabera. Kasu horretan, ondasunen balioa eskrituran edo polizan erakusten dena da, eta erakutsi ezean, erreklamazioaren zenbateko osoak (printzipala, interesak eta kostuak) erabakiko du.

5.a) Betearazpenari aurka egitean, ondasunak prozedura eragin duen baino lehenagoko bahiari, hipoteka higigarri nahiz higiezinari edo enbargoari lotuta dagoela alega daiteke, eta lotura hori kasuan kasuko erregistro ziurtagiriarekin egiaztatuko da. Kasu horretan, aurka-egiteari on iritziko zaio eta betearazpena largetsiko da.